

**2020KO OTSAILAREN 19KO
BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIAREN ITZULPENA**

**TRADUCCIÓN DEL DIARIO DE SESIONES
DE LA SESION PLENARIA**

**DE FECHA
19 DE FEBRERO DE 2020**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	6
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Laneko Arriskuen Prebentzioa.”.....	6
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	6
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	8
- Euskal Sozialistak taldeko Rico Lezama batzarkide jaunak hartu dau berbea	9
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	10
- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	12
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	14
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	15
- Euskal Sozialistak taldeko Rico Lezama batzarkide jaunak hartu dau berbea	16
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	17
- Euzko Abertzaleak taldeko Lekerikabeaskoa Arrillaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	19
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Barik txartelen iraungipena.”.....	20
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea	20
- Euskal Sozialistal taldeko Rico Lezama batzarkide jaunak hartu dau berbea	22
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	23
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	25
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	27

- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea	29
- Euskal Sozialistak taldeko Rico Lezama batzarkide jaunak hartu dau berbea	30
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	31
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	32
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	33
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Zaintzaileen Estatutua.”	35
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	35
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	36
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	38
- Euskal Sozialistak taldeko Otemin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	40
- Euzko Abertzaleak taldeko Coria Llanguas batzarkide andreak hartu dau berbea	41
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	43
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	44
- Interviene la Apoderada del grupo Elkarrekin Bizkaia Sra. De Madariaga Martín.....	45
- Euskal Sozialistak taldeko Otemin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	46
- Euzko Abertzaleak taldeko Coria Llanguas batzarkide andreak hartu dau berbea	47
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Arauaren garapena.”	47
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	48

- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	50
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea	51
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	52
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	54
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	55
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	56
- Euzko Abertzaleak taldeko Edesa Gómez batzarkide andreak hartu dau berbea	57
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	57
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	58
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Indarkeria matxistaren biktimen oroimen, autortza eta erreparazioa.”	59
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	59
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	61
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	62
- Euzko Abertzaleak taldeko López de la Fuente batzarkide jaunak hartu dau berbea	64
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	65
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	66
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	67
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	68

- Euzko Abertzaleak taldeko López de la Fuente batzarkide jaunak hartu dau berbea	69
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren eta zazpigarren puntuak irakurri dauz: “AP68 autopistan hileko gastu muga ezartzea.” eta “AP-68.”	70
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	70
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	72
- Euzko Abertzaleak taldeko Claver Zurro batzarkide andreak hartu dau berbea	72
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	73
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea	75
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	76
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	77
- Euzko Abertzaleak taldeko Claver Zurro batzarkide andreak hartu dau berbea	78
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	79
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Lobato Pascual batzarkide jaunak hartu dau berbea	80
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Gaztelugatxeko Doniene inguruan aparkalekua eta instalazioak egiteko jarduketa guztiak behingoan geldiarazotea.”	81
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	81
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	83
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	85
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	86
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	87
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	89

- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	90
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	91
- Euskal Sozialistak taldeko Ortiz Zaballa batzarkide jaunak hartu dau berbea	92
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	93
- Batzarra amaitu da.....	95

2020ko otsailaren 19ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 19 de febrero de 2020 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores. Sean todos/as bienvenidos/as: señor Diputado General, junteros/as, las personas que se encuentran con nosotros/as en la tribuna de invitados/as, así como, por supuesto, los/as miembros de los medios de comunicación y todas esas personas que van a seguir esta Sesión Plenaria vía *streaming*. Buenos días y bienvenidos/as. Para comenzar con el Orden del Día, nuestro primer punto dice, señor Secretario.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2020/0000208](#))

Autor: Escalante Mesón, Israel (EB)

Asunto: Prevención de Riesgos Laborales.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2020/0000208](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (6A)

Expediente: ([11/B/20/0000772](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2020/0000208SE](#))

Egilea: Escalante Mesón, Israel (EB)

Gaia: Laneko Arriskuen Prebentzioa

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2020/0000208SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (6A)

Espedientea: ([11/B/20/0000772](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Moción relativa a la prevención de riesgos laborales. Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Escalante Mesón, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Buenos días, muchas gracias, señora Presidenta. Lehenengo eta behin, argitu egin gura dot zera, ezpabere, jaso ez badozue, zuzenketaxua egon dala, aurkezten dogun mozinoko bigarren puntuan igazko abenduan bialdu euskuen Eusko Legebiltzarreko akordu bat aitatzen dalako. Horrexegaitik egon da zuzenketa bat. Topetan ez badozue, 3163. erregistro-zenbakia daukana da, eta 2019ko abenduaren 20koa da. En primer lugar, nuestra solidaridad con los/as trabajadores/as desaparecidos/as. Geure alkartasun guztia adierazo gura deutsegu Zaldibarreko zabortegean desagertutakoen senideei, baita erreskateko lanetan euren osasuna arriskuan ipini dabenei be. Era berean, Galindoko araztegiean lesionautako beharginari be bai. Hain zuzen be, horren ondorioz aurkeztu dogu ekimen hau. Kontrolerako Osoko Bilkuran, izan be, bertatik dakargu ekimen hau, berreskuratu eta, zoritxarrez, kasu batzuetan eguneratu gura doguzan datu batzuk aitatu genduzan. Aurton, 11 lagun hil dira laneko istripuan Euskal Herrian, eta desagertutako biak, eta, hildakoetatik, 5 hil dira, 5 lagun Bizkaikoak ziran. 2019an, 695 lagun hil dira Estatu espainol osoan. Insistimos, la gente trabaja para ganarse la vida, no para perderla. Jentea lanera joaten da lan egiten, bizibidea irabazteko, ez bizia galtzeko. Laneko ezbehar-tasa gero eta handiagoa da azpikontratazioagaitik eta Laneko Ikuskaritzeak gabeziak daukazalako beharginek euren lanpostuetan daukien egoerea kontroletako. Egitate hori egiaztata dago. Laneko ezbehar-taseak

lotura estu-estua dauka gero eta handiagoa dan lan-ezgonkortasunagaz, gehiengo sozial beharginaren lan-eskubideen galereagaz. Hori dala eta, preminazko neurriak garatu behar dira, egoera hori geldiarazoteko. Enplegatailea danez eta zerbitzu publikoak emoten dauzanez, Bizkaiko Foru Aldundia erreferentea izan behar da bere beharginen eta bere obrak zein zerbitzu publikoak beteteko azpikontratetan dauzan beharginen lan-baldintzak kontrolatuko orduan. Eragile batzuek, sindikatuek eta Osalanek, besteak beste, behin eta barriro salatzen dabe, adierazo genduan lez, obra publiko nagusietako ezegonkortasuna. Hori dala eta, beharrezkoa da urtenbidea emotea, ezegonkortasunaren errealidadeari urtenbidea emotea, behargin gehienek lan eta gizarte eskubideen arloan jasaten daben urraketea zedarritzeko moduko politika aktiboen bidez. Azterlan batzuen arabera, badago laneko 10 istripu hilgarritatik 7 ekiditerik, eta, horretarako, laneko arriskuen prebentzinoari buruzko lan-arautegia ezarri baino ez dago. Izan be, azterlan batzuetan adierazoten dan lez, proporzino hori arabere handiagoa be izan leiteke.

Hori guztiori dala eta, Batzar Nagusioi proponiduten deutsegu, batetik, Aldundiari eskatzea, adierazo dogun lez, enplegatailea danez eta zerbitzu publikoak emoten dauzanez, laneko arriskuen prebentzinoari buruzko lan-legeria zehatz-mehatz beteten dana bermatu daiala eta, horretarako, azpikontratazinorako kateak hausten ahalegindu daiteela. Honako hauxe itantzen deusagu geure buruari: "hori beteten da?". Hori eskatzen badogu, agirikoa da ezetz, eta horren adibide bi daukaguz. Barriro aitatu gura deusuegu Galindoko HUAko, araztegiko behargina, baina, zoritxarrez, oraintsuagokoa dan beste adibide bat daukagu, hau da, Zaldibarrekkoa. Bertan, hain zuzen be, erreskateko eta garbiketako lanek ez dabe laneko arriskuen prebentzinoari buruzko arautegi hori bete. Bigarren puntu moduan, Bizkaiko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzeagaz estuago lan egitea proponiduten genduan. Oker banago zuzenduko deustazue, baina, egia esan, Euskadin, hasiera batean 7 ikuskatzaile eta ikuskatzaileorde 2 daukaguz Araban; 9 ikuskatzaile eta 3 ikuskatzaileorde, Gipuzkoan; eta 23 ikuskatzaile eta 8 ikuskatzaileorde, Bizkaian, 500.000 inguru behargin dagozala kontuan hartuta. Hori nahikoa dala uste dozue? Datuek ezetz egiaztetan dabe, bada.

Eztabaidea ikusita, mozino honen jatorria dan aurretiazko itaunean, gobernetan dabenek autortu egiten dabe oztopoak dagozana. Laneko istripuetan hildakoei buruz aitatu doguzan datuak hartu behar doguz kontuan, baina, era berean, azken 10 urteotan baino ez, 576 lagun hil dira euren lanpostuan. Halanda ze, hildako bat egon da lau egunean behin, baina, batez be, ezin dogu ahaztu zenbaki horreen atzean personak, gizakiak, ekidin daitekezan giza ezbeharrak dagozala, adierazo dogun lez, baita hondatutako bizi-proiektuak be, egingarriak diran neurri eskuragarriak hartu ez diralako. Horrezaz ganera, egunero, hildakoak ez eze, euren lanpostuan istripuak edo laneko gaixotasunak daukiezan beharginak be badagoz. Kasu horreek, hildakoen bidez aitatu dogun izebergaren punta ez badira be, ezbeharra dira, horren ondorioz arazo ekonomiko larriak edo laguntza psikologikoaren arlokoak sortu ahal jakez personei nahiz euren familiei. Hori dala eta, gure eretxiz, kontrola beharrezkoa da Bizkaiko enpresetan, baina ez da beharrezko leku guztietara ailegetan. Ganera, ailegau egin beharko litzateke, eta, horretarako laneko arriskuen prebentzinoaren arloko arau-hausteak jazarri beharko litzatekez, Gizarte Segurantzako altak, bajak edo iruzurrak kontrolau beharko litzatekez eta iruzurrezko kontratazinoak jazarri eta zigortu beharko litzatekez. Barriro esan gura dogu sindikatuek adierazoten dabela, baina Osalanek edo Europako Parlamentuko Enplegu eta Gizarte Gaietako Batzordeak be bai, adierazoten dabela lotura zuzena dagoala lanpostuko ezegonkortasunaren eta ezbehar-tasearen artean. Idea bi horreek eroan genduzan Kontrolerako Osoko Bilkurara, eta, egia esan, euki neban sentsazioaren arabera, oraindokarren badago zer estaldu nahikorik. Horrexegaitik aitatu dogu barriro zentzun horretan. Gure taldearentzat, estaltzen dana ez da nahikoa, eta gehiago behar dala uste dogu. Izan be, ikusten dogunez, legezko gitxienekoak estaldu behar dira, besterik ez. Gehiago behar dala dinogu, eta beharrezkoa da, itunaren hasieran adierazotakoa sinistu ezker, legealdi honen hasieran adierazotakoa, Foru Gobernuaren ituna aurkeztu zanean, horren arabera zuok eserlekuotan jesarten zariela kontuan hartuta. Esaldi haretan zera esaten zenduen, gitxi gorabehera: soldata duinak eskaintzen dauzan behar dan moduko enplegu egonkorraren aldeko apustua egiten zenduen. Hain zuzen be, Bizkaiko herritar

guztien bizi-kalidatea hobetzeko bermea da, ezelako zalantza barik. Halanda ze, eztabaidan ekarpenak egingo dozuezalakoan gagoz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Continuando con el turno de los grupos, señor Andrade Aurrecoechea, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Egun on danoi. Alderdi Popularrekook abstenidu egingo gara proposamen honetan, egindako proposamenaren hasiereagaz ados bagagoz be, ulertu be ez dogulako ulertzen, agerraldiaren amaieran zer esan dozun kontuan hartuta, hau da, gehiago behar dala. "Gehiago" esatean zer esan gura dozue? Ez dakit hemen, zuon proposamenean datorrenari buruz berbetan zabilzen, hau da, Aldundiak lanari buruzko legezketasuna zehatz-mehatz beteten dana bermatu behar dau, bete egiten dala ulertu arren, Aldundiak Laneko Ikuskaritzeagaz lan egin behar dau, baita horren jarduketearen generatikoan be. Edozelan be, esaten dozuzan gauzetan ez gagoz erabat ados zure erespideagaz, zure justifikazioaren hasieran esan egiten dozulako lanean gero eta handiagoa dan ezbehar-tasea azpikontratazioaren emoitzea dala. Nik neuk ez neuke ezbehar-tasea azpikontratazioagaz lotuko. Laneko Ikuskaritzearen gabeziei jagokenez, bestetik, Laneko Ikuskaritzeari jagokenez, Aldundi honetan ez daukagu ezer kudeatzeko eskumenik, Estaduaren eskumena dalako. Halanda ze, ezer gitxi egin daikegu, beragaz lan egin, besterik ez, enpresa guztiek egiten ei daben lez.

Ostera be, lan-ezgonkortasunagaz eta lan-eskubideen galereagaz gero eta gehiago lotzen dan laneko ezbehar-tasea daukagu berbabide, eta zuok barriro lotzen dozue azpikontratazioagaz. Berez, azpikontratazioa ez da txarra, azpikontratazioa lanerako sistema ona da, eta, horri esker, tokiko zein lurraldeko enpresa askok obrak lortu eta bertan hasten dira beharrean, beste era batera hori ezinezkoa izango litzatekeala kontuan hartuta. Ganera, azpikontratautako enpresak enpresak dira, eta multinazional handien, enpresa handien edo edozein erakunde publikoren betebeharrak eta eskubide berberak daukiez. Halanda ze, berez, azpikontratazioa ez da txarra, baina baleiteke txarra izatea ez kontroletea. Horra hor Laneko Ikuskaritzearen beste arazo bat, hau da, kasuan kasuko erakundeek enpresa azpikontratau horreek edo titularrak edo Aldundia edo beste edozein enpresa euki behar dabez zaintzapean. Halanda ze, ez gatoz bat zuok azpikontratazioa eta zuon adostasun-proposamenetako bat lotzeko erabilten ei dozuezan erespide horreekaz, bertan azpikontratazinorako kateak kentzeko ahalegina egin behar dala adierazoten dalako zehatz-mehatz. Era berean, ez gatoz bat azpikontratazinorako kateak kentzeko erespide horregaz. Gure inguruan Aldundi honetarako lan egiten daben enpresa txiki asko dagoz, obra publikoetan lan egiten dabe, azpikontratauta lan egiten dabe udalentsat. Ostantzean, ezin leikie hori egin, enpresa handiek bakarrik lan egin leikie. Hori dala eta, gure ustetan, azpikontratazinorako katea kentzea txarra da. Arabere gehiago, alderantzizkoa uste dot nik, azpikontrata horreek tokiko ingurunetik kanpo sustatu beharko geunkez, bertan ingurua sustatzeko obrak egiten dirala kontuan hartuta. Ez dago hori guztia egiterik, baina polita izango litzateke inguruko tokiko enpresa horreek saritzeko aukerea eukitea. Halanda ze, bat gatoz Laneko Ikuskaritzeagaz lan egin beharra dagoala dinozunean, laneko arriskuen prebentzioa hobetu beharra dagoala dinozunean. Oraintsu azaldu dozunez, Zaldibarren jazo barri dana kontuan hartuta, egiaztatu egiten da oraindokarren zer hobetu ugari daukaguna laneko prebentzioan. Ganera, kasu zehatz horretan, gauzak orratzez lotuta egozanez, gai horretan sakondu beharra dago. Dana dala, badinot, azpikontratazioa, ez natorrela bat ezgonkortasuna azpikontratazioagaz lotuta dagoala dinozunean.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** jaunak: Muchas gracias. Señor Rico Lezama, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **RICO LEZAMA** jaunak: Mahaiburu andrea, ekimen honetara hurreratu nintzanean, buelta asko emon ostean, autortu beharra daukat, gure bazkideagaz zuzenketea aurkezteko edo ez aurkezteko aukerea aztertu ostean be bai, zalantza handia sortu jakun, hau da, gure eretxiz, laneko ezbehar-taseari eta ezbehar-tasa horren errazoiei buruzko gaurko ustezko eztabaidatik harago, eta seguruenik danok ados egongo garala uste dot, mozinoak ez eban ezelan be laguntzen proponiduten zan eztabaidea bera. Azaldu egingo dot. Nik neuk, laneko ezbehar-tasearen, laneko istripuen gaia jorratzeko orduan, ixten badeustazue, urrats bat emon gura dot aurretiaz. Zenbakietatik iges egin gura dot, egia dalako urte jakin batzuetan gora egiten dauana, urte jakin batzuetan behera egiten dauana. Azken datuen arabera, behera egin dau. Dana dala, azkenean, laneko istripuren bat egotea desagerrarazo behar dogun gaia da, betibe, gure esku badago, agirikoa dalako, eta danok ados gagozala uste dot, edozein beharginek bizibidea aterateko lan egiten dauana, ez bizia galtzeko, eta uste dot inork ez dauala hona urtengo kontzeptu horregaz ados ez dagoala esaten.

Agirikoa danez, bertan jesarten garan guztiok bat gatoz kontzeptu horregaz. Ostantzean, ez dogu bertan jesarrita egotea mereziduten, hori aurretik joan daitela. Nire eretxiz, laneko ezbehar-tasearen errazoi horreei erreparetea da interesgarriena, garrantzitsuena, eta hortxe egin behar doguz ekarpenak. Puntu horretan, esan deutsudan lez, ezin da beste era batera izan.

Gu geu ados gagoz talde proposamengileagaz, geu be kezkatuta gagozalako laneko ezbehar-taseagaitik. Kasu askotan, egia esan, lan-ezgonkortasunaren ondorioa da. Nire eretxiz, ezelako zalantza barik, lan-merkaduaren ezegonkortasuna, aldi baterakotasunaren gorakadea edo kontratuen parzialtasuna dira, laneko hartu-emonak hondatzen dabezalako eta beharginen segurtasunean nahiz osasunean be eragina daukielako, ezbehar-tasearen errazoi nagusiak, besteak beste. Era berean, egia be bada bakarrak ez dirana, eta horixe bera be esaten dabe txosten guztiek eta aditu guztiek. Horrezaz ganera, prebentzinoaren arloko prestakuntzearen eta informazinoaren faltea eta arrisku psikosozialen gorakadea be badira holako beste faktore batzuk. Nik neuk esan egin gura deutsut, Escalante jauna, atzora arte, zuk eta nik ezelako zalantza barik dakigula Sánchez presidentearen Gobernuan PSOEek eta Podemosek adostutako lehentasunetako bat dana lan-merkaduaren ezegonkortasun horri bueltea emotea, hain zuzen be. Horra be, Rajoy jaunaren eraldaketen ostean ailegau ginan. Halanda ze, laneko ezbehar-tasearen errazoi nagusi horreetako bati eraso egitea eta desagerrarazotea da helburua.

Halanda be, nire eretxiz, gaur, mundu guztiak argi dauka, atzo Ministroen Kontsejuan onartu zan akordua ikusi ostean, hain zuzen be, 2012. urteko lan-ereldaketako faktore kaltegarrienak indar barik ixteko prozesu hori jarten dualako abian. Hori guztiori dala eta, Podemoseko jaun-androk, esan barik doa burruka horretan alkarregaz gagozana. Onartzen badeustazue, bidean nahikoa bazkide gehiago topauko doguzala uste dot, esan deutsudan lez, beste alderdi politiko batzuekaz gabilzalako horretan. Edozelan be, ekimenean eskatzen danak gero ez dauka zerikusi handirik kontzeptu orokor moduan jorratzen dan errealidadeagaz, eta zuk zeuk ekarri deuskuzu hona egoerea azaltzeko orduan, horretan guztian ados egon arren, lehenengo puntuan legezkontasuna beteteko eskatzen deuskuzulako.

Nik neuk esan egin behar deutsut legezkontasuna beteten dala uste dodala eta, legezkontasuna beteten ez bada, foroa Parlamentu hau ez dala. Batzar Nagusiok ez dira foroa, foroa beste bat da. Halanda ze, egintzat emoten dot instituzino batek legezkontasuna beteteko eskatzea, eta, legezkontasun hori beteten ez bada, agirikoa da foroa beste bat izan beharko dana. Nire ustetan, legezkontasun hori beteten ez bada, sindikatuek, beharginen ordezkariak, foro egokietara joko dabe salatzeko. Horrezaz ganera, nire eretxiz, Bengoetxea andreak azaldu eutsun arloan, banatuta, ganera, eta nahikoa argi, uste dot, barruko arloan, Foru Aldundiko behargin zuzenei jagokenez. Gero, zure ekimena ikustean, uste dot, Andrade jaunak lez, gehiago nabarmendu dozuzala Foru Aldundiaren kanpoko kontratazinoak.

Hortxe esan egin behar deusut, ganera, gauza bat dinoskuzula, baina kontrakoa be badinoskuzula. Legezkontasuna errespetetako dinoskuzu, baina azpikontratazinorik ez egiteko be badinoskuzu. Hona hemen arazoa, Escalante jauna: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea. Izan be, aldatu egin barri da, eta zure taldea, Podemos, be baegoan Diputaduen Kongresuan. Ganera, ez zure taldeak ez nireak ez eben aurkako botorik emon, abstenidu egin ziran Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean, holan bajagoko, hainbat eta hainbat zuzenketa erdibideratu ostean. Era bateko edo besteko faktoreak ezarri dira, azpikontratisten eskubideak bermatu daitezcan, hain zuzen be. Izan be, puntu hori erabateko legegintza-gaitasunaz onartu eban batzordearen batzar-egunkaria gomendatzen deusut, eta, horrezaz ganera, ordezkariak, Unidos Podemos talde konfederaleko ordezkariak, gai horri buruz eta azpikontratazinoen gaiari buruz esan ebana irakurtea be gomendatzen deusut, eta zelan emoten zan urratsa, ETE-ek, eta horregaz bat nator, azpikontratazino eta kontratazino publikoetara hurreratzeko aukerea euki daien.

Gero, ikuskaritzearen gaiari jagokonez, esan egin behar deusut kontua ez dala, hain zuzen be, ados egotea, honako hauxe baino: gure eskumenen arloan, zelan ez dau lan egingo administrazino batek beste administrazino bategaz? Ikuskaritzeagaz batera lan egin behar dau. Izan be, ez dago beste aukerarik. Hori holan ez dana badakizu, horren barri emon geuri, nik neuk, benetan, ez dodalako hori holan izan daitekeanik ulertzen. Administrazino batek Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzeagaz lan egiteko betebeharra dauka. Hori esanda, kontua ez da gu geu ados egotea ikuskaritzea areagotu egin beharra dagoala esaten danean, honako hauxe baino: sozialistok nonon eskumenik badaukagu, egin egiten dogu. Esan ez eze, egin be egiten dogu. Honako adibide hau jarri gura deusut: Lan Sailak legealdi honetan María Jesús San José sailburu sozialisteagaz abian jarri dauan programea. 17.000 kontratu aldatu behar izan dira, iruzurrezkoak zirala igarri dalako Ikuskaritzan.

Agirikoa danez, argi dago egin behar dana, baina eskumenen arloan. Hurrengo txandan segiduko dot, baina beste gauza bat esan gura neutsun, hau da, eskumenen arloa, eta askotan dinot, garrantzitsua da. Zuk arauz besteko proposamena jarten dozu, baina nik neuk 97/2019 Legez Besteko Proposamena aitatu gura deusut. Bertan esaten danez, eta oraintxe amaituko dot, bertan Lan eta Justizia Sailari eskatzen jako lan-baldintzak jagoteko eskumena bakarrik daukan Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzearen bidez lanaldi mugatuko edo aldi baterako lan-kontratuak berrikusteko kanpaina biziak garatzen segidu daijala. Kanpaina horreek emoitza arrakastatsuak lortzen dabilz, hain zuzen be.

Halanda ze, argi eta garbi dago aurrera egin beharra dagoana, baina eskumenpeko foroen barruan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Rico Lezama. Señor Rahona Garay, portavoz del grupo Euskal Herri Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Foro honetan ez dogu lehen biderrez jorratzen gaur Elkarrekin Bizkaiak aurkeztu dauan mozinoaren helburu dan gaia. Honako hauxe aitutzen da bertan: lanari buruzko legeria zehatz-mehatz betetea, laneko arriskuen prebentzinoaren arloari lehentasuna emonda, hitzarmenak betetea eta azpikontratazinoa desagerrarazotea. Era berean, eskatu egiten da Foru Aldundia bera eredugarria izatea eta hori gauzatzeko behar besteko neurriak ezartea, bertako beharginen lanpostuei jagokonez eta enpresa pribaduei esleitutako kontratu publikoen ondorioz sortutakoei jagokonez be bai.

Azkenik, aitatu be egiten da Aldundiak erakundearteko alkarlana garatu behar dauala Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzeagaz, arlo horretako jarduketa-sarea

indartzeko, hain zuzen be. EH Bildukook antzeko asmoa eukan itauna aurkeztu genduan 2018ko apirilean, eta, horren ondorioz, mozinoa aurkeztu eta eztabaidea egin zan Osoko Bilkuran, Bizkaiko ahaldun nagusiak gure lurraldean egingo ziran ekitaldiak iragarri ebazanean. Bertan, ekitaldi horreen ondorioz sortuko ziran lanpostuen kopuruari buruzko datuak eskaintzen ziran, eta behar dan moduko baldintzetan garatuko zirana berrmatzea zan helburua. Orduan, horixe bera izan zan EH Bilduren asmoa, eta, gaur egun be, berori da oraindokarren.

Agirikoa danez, eta aitatu be aitatu dogu, aurrera egin dogu berbabide daukagun gaian, baina egia be bada zer hobetu ugari dagoana oraindokarren, errealidade gordinari erreparau ezker. Personak eta bizi-proiektuak gure bilakaerea zehazten daben zutabeetako baten baldintzapean dagoz: enplegua. Funtsezko elementua da persona gehienon bizitzan. Egon badagozan errazoi guztien artean, seguruenik enpleguagaz lotutako ordainsaria gure errenta-iturri nagusia izatea da funtsezkoa eta agirikoena. Ordainsari horri esker, badaukagu ondasunak eta zerbitzuak erosterik, geure preminei ondoizate-maila onargarrietan aurre egiteko. Horrexegaitik, ez da harritzekoa enplegua bizkaitarren kezka nagusia izatea. Beste sasoi batzuen aldean, kezka horrek alde bikotxa dauka, enplegu-faltea ez eze, gaur egun dagozan enpleguen kalidade txarra be badalako kezka-iturri. Izan be, gero eta ezeگونkorragoak diranez, laneko istripua edo gaixotasun profesionala jasateko berezko arriskuak areagotzen dira.

Araua dan esaldia aitatu da, Escalante jaunak aitatu dau hasieran eta Rico jaunak be bai, eta, bertan, agirikoa danez, danok ezelako zalantza barik dakigu holan dana, danok bizibidea aterateko lan egiten dogula esaten da eta ez bizia galtzeko. Halanda ze, EH Bildurentzat laneko segurtasuna eta osasuna kezka nagusia eta zutabea dira, eta enpleguaren berezko osogaiak izan behar dira, duina eta kalidadekoa izan daiten. LANERentzat, lana duina izan daiten, ezinbestekoa da personeari bardintasunezko baldintzak, askatasuna, segurtasuna eta giza duintasuna eskaintzea.

1995. urtean, Laneko Arriskuen Prebentzinoari buruzko Legea sartu zan indarrean, 1989. urteko Esparru Zuzentarauaren ondorioz, eta, bertan, hiru urte, hiru urte emoten ziran, estaduko legerietara transponiduteko. Europar Batasunak ohartarazpen batzuk egin ostean, argi eta garbi ixten dau zein zan, “zan” dinot, gaur eguneko errealidadea zein dan eztabaidatzeko astia eukiko dogu, sasoi haretan zein zan interesa eta inplikazioa laneko arriskuen prebentzinoari jagokonez.

Zenbakiak, datu estadistikoak be aitatu dira. Izan be, aitatu barri dodan urte horren, 1995aren, osteko urteetako estadistikek argi eta garbi baieztan dabe datuen bilakaerea ona izan dana ezbehar-taseari buruzko datuei jagokonez, baina gaur egun be beharginen ehuneko handi batek segurtasunaren arloan funtsezkoak diran gaiak baieztan dauz, ostean aitatuako dodazanak lakoak. Baieztu egiten dabe ez dabena euren lanpostuaren benetako balorazinarik jaso. Baieztu egiten dabe legearen arabera esleitu behar jakezan segurtasun-baliabideak ez daukiezana edo ez dabena ez prestakuntzarik ez informazinarik jaso euren lanpostuetako segurtasuneko eta osasuneko arriskuei buruz. Zigortuenen artean, eta beharginak daukadaz berbabide, aldi baterako kontratudun beharginak egongo litzatekez. Esan dodan lez, ezbehar-taseari buruzko zenbakiak, 1995. urte horretatik jatsi badira be, oso kezkarriak dira oraindokarren. Aitatu diran datuetan sartu gura ez dodanez, ñabartu baino ez dot egin gura azken urte biotako, 2018ko eta 2019ko, joerea goranzkoa dala eta 2020. urtearen hasierea benetan kezkatzekoa izan dala. Errazoiaren artean, segurtasunaren arloko kontzientziazino-faltea eta Elkarrekin Bizkaiaren mozinoako instantzietan aitatutako hiru nabarmetzen dira: ikuskaritzarako zein kontrolerako baliabideen eskasia, koordinazino instituzionala eta administrazino publikoetako prebentzinoaren arazoak.

Horri jagokonez, funtsezkoa da administrazino publikoak kontratista moduan daukan zeregina, azpikontratazinarako murrizketa handiagoak ezarri daikezalako ezarten dauzan klausulen eta baldintzen orrietan. EH Bildukook beti defendidu dogu lan-baldintza duinak ezarri behar dirala kontratazino publikotik, eta, gure proposamenen artean,

honako honeetxek nabarmentzen dira: lehiaketa publikoetan lehenetsua emotea klausula sozialen arabera lan egiten daben eta lan-eraldaketea ezartzen ez daben enpresei; arlo instituzionaletik aldi baterako laneko enpresak ez kontratetea; eta hartu-emonak zein kontratu ekonomikoak berrikustea holakoak kontratetan dabezan enpresakaz.

Amaitzen joateko, ganera, balorau egin gura dogu Ikuskaritzeak ezbehartasea desagerrarazoteko egindako lana, hain zuzen be, aitatu dan lez, eta salagarria zein tamalgarria be bada arlo horretan igarritako baliabide-gabezia. Datu moduan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta laneko segurtasunaren zein osasunaren arloan aurreratuen dagozan beste herrialde batzuen arteko distantziak, mila behargineko dagozan ikuskaritzen eta ikuskatzaileen kopuruari jagokonez, agiri-agirian jarten dau Europar Batasuneko herrialde aurreratu gehienen atzetik gagozana. Halanda ze, preminazkoa eta garrantzitsua da behar besteko baliabideak handitzea, ezbehartasea eta ezegonkortasuna desagerrarazoteko, esan dogun lez.

Hori dala eta, hori jazoten dan bitartean, guretzat ekidinezina da erakundearteko koordinazioa egotea eta Bizkaiko Foru Aldundiak ahal danik eta beharrezko baliabide gehien jarrea, esan dogun lez, Bizkaiko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzeagaz be lan egiteko eta, holan, lurraldeko enpresetan garatzen dauan kontrola hobetzeko. Azkenik, esan baino ez, azaldutako guztia kontuan hartuta, puntu honetan eztabaidatzen gabilzan mozinoaren aldeko botoa emongo dogula. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted. Señor Lekerikabeaskoa Arrillaga, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Sí, muchas gracias. Buenos días a todos/as. Muchas gracias, señora Presidenta. Yo, para valorar esta moción concreta, en primer lugar, voy a concretar la situación, y, como todos/as ustedes bien saben, la voy a remarcar. Nos encontramos en Gernika, estamos a día 19 de febrero de 2020 y los/as que nos subimos a este atril, somos junteros/as de las Juntas Generales de Bizkaia. Es obvio que contamos con distintos colores políticos, pero lo que nos corresponde no es decir cualquier cosa o plantear cualquier cosa. Lo que nos corresponde es la gestión de la Diputación Foral de Bizkaia, las competencias o criticar, aplaudir los servicios ofrecidos a la ciudadanía de Bizkaia en base a las mismas o plantear propuestas de mejora. Cada uno/a dónde se sitúa en ese ámbito. En lo que a mí respecta, me centraré en ese ámbito, puesto que se trata del ámbito que hemos acordado en esas Juntas Generales y saliendo de ese ámbito se podrían encontrar dos problemas. Uno, no saber dónde nos encontramos o estar fuera de juego o salir de ese juego a sabiendas y no jugar limpio, lo cual no es como para sentirse orgulloso. Cada cual decide dónde sitúa su juego político y nosotros/as situamos el nuestro, claramente, dónde se sitúa, y también se ve por dónde va el de los/as demás.

El día 29 de enero, Elkarrekin Bizkaia trajo una interpelación, de la mano del señor Escalante, a estas Juntas Generales de Bizkaia, y he leído entrecomillado lo que decía: “kontrolerako zer neurri ezartzen dauzan Bizkaiko Foru Aldundiak, Aldundiko bertako eta bere menpeko enpresetako edo beragaz kontratuzko edo itunpeko hartu-emonak daukien enpresetako beharginen laneko arriskuen prebentzioa bermatzeko”. Tampoco en ese momento la exposición de motivos de la interpelación se adecuaba muy bien a la interpelación, puesto que dicha interpelación se basaba en un accidente laboral que no estaba relacionado con la Diputación. De todas maneras, la señora diputada Bengoetxea, sin tener en cuenta ese detalle, con la corrección que le caracteriza, respondió desde este mismo lugar donde me encuentro yo a la interpelación planteada por usted, señor Escalante. Bengoetxea dio las explicaciones pertinentes, pero no sé si alguien estuvo atento a lo que dijo y sí, desde entonces, ha leído todo lo que dijo allí. Hoy se ha mencionado muy poco la respuesta a esa interpelación, lo ha hecho el

señor Rico una vez, pero, aparte de esa, no se han hecho muchas. Yo, en cambio, sí quiero recordar tres ideas que destacó la señora Bengoetxea el día 29 de enero. Primera, respecto al personal de la Diputación, que ella se sentía muy orgullosa del trabajo que realizan y que intentan que estén protegidos/as.

Segunda, que la Diputación ya colabora desde hace tiempo, no solo con la Inspección de Trabajo, sino también con Osalan. Tercera, quizá la más significativa. Reconocía claramente que, a pesar de tener en cuenta todo lo que se había realizado, suelen surgir problemas. Que han surgido y que, a pesar de contar con el sistema más adecuado, seguramente surgirían nuevos problemas. Lo más importante es continuar trabajando, para reducir el impacto que esos problemas tendrían en las personas que conforman la Diputación. Esas son las tres ideas que ella recalcó. Tras decir eso, manifestó claramente qué es lo que hace la Diputación en los tres ámbitos interpelados respecto a la prevención de riesgos laborales. En lo que concierne al personal que trabaja directamente en la Diputación o para la Diputación, existe un servicio de prevención propio. Formado, entre otros/as, por 21 funcionarios/as, tal y como he mencionado.

Por otra parte, existen los Comités de Salud y Seguridad. En las reuniones mensuales de los/as 11 delegados/as de prevención, se analizan los temas que plantea el personal desde un punto de vista global. También se realiza el seguimiento de las medidas que se establecen. A su vez, también se plantean propuestas para valorar su conveniencia o para adaptarlas o modificarlas en los casos oportunos. En el caso de las empresas públicas y los contratos públicos también, la señora Diputada explicó cómo se abordaba la prevención de riesgos laborales, cuáles son los anexos, las tareas, las obligaciones. Las obligaciones ineludibles del contratista en la prevención de los riesgos laborales que quedan recogidas en los contratos públicos. Pudiendo el incumplimiento de esas obligaciones conllevar la rescisión del contrato. Esa es la importancia que se le otorga.

Después de escuchar todo eso, creo que no tiene ningún sentido plantear esta moción como se ha planteado. Creo que esta vez también este caso concreto se debe a que la interpelación y la moción se imprimieron en el mismo momento. Recuerdo que el día 29 de enero estuvimos aquí respondiendo a esa interpelación. La respuesta a esa interpelación concluyó a las 11:46, y, el mismo día, a las 16:19, ya se había dado entrada a esa moción en las Juntas Generales, en Bilbao. Por tanto, con eso que cada cual lleve a cabo su reflexión.

En nuestra opinión, en este asunto también, quien más interesado está en hacer las cosas bien, se lo digo sinceramente, es la propia Diputación Foral de Bizkaia que se ocupa de la gestión. No termino, señor Escalante, le digo sinceramente que ustedes otorgan mucha importancia a este tema, y es muy respetable, pero me da la sensación que la moción que han traído hoy aquí surgió de manera inadecuada desde el principio. La exposición de motivos de la interpelación no tenía ninguna relación con la Diputación. A pesar de todo, la Diputación ha explicado qué es lo que se está haciendo, y ha dejado claro que todos los días intenta mejorar en esa labor. Presentan esta moción conjuntamente, seguidamente, y, esta moción, desde el Gobierno Vasco a través de una vinculación sin vinculación a una PNL, y planteando temas que no son de nuestra competencia, no podemos aprobar esta moción. No la vamos a aprobar, porque entendemos que hoy en día desde la Diputación se hace en algunos casos, en algunos casos concretos más de lo que se requiere, se va más allá. En esta moción, instan a que se garantice el cumplimiento de la legislación, y creemos que se hace más de lo estipulado obligatoriamente en la legislación. “Se hace suficiente, no hay nada que mejorar, no”. Eso no lo va a decir nadie aquí. Lo reitero, “se hace suficiente, no hay nada que mejorar, no”, no vamos a decirlo, pero aprobando esta moción tenemos muy claro que no mejoramos nada. La actualización de los protocolos del trabajo diario, adecuándolos a la nueva realidad, aprendiendo de los nuevos problemas que van surgiendo, así es como se mejora. La Diputación trabaja en esa dirección, y nosotros/as le vamos a dar nuestro apoyo en esa dirección.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. En el turno de réplica, señor Escalante Mesón, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo. Zein da Bizkaiko laneko istripuen kopuru onargarria? Zer kopuru izango litzateke arrunta? Esan beharra dago eskertzekoa dala zuzenketak egitea, baina uste dot mahaia txarto ixten zabilzela holako mozinoak izapidetzen dauzanean. Izan be, izapidetzen badau, uste dot kontuan hartuko ebala legearen arabera lekua eukala hemen. Ganbera honen eskumenetik kanpo dagozan gauzak eskatzen ei gagoz. Uste dot ez dala holan izan. Izan be, ez da zehaztu non jazoten dan hori. Izan be, Aldundiaren esparrutik kanpo dagozan eskumenak aitatzen dabezan kasuetan, uste dot nahikoa argi geratu dala Ganbera honetatik eta Aldunditik bertatik kanpo dagozan beste instituzino batzuek lan egiteko eskatzen doguna, besterik ez.

Eskerrik asko Andrade jaunari bere zehaztapenagaitik, baina azpikontratazioari buruz egin doguzan aitamenak ez dira gureak. Benetan sentiduten dot, ama, baina ez dot danetarik ikasi, nik ez dakit danetarik. Berton askotan adierazoten doguna beste jente bategandik ikasitakoa da edo, beste barik, gureztat bidezkoa da adierazotea beste jente batek era bateko eta besteko arloetan lan egiten dauala. Kasu honetan, Osalanek eta sindikatuek egiten dabezan azterlanak edo azterketak aitatu doguz.

Rico jauna, benetan sentiduten dot, baina hona igoten zaran gehienetan Jehovahen lekukoa zarala emoten dau, baina, hobeto esanda, Sánchezen lekukoa. Pedro Sánchez ezagutzen dozu? Ulertzen dot. Ondo dago ezkerretik politikak edo dana dalakoa garatzea, baina hemen ezin gara egun osoa egon Sánchez jaunari itxaroten, Marshal jaunari itxaroten. Hemen, badago aurretiazko legeriarik, eta, egon badagoanez, garatu daigun. Badago laneko arriskuen prebentzioaren arloko legeria hobetzerik, garatu egin daiteke. Badago tresnarik, garatu daigun. Ez gara Sánchez jaunak miraria noiz egingo zain egongo. Ez dakit. Hortxe egongo da Podemos, Izquierda Unida be egongo da, baina hementxe be bagagoz, eta zeozertarako gagoz hemen, ez gagoz besoak kurutzatuta egoteko.

Irregulartasunik egon bada, salatzeko esan dozu. Izan be, salatu egin dira, Zaldibarreko kasua, barbarako. Zaldibarren kasuan, esan dogunez, desorekea egoan erakundeen arteko deskoordinazioan. Hain zuzen be, horixe bera eskatzen dogu. Mozino hau ekarteko errazoietakoa bat da. Izan be, hain urruna dan Eusko Jaurlaritzea ez da Bizkaiko Aldundiagaz koordinetako gai izan, nahiz eta, halanbeharrean, gobernuan alderdi berberak egon. Ez dakit zer arazo eukiko dozuezan etxean, baina, horren ondorioz, garbiketako eta erreskateko beharginak jarri dira arriskuan, eta material toxiko edo arriskutsuakazko esposizinoa euki dabe; amianto, barbarako. Zoritxarrez, Esteban jaunari egin behar deusat aurka, Ganbera honetako nahiz Senadu galaktikoko mahaiburua izan, Zaldibarreko jarduketea ez dalako ezin hobea izan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Disculpe, señor Escalante, pero no puede convertir la cuestión de Zaldibar en el punto central de este tema. Indirectamente, en el primer turno les he permitido mencionarlo indirectamente, pero la cuestión de Zaldibar no puede ser el tema central de esta moción. Para ello, los grupos han presentado otras iniciativas. Por favor, céntrese en la moción que ha presentado hoy. Muchas gracias.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Erakundeen arteko koordinazioa neukan berbabide, adibide argia da. Tira, kasu hori adibide argi moduan aitatu dogu, erakundeen arteko deskoordinazioaren ondorioz, eskumenean atxakiapean eskuak garbitzen dozuezan jazoten da hori, arriskua sortzen dalako beharginentzat, betiko moduan. Oraintsuko beste adibide bat daukagu Bilboko portuan, eta, bertan, Aldundiko suhiltzaileak arriskuapean egon dira

lehergailuen kargamentua dala eta. Ganera, adierazo dogunez, laneko ezbehar-taseak lotura estua dauka gero eta handiagoa dan lan-ezegonkortasunagaz, gehiengo sozial beharginaren lan-eskubideen galereagaz. Horregaitik, preminazko neurriak garatu behar dira, egoera hori geldiarazoteko. Neurri horreek legearen arabera dagoz erregistrauta, baina garatu egin behar dira. Hemen daukagun gaitasuna urria da, baina gure esku dago lanpostu publikoak edo Bizkaiko administrazio publikoaren menpekoak eredarriak izatea lurraldeko generako enpresentzat.

Amaitzeko, propondutako puntuak aitatuko dodaz barriro. Batetik, eredarriak izateko eskatzen deusuegu, administrazio publikoan bizkor ibilteko, horretan bikaina izan behar dalako, laneko arriskuen prebentzioan. Zaldibarreko edo Galindoko araztegiak barriro jazo ez daitela. Bestetik, ezinbestekoa da ikuskaritzea estuago koordinetea Laneko Ikuskaritzeagaz. Ez da gure eskumena, ez da, ez, baina, halanbeharrez, zuon gobernupean dagoan lurralde berean lan egiten dau. Hartu-emon estuagoa egon daitela baino ez deusuegu eskatzen, zuon lana egingarriagoa eta garagarriagoa izan daiten eta laneko istripurik egon ez daiten, kasu askotan hildakoak edo batzuetan larriak be badiran ezintasun iraunkorrak sortzen diralako horren ondorioz. Besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Andrade Aurrecoechea, portavoz del Grupo Mixto-PP, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak. Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Lehen esan dodan lez, ez gagoz erabat ados zuok egin dozuen proposamenagaz, gure ustetan laneko ezbehar-tasea, laneko istripuak lotzen dozuezalako lan-ezegonkortasunagaz. Aldi berean, azpikontratazioagaz be lotzen zenduan zuk. Lehen esan deusudan lez, ez gatoz bat laneko ezbehar-tasearen eta azpikontratazioaren arteko lotura horregaz, ez doguz azpikontratazioaren txarkeriak ikusten.

Edozelan be, gaur goizean osoko bilkuren areto honetara lan-eraldaketea be ekarri dabe talde bik. Areto honetan, lan-eraldaketeari buruz berba egin dabe, lan-ezegonkortasunagaz zeozelako zerikusia eukiko baleu lez. Lehenengo eta behin, Gobernu zentrolean errepiketea eta areto honetan errepiketea gura dot jarraikako bajakaitik irazitako aukerea ezarten eban 52. artikulua desagerpena onartzen eban eraldaketea. Ez egoan lan-eraldaketan, hori Beharginen Estatutuan egoan 1980. urtetik. Ez Felipe Gonzálezek, ez Zapaterok, ez beste gobernu batek, ez sindikatuek inork ez eban artikulua hori aitatu, harik eta orain dala gitxi epai batean kolokan jarri zan arte, eta, halako batean, danak harri eta zur geratu dira. Gobernu batek be ez eban Estatutuan 80ko hamarkadatik dagoan artikulua hori kontuan hartu. Atzo, ostera, hori aldatzeko izapideak jarri dira abian, adostasun sozial barik, alkarrizketa sozial barik, berariaz aurka dagozala esan daben enpresariakaz adostu barik.

Halanda ze, zuok pozik zagoze enpresariak, ostera, bete-betea babesten daben proposamena bertan behera ixtearren. Era berean, lan-ezegonkortasuna lan-eraldaketeagaz lotzea eta lan-eraldaketea kritiketea be, Nazinoarteko Diru Fondoak txirotasun-arriskuari aurre egiteko eragin nabarian lan-eraldaketeak enplegua eta diru-sarreraren bardintasuna hobetzen lagundu ebela esan barri dauanean. Bere esanetan, lan-eraldaketea ona izan zan, eta lan-eraldaketeak, NDFk, ez guk, gazteen langabezia gitxitzen lagundu eban, diru-sarreraren banaketea hobetzen be lagundu eban. Bere esanetan, enpleguaren hazkuntzea handiagoa izan da, 2012ko lan-eraldaketearen ostean, lan-eraldaketa hori egin ez bazan zenbatetsitako hazkuntzearen aldean. NDFk lan-eraldaketa hori ona dala esan badau eta orain atzeraldiaren, moteldura ekonomikoaren hasieran gagozala kontuan hartzen badogu, zuok lan-eraldaketa hori aldatzeko ahaleginari buruz berba egiten dozuenean, eta oraindakarren ez dakigu zer zatitan, Gobernuaren zati batek gauza bat dinoalako eta beste zati batek beste gauza bat, bertatik nabarmendu gura neuke saiakuntzak gaseosaz egin behar dirala. Nazinoarteko Diru Fondoak

eraldaketea ona izan zala badinosku, 2012an geunkan krisi-unada haretan, orain krisi barri batean sartzen gagozala kontuan hartuta, oso-osorik desegitea, zati batek gura dauan lez, beste zati batek ez dau gura, txarra izango dala uste dot. Ez da ona izango gure herrialdearentzat. Halanda ze, zuhur jokatzeko eskatu gura dot hemendik.

Amaitzeko, esan baino ez dot egin gura, hasieran adierazo dodan lez, danok ados gagozala laneko arriskuen prebentzinoa funtsezkoa izan behar dala esaten danean. Nire eretziz, Ganbera honetan danok ados gagoz horregaz. Danok ondo ikusten dogu Aldundiak, gaur eztabaidagai daukagun proposamenean esaten dan lez, laneko arriskuen prebentzinoaren arloko lan-legeria zehatz-mehatz beteten dana bermatzea. Zelan ez dogu hori babestuko?

Lehen esan dodan lez, ez gatoz bat beste zatiagaz, zeuk aitaturako amaierako ohar horregaz, hau da, azpikontratazinorako kateak kentzen ahalegintzea. Era berean, nire eretziz, Ganbera honetan, batzuek aurkako botoa emon arren, eskatu egiten da Aldunditik behar besteko baliabide guztiak jarri daitezala, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzeagaz lan egiteko. Zelan emongo dogu aurkako botoa, Ikuskaritzeagaz lan egiteko eskatzen danean? Hori abian dago. Badago gehixeago egiterik? Egin daitela, bada. Dana dala, nire eretziz, energiagaz, baina Ikuskaritzeagaz lan egiterik badago, egin daitela. Proposamen logikoak eta zentzunezkoak diranez, azpikontratazinoaren zati hori albo batera itxita, gu geu abstenidu egingo gara, lehen esan dodan lez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Rico Lezama, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **RICO LEZAMA** jaunak: Escalante jauna, Sánchezen lekuko honi itxiko deusazu esaten gurago dauala Sánchezen lekukoa izan asebakotasun iraunkorraren profetea baino eta gurago dauala Sánchezen lekukoa izan eta bertora igon, etxerako lanak egin ostean, norberari otuten jakon lehenengoa esaten bertora igon baino. Onartu egingo deustazu, autortu egingo deustuz, harago joango naz egin deustudan lehenengo autortzan. Gaur, txarto pasau dot minutu bat baino gehiago irauteko berez egin be behar ez zan eztabaidan, zuk proponidu dozun mozinoak ez daukalako nondik hartu, inondik inora be ez. Ez dauka. Jakina, ulertzen dot zer jazoten jatzun zuri eta zer jazoten jakon zure taldeari. Behin baino gehiagotan esan dot, errealidadeak lohitu egiten dau. Orain, zuok gobernu batean, nazinoko gobernuan, Espainiako Gobernuan, zagozenez, badago hona igon behar danean eroso ez dagoanik. Benetan ondo egiteko borondaterik ez dagoanez ezer ondo egiten ez dala eta dana erabat txarra dala inoan diskursoa hausi jako, hain zuzen be.

Orain zuok daukazuen barruko zeozelako eztabaida horretan, gaur ekarri deuskuzuezanak lako gauzak dakarskuzuez. Nik neuk ez neban gura, baina, begira, merezidutako zehaztasuna erabiliko dot, puntuz puntu ikusteko. Lekerikabeaskoa jaunari esan deustat. Lan serio eta zorrotza egingo dogu, eta ulertu egingo deustazue zergaitik pasau dodan txarto diskursoa apur bat luzatzen minutu bat baino gehiago emoteko, proposamengileari zeozelako kinua egiteko. Legea beteteko esaten dauan ekimena dakarskuzu. Beteten ez bada, epaitegira. Hori baiizen erraza. Goazen hurrengo puntura.

Zure mozinoaren %50 argitu dogu. Aitatu egiten deuskuzu alkarregaz lan egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzeagaz lan egiteko, egin egiten dauana badakizunean. Eusko Legebiltzarreko 131/2019 Legez Besteko Proposamena aitatu dozu. Hementxe daukat. Ikusi daigun zer dinoan, hori zertan ezarri daitekean ikusteko.

Lehenengo puntua. Eusko Legebiltzarrak adierazo egiten dau honelako enpresen aurka dagoala, azpiegitura birtualen babespean, Glovo, Deliveroo, Uber, dana

dalakoa... Puntu honetan autonomo faltsoei buruz esaten dana aurreztuko deusuet. Agirikoa danez, danok bat gatoz. Halanda be, Foru Aldundiari ez jako ezer eskatzen.

Bigarren puntua. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Laneko Ikuskaritzeari eskatzen deutso Estaduko Laneko Ikuskaritzeagaz lan egiten segiduteko, eta segidu, segidu eta segidu egiten dau. Laneko Ikuskaritzeari eskatu jako. Jakina, esan egin deusut, barriro irakurriko deusut, Eusko Legebiltzarreko 97/2019 Legez Besteko Proposamena. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzeari eskatzen jako, lan-baldintzak jagoteko eta kontroletako eskudun bakarra dalako. Halanda ze, eskudun bakarra bada, Bizkaiko Foru Aldundia ez da eskuduna. Izan be, ez da eskuduna.

Hirugarren puntua. Eusko Legebiltzarrak Lan eta Justizia Sailari eskatzen deutso Eusko Jaurlaritzako Justiziaren eta Eusko Legebiltzarraren jarraipen berezia egin daiala. Esan deusudan lez, legealdi honetan, María Jesús San José sailburuaren zuzendaritzapeko sailak, eta Alderdi Sozialistako kidea dan María Jesús San Joséren lekukoa be banaz, 17.000 kontratu berrikusi eta aldatu egin dauz.

Eusko Legebiltzarrak, laugarren puntua, Laneko Hartu Emonen Kontsejuari eskatzen deutso, sentiduten dot, baina hori be ez dago instituzino honen menpean. Albo batera itxiko dot bosgarren puntua, baleitekealako bosgarrenak zeozelako zerikusirik eukitea. Seigarrena. Gero irakurriko dot. Ez dot aitatu barik itxiko. Eusko Legebiltzarrak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari eskatzen deutso kontsumo arduratsuari buruzko kanpainak egiten segidu daiala. Agirikoa danez, zer sailari? Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, berak daukalako eskumen hori. Bosgarrena. Gure eskumenakaz loturaren bat euki daikean bakarra da. Honako hauxe dino: “Eusko Legebiltzarrak instituzinoei eta administrazinoei dei egiten deutse, euren eskumenen esparruan behar besteko neurriak hartu daiezan, holako enpreetan lan egiten dabenez behargin moduan euki behar dabean eskubideak, hau da, askatasun sindikala, negoziaketa kolektiboa eta grebea, eta funtsezko beste eskubide batzuk daukiezana bermatzeko”. Agirikoa danez, danok bat gatoz. Agirikoa da. Arabere gehiago, hori legezko eskakizuna da, eta, beteten ez bada, lehenengo puntuan esan dodanera bueltetan naz: hau ez da foroa. Epaitegietan salatu beharko da.

Nik neuk, amaitzear nago, mahaiburu andrea, gauza bat eskatzen deusut. Hona, otutako lehenengoari buruz berba egiteko ekimenik ez ekarteko. Gero, ganera, ez datoz bat, mozinoa, instituzinoek daukien gaitasunagaz. Izan be horixe bera da politikearen galbidea, eta instituzinoek ezertarako balio ez dabela igorten jake herritarrei. Jakina, balio dabe, gure eskumenak zein diran argi daukagunean eta hona jentearen bizitza benetan aldatzen dabenez gauzak dakarguzanean. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Rahona Garay, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Muchas gracias, y, de nuevo, buenos días a todos/as. Lehenengo agerraldian, ez dot aitatu gura nebazan gaietako bat jorratu, eztabaidearen doinua eta mamina zelan bilakatuko zain. Izan be, gai-zerrendako puntu honetan berbabide daukaguzan antz-antzeko gaiak jorrazteko asmotan EH Bilduk Bizkaiko Batzar Nagusietako Osoko Bilkuran aurkeztu eban mozino haretako transkripzinoak kontuan hartuta, agiri-agirikoa zan doinua txarra zana, besteak beste, su kurutzatua egoana eta Ganberan ordeztutako eta agerraldia egindako indar politikoetako batzarkideek alkarri leporatu eutsiena. Tamalez, autortu egin behar dot gaurkoan horixe bera jazo dana edo jazoten dagoana. Egozpenen su kurutzatua, nire ustetan gai honen inguruko kritikea konstruktiboa izan beharko litzatekenean eta beti proposamenak egiteko asmoa euki beharko leukeanean, baina, batez be, jorrazten gabilzan gaiaren maminagaitik, hau da, personen bizia da arriskuan jarten dana

ezeگونkortasunagaitik eta lanpostuetako baldintza txarrakaitik. Gai horri jagokonez, eskumenen arlora mugatu da eztabaidea.

Agirikoa danez, nire eretxiz, danok ondo baino hobeto dakigu zein diran foro honen, Ganbera honen eskumenak, baina, nire ustetan, danok ondo-ondo be badakigu legezko eskumenak be landu egin behar dirana, ordezkari politikoen borondateetik gaintzeko. Oso adibide erraza jartearren, historiari begira legezkoatasunaren kontzeptuari bakarrik eutsi bageuntsan, aurrerakuntza gitxi egingo ziran edo bat bera be ez zan egingo gizakien funtsezko eskubideen arloan orokorrean. Halanda ze, eskumenen arlo horreek gaintzeko ardurea daukagula uste dot eta bete-betean lan egin behar dogula behar dan lez garatzen ez ei dagozan gaitan hausteko.

EH Bildukook asmo hori daukagu, benetan, espiritu kiritikoz lan egitea, baina proposamenak egiteko asmotan be bai. Izan be, lehenengo agerraldian esan dogun lez, egia da aurrerapausuak emon dirana arlo honetan, baina egia be bada zenbakiak larriak dirana oraindokarren, zoritxarrez, gaur egun. Era berean, lehenengo agerraldian be aitatu dot beharginen ehuneko handi-handi batek zer eretxi daukan lanaldian garatu beharreko zerbitzuak eskaintzeko ezarritako baldintzei buruz.

Horrezaz ganera, azpikontratazinoaren kontzeptua be aitatu da, eta, era berean, legezkoatasunagaz be lotzen da azpikontratazinoaren kontzeptua. Jakin badakigunez, euren zerbitzuak garatzeko asmotan enpresek daukien legezko mekanismoa da azpikontratazinoa. Dana dala, jakina, hemen zalantzan dago edo kolokan jarten da zelan betearazoten dan azpikontratazino hori. Azpikontratazinoa legearen arabera betearazoten danean, barriro dinot, emongo dan zerbitzuari balio erantsia eskaintzeko asmotan, baldintzak emoten badira, inor aurka jarri ez dala uste dot ezelako zalantza barik. Arazoa, barriz, sindikatuek igarririkoa da, eta jentaurrean be adierazo dabe; barriro dinot, sindikatuek egin dabe, ez talde politikoez: zelan emoten dan azpikontratazino hori. Orokorrean, azpikontratau dan enpresearen kostuak merketzea da helburu bakarra, eta badakigu zer jazoten dan kostu horreek murrizten diranean. Orokorrean, gabeziak dagoz segurtasunaren arloan inbertiduteko orduan, eta era bateko zein besteko ondorioak be sortzen dira: istripuak eta, kasu askotan, larriak dira, zoritxarrez, edo hilgarriak be bai.

Aldundiaren eskumenen esparrua. Badakigu zein dan Aldundiaren eskumenen esparrua, barriro dinot, baina hementxe be badago borondate politikoa ezarterik, Aldundiak kontratautako enpresei zerbitzuak emoten deutseezan personen bizi-baldintzak hobetu ahal izateko. EH Bilduk behin eta barriro egin deutse eskaintzea Ganbera honetako ganerako kideei, persona horreen soldaten gitxieneko zenbatekoa 1.200 eurokoa izan daiten eta, holan, euren bizi-baldintzek hobera egin daien.

Azkenik, barriro ñabartu gura dogu Elkarrekin Bizkaiak aurkeztu dauan mozinoa babestuko dogula, errazoi bategaitik, batez be. Izan be, lehenengo agerraldian esan dogun lez, eztabaidagai hau aurretiaz ekarri dogu Ganbera honetara, horren inguruan daukagun jarrera zein dan azaldu dogu eta, orduan be bai, zuotako baten batek gogoratuko dau seguruenik, urrats bat gehiago emon genduan Aldundiari eskatzean gaur eskatzen gagozan neurriak ezarri eizala, kontratistatzat eukien beste enpresa batzuei kontratuak zuzenean esleitzen eutsezanean eta ekitaldien babesle moduan Bizkaia marka bakarrik ixten ebanean be bai. Izan be, gure eretxiz, ordezten dogunaren, Bizkaiaren kalidadeko irudia jakitera emon, zabaldu gura badogu, esan barik doa Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren jokabidea erabat ezin hobea be izan behar dana. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Lekerikabeaskoa Arrillaga, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LEKERIKABEASKOA ARRILLAGA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Dejando las opiniones a un lado, a mí hoy aquí me han sorprendido de manera positiva las intervenciones de los/as representantes políticos/as. A veces, nos sorprendemos de manera negativa, pero he de reconocer y agradecer que hoy estoy sorprendido positivamente escuchando esas intervenciones.

Señor Escalante, quizá es usted el que más se ha embarrado, y lo matizo. Yo no he hablado de cifras, y no he puesto en duda la legalidad de la moción, no he puesto en duda la conveniencia de la moción. Digo lo mismo. La interpelación la planteó usted el día 29 de enero, y usted dio entrada a la moción el día 29 de enero. En la intervención anterior, he manifestado mi opinión sobre la moción. Como mis palabras no servirán, con su permiso, voy a leer lo que usted dijo en la interpelación del mes pasado, y lo digo entrecomillado. Día 29 de enero de 2020, en torno a las 10:40. “Eusko Legebiltzarrak bialdu deuskun ebazpen honetan, ez da zuzenean laneko arriskuen prebentzinoari buruz berba egiten”. De acuerdo con lo que dijo.

Segundo. “Geure taldetik, beteten segiduteko, zentzun horretan aurrera egiten segiduteko eskatu gura deusuegu, besterik ez”. De acuerdo con lo que dijeron. “Adierazo dan lez, Ora ailegetea utopikoa izan daiteke batzuentzat eta distopikoa beste batzuentzat, baina ezin hobea izango litzateke. Gero eta handiagoak diran ehunekoetarantz barik zenbaki horretarantz aurrera egiteko aukerarik balego, aurrerapausua izango litzateke. Besterik ez. Muchas gracias”.

Eso es lo que dijo usted, y yo utilizo sus palabras para decirle que nosotros/as vamos a votar que no a la moción que han presentado hoy. Votaremos que no, porque no podemos aprobar una serie de afirmaciones que se recogen en la misma. Discúlpeme, pero ese será nuestro argumento en este caso.

Para ir concluyendo, no está, como hemos comentado antes, no está todo hecho. Las empresas no han hecho todo, los/as trabajadores/as no hemos hecho todo, desde la Diputación no hemos hecho todo. Siempre debemos continuar mejorando tanto en lo público como en lo privado, unos/as más que otros/as, día a día, tanto las administraciones como las empresas.

Para terminar, no quisiera escuchar ninguna denuncia por mi falta de empatía. Una pequeña mención. En el parte de este año, ya, en el mismo GHI Zamakona, en Recycling Bizkaia, tres fallecimientos y dos desaparecidos. Mi más sentido pésame. No puedo decir que me uno a ellos en su dolor, porque ni siquiera soy capaz de imaginar el dolor que deben estar sintiendo en estos momentos, pero mis condolencias a la familia de Alberto y Joaquín, que están desaparecidos. También a Borja, fallecido el día 28 de enero en Igorre en un accidente de tráfico cuando regresaba de trabajar en Gasteiz. También a Aitor, fallecido en GHI en Galdakao, y también al fallecido en los astilleros Zamakona en Santurtzi. Mi más sentido pésame. También, en otro sentido, pero mi más sincera solidaridad también a todos/as los/as miembros de la Diputación que trabajan en emergencias. Dejando a un lado todo el ruido político, todo el ruido mediático escuchado, por encima de muchas otras cosas, todos/as los/as bomberos/as que trabajan, los/as foralistas, los/as miembros de Basalan, los/as trabajadores/as de obras viales, los/as junteros/as y también el Diputado General, tienen nuestro apoyo. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Concluido el debate, antes de someter a votación la moción, quisiera recordar que la señora Ibone Bengoetxea Otaola ha delegado su voto a la señora Ana Esther Furundarena Olabarriaga. Dicho lo cual, someteremos a votación la moción. Votemos. El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 47: 16 votos a favor, 29 votos en contra y 2 abstenciones. Por tanto, no se ha aprobado la moción.

Punto segundo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2020/0000220](#))

Autor: Lobato Pascual, Emilio (EB)

Asunto: La caducidad de las tarjetas Barik.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2020/0000220](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (7A)

Expediente: ([11/B/20/0000781](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2020/0000220SE](#))

Egilea: Lobato Pascual, Emilio (EB)

Gaia: Barik txartelen iraungipena.

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2020/0000220SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (7A)

Espedientea: ([11/B/20/0000781](#))

Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Lobato Pascual, tiene la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak. Buenos días, señora Presidenta, junteros/as.

Joan dan hileko Kontrolerako Osoko Bilkuran, benetako urtenbide eraginkorrak eskaintzea proponidu genduan, Barik txartelaren iraungipenaren ondorioz nahaspilea eta kezkea nagusi dirala kontuan hartuta. Izan be, Bizkaiko garraio publikoaren zutabeetako da, ezelako zalantza barik. Oso urruna ez dan epean, zutabe horren ordez gure eretxiz ezinbestekoa dan txartel bakarra jarriko dalakoan gagoz.

Nire taldeak, Elkarrekin Bizkaiak, orain dala 3 aste egindako agerraldiaren laburpentxua egin gurean, nabarmendu egin gura dogu zelako kaltea egiten deusan egoera honek garraio publikoaren irudiarri. Txartela barritzeko erreskadak ez dira gitxitu gure aurreko agerralditik, eta, oraindakarren, badago arazorik. Ganera, larriagotu be egingo dira, iraungipen gehien aurreikusitako datak hurreratzen diranean: maiatza. Arazo horreen artean, nabarmendu egin behar dogu bulegoen kokapena txarra dala txartelak barritzen dabezan 11 bulegoetatik hur bizi ez diran erabiltzaile batzuentzat.

Gure eretxiz, euskarriztat hartutako Barik txartelaren iraunkortasuna uste baino luzeagoa izan beharko litzateke. Ezelako zalantza barik uste dogu holan dala, aurreko Osoko Bilkuran adierazo genduan lez, ez dogu ezagutzen iraungipenagaitik ez dabilen txartelik. Bai, txarto erabilteagaitik, agirikoa danez, baina ez iraungipenagaitik. Itandu, orain dala hiru aste esan geuntsuen lez, zuon lagunei zenbat txartel iraungi jaken. Gure taldeak badaki zein dan erantzuna, itaun hori egin dogulako geure inguruan: BAT BERA BE EZ. Barriro dinot: BAT BERA BE EZ. Halanda ze, ez doguz sinisten txartel horreek erabilten segidu ezkeru sortu leitekezan arriskuei buruz emon deuskuezan azalpenak.

Horren bidez, esan egin gura dogu atondu dan prozesua ez dala ezelan be beharrezkoa sistemearen eraginkortasunari begira. Gure mozino eratorriaren 2.b puntuan adierazoten dogunez, ondo dabilzan txartelak sistematik ez ateratea proponiduten dogu. Egin ezean, errazoa emon beharko deutsegu Barik txartelari izen barria emon deusien erabiltzaileei: "TARJETAS". Zuon asmoa da talde honek eta zerbitzuko erabiltzaileek iraungipenagaz adarra jotzen ez deutseela pentsetea? Txartelaren barruko txipak iraungi egiten dirala eta, horren

ondorioz, gure informatika-sistemen Armagedon handia zer neurritan hurreratu leitekean adierazoten dauan txosten edo azterketa tekniko hori aurkeztu eizue. Guk geuk etxerako lanak egin doguz, eta informazio-eskabide hori erregistrau dogu. Zuok berbera egin eta informazioa eskatu beharko zeunskiee beste autonomia-erkidego batzuei, txartel horreek produktu ez-galkor bihurtzen dauzan harri filosofala topau dabe-eta.

Aurreko Osoko Bilkuran azaldu geuntsunez, Madrilgo Erkidegoak, barbarako, giltzarri magistral hori topau dau, eta ez da bakarra. Hori bai, Bizkaiko Garraio Partzuergoak gitxi gorabehera 5.400.000 €koa dan dirutza erakargarriari uko egin beharko deutso 7 urtean behin. Ez dago txarto. Garraioko diputaduak adierazo deuskunez, hiru euro horreek erabiltzaileek Bariken urteko gastu moduan egindako 43 euro-zentimoko inbersinoa dira. Tira, horrek Lola Floresena lako atxinako proposamenak dakarskuz gogora, espainiarrek pezeta bana ordaindu ezker Ogasunagaz eukan zorra ordainduta egongo zala inoan-eta. Crowdfunding ederra. Ados gagoz seguruenik erabiltzaile gehientzat 43 euro-zentimoko gastu hori ezohiko ahalegina ez dala esatean, baina uste dot ados be egon beharko ginetekeala, gastu hori inork egin ez daian. Horretarako, lehen aitatu dogun aukerea aztertu beharko litzateke, hau da, txartelen iraungipena ez onartzea. Gogoratu egin gura dogu hori ez litzatekeala aparteko gastua izango Bizkaiko Garraio Partzuergoarentzat. Izan be, diru-sarreraren faltea bere gain hartzea izango litzateke eta, gure eretziz, ‘aurreikusi bakoa’, ganera.

Gure taldearen ustetan, Bizkaian garraio publikoa sustatzeko apustua eragin handiko ekintza zehatzen bidez eta gaur Ganbera honetako Osoko Bilkurara daroagun lako kinuen bidez sendotu beharra dago: ekintza horreen bitartez, herritarrek administrazioak kalidade handiagoa daukan eta euren boltsikoen ekonomiarako erakargarriagoa dan garraio publikoko zerbitzuaren aldeko apustua egiten dauala ikusiko dabelakoan gagoz.

Gobernu Taldearen proposamena jaso dogu. Proposamen hori gaur Ganberara eztabaidatzeko eta aztertze asmotan dakargun mozinoaren inguruko zuzenketea da. Gure proposamena serioa eta zehatza da, eta, bertan, kontuan hartu beharreko era bateko eta besteko ekintzak garatzen doguz, garraio publikoari bultzadea emon ahal izateko:

1. Txartelen barriztapena kudeatzeko orduan partzuergoaren jardunbidea zuzentzea.
2. Txartelen barriztapenaren 3 euroak itzultzeko eskatzea.
3. Oraindokarren ondo dabilzan txartelen etorkizuneko barriztapenak ezezte.
4. Izapide horreek kudeatzeko bulegoen kopurua gehitzea.
5. Informazio-kanpaina bultzatzea.

Azkenik, gaur eguneko txartelen orde, iraungiten ez diran beste batzuk jarrea.

Zer eskaintzen deusku Gobernu Taldeak bere zuzenketan?

Berbaz berba irakurriko dot: “Garraio Partzuergoari eskatzea Bizkaiko garraio publikoko tarifa-euskarriak ingurumenari begira jasangarriagoak diran aukeratarantz bilakatzeko prozesuan lan egiten segidu daijala eta herritarrei Bizkaiko tarifa-sistemari eta Bariki buruz igorritako mezu garrantzitsuenen jakinarazpena hobetu daijala”.

Hori, Aldundi honetako Gobernuari eusten deusazuen jaun-androk, berba egitea eta ezer ez esatea da. Aurkeztu deuskuzuen proposamena hutsaren hurrengo da. Testua

erretorika atseginaz apaindu eta esan egiten deuskuzue ez daukazuela horren inguruko ezer egiteko asmorik. Dana ezin hobeto dabilela eta errua zerbitzuko erabiltzaileena dala, ez eutseelako txartelak barritzeko datei erreparau erosi ebezanean.

Hurrengo agerraldietan, ezelako zalantza barik dakigu Gobernu Taldeak Garraio Partzuergoaren kudeaketea defendiduko dauana eta erabiltzaileek zerbitzuagaz daukien gogobetetasunaren ehuneko aitatuko dauana. Balorazino orokorra, jakina, ez gai zehatz honi buruzko balorazinoa. Oso kontuan hartu, gaur eztabaidagai daukagun proposamena onartu ezker, gogobetetasun orokorraren ehuneko hori handitu egingo dala seguruenik, erabiltzaileek Bizkaiko Foru Aldundi honek behingoan entzuten deusela sentiduko dabelako. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Los grupos Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos han presentado una enmienda. Por tanto, señor Rico Lezama, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **RICO LEZAMA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Lobato jauna, txartelen berriztapenek ezelako kosturik euki behar ez dabela azaltzeko egindako koherentzia-ariketa horretan, orain, Espainiako Gobernuan zagozenez, NANaren barriztapena doakoa izateko eskatuko dozelakoan nago, txipa be badaroalako eta ez ei dalako inoiz barritu behar. Ganera, danok derrigorrean euki behar dogunez, herritar guztiek atera behar dabenez, doakoa be izan beharko litzateke.

Ez dago ezelako arazorik txipakaz. Gai hori azaltzen barriro hona etortea be! Nire ustetan, argi eta garbi azaldu eutsun Garraioko diputaduak lehen egunean. Norbera ados egon daiteke edo ez txartelaren kostuagaz, 3 euro, 5, 2 eta erdi, 1. Txartelaren iraungipena beharrezkoa ez dala esatea be! Ezertxu be jazoten ez dala eta txipa beti ondo ibili leitekeala esaten hona etorri gura izatea be!, batez be, itxiko balitz eta txarto balebil, zuok hona hauxe esaten etorriko zintzatekezena jakinda: zergaitik ez ziran txarteleko txipak aldatu eta zergaitik ez jake herritarrei eskatu aldatzeko, sisteman sortzen dan anabasea kontuan hartuta?

Hau da, urtenbide bi eukitea beti da erraza, baina hori ez da errealidadea, hori ez da errealidadea. Berbarako, zera esaten hona etortea: “ez, izan be, orain badinoe txartela barritu behar dala”. Hori be ez da egia. Hara, nik neuk, ekimen hau prestatako orduan, itauna eta diputaduak emon eutsun erantzuna irakurri dodaz, baina, horrezaz ganera, hemerrotekara be jo neban. 2005. urtean, hau komunikabideetan agertzen zan, eta, bertan, txartelaren iraunkortasuna zein izango zan azaltzen zan. Ganera, esan egiten zan txiparen gehieneko iraunkortasuna 10 urtekoa zala. Izan be, egin zana, eta ahaztu egin jatzu edo nik neuk ez dot entzun, behintzat, luzatu egin zan. Hasiera batean txartelerako aurreikusita egoan iraunkortasuna luzatu zan, saiakuntzak egin ziralako, enpresakaz eurakaz berba egin zalako eta, hain zuzen be, 7 urtera ailegau eitekezala esan zalako. Nik neuk ulertzen dot zu, ekimenaren zati bat, ados ez egotea 3 euroko kostuagaz edo dana dalakoagaz.

Ederto. Ulertzeko modukoa da, baina ez da egia gai hau barria danik. Gai hori hasieratik proponidu zan. Ez jake herritarrei, erabiltzaileei esaten euren txartelaren iraungipenak irakurten jakin ez dabela. Beharbada, zuk zeuk dinozu hori. Esan egiten da txartelak iraungipena daukala, bai ala bai, badauka. Izan be, sailak bermatu behar dau, kasu honetan, saila bera be ez da, BGP baino. BGPk bermatu egin behar dau sistemeak abian segiduten dauana, eta, txartelaren osogai teknikoan ondorioz iraunkortasuna X urtekoa bada, BGPn bertan nonork gehiago luzatu gura izanda be, enpresek sistemeagaitik emoten dauan bermea horixe bera da. Kitu. Izan be, ez dago beste aukerarik.

Gero, kostuari buruz berba egin ahal izango dogu. Edozelan be, lehenengo zatia ez da egia, ez da benetakoa. Ez da egiazkoa, beste barik. Nire eretxiz, gure zuzenketan, zeozelako autokritika-doinua dago, zuok askotan dinoskuzuelako faltan daukazuela. Komunikazioa hobetzeko eskatzen dogu. Egia esan, hobekuntzeak horixe bera eskatzen dau, komunikazioa hobetzeko, agirikoa danez, era batera edo bestera egia da zeozelako ezinegon sortu dana gai horren inguruan. Dana dala, beharbada ikusi be egin behar dogu guk zer neurritan areagotu dogun edo batzuek zer neurritan areagotu daben ezinegon hori. Izan be, jakina, leku batean zein bestean, gaur bertan egin dan lez, hau nonori bat-batean otu jakon zeozer dala errepiketean ez da egia, bada. Ez da egia, ezelan be ez. Hasiera-hasieratik azaldu zan txartelen iraupena mugatua izango zala. Kitu. Zergaitik? Sistemeak abian segiduten dauana bermatzeko, ez dagoalako beste erarik.

Era berean, harri eta zur be banago, Garraio Batzordean, batzorde horretan gagozanok joan dan legealdian eta honetan entzun dogulako ordainketa-sistema jasangarriagoetarantz bilakatu beharra dagoala. BGPk iragarri egin eban sistema horretarantz bilakatuko ginala eta mobilaz ordaintzeko aukerea emongo dala. Nik neuk ikusi egin dot talde batzuek horixe eskatzen euskuela Ganberan. Lerma jaunari begiratzen deusat, joan dan legealdian batzordeak partekatu deustazalako eta talde batzuek horixe eskatzen euskuelako joan dan legealdian, baina, gero, abian jarten dogunean, apokalipsia jatorku. Zergaz geratuko gara?

Gero, egia esan, jasangarriagoak diran ordainbide barri horreen eraginez, txarteleko erabiltzaileen kopuruak behera egingo dau apurka-apurka. Ez dira kenduko, ostera. Izan be, ez da gauza bat bestearen orde jarriko. Askatasuna izango da, askatasuna egongo da, erabiltzaileek aukeratu daien, baina, agirikoa danez, erabiltzaile batzuek mobila eroan eta mobilaz ordaindu gura izango dabe, mobilean geure kreditu-txartelak be badaukaguzalako gaur egun.

Halanda ze, hau ez da apokalipsia. Beharbada, bizileku daukazu Bizkaiak eta bizileku daukadan Bizkaiak batez besteko terminoa daukie, eta, beharbada, horixe bera da benetakoa, barriztapenerako erreskada ezin luzeago horreek, eta abar, eta abar... Benetan, BGPko kidea dan instituzino moduan, barriro dinotsut sistemea ondo dabilena bermatu behar dogula. Halanda ze, nire ustetan, hona etortea eta, enpresearen bermeetan bertan zeozelako iraunkortasuna daukala esanda be, txartelaren suntsikortasuna zalantzan jarrea ez da benetakoa. Zure eretxia izango da, eta nik neuk ez dot zalantzan jarriko zuk kontsultau dozun hori, parkatu, baina zure inguruetan oso ondo ikusten dot. Nire ama, nire aita be badira nire ingurukoak, eta gai horri buruz tutik be ez dakie. Nik neuk oso-oso maite dodaz, baina gai zehatz horri buruz ezertxu be ez dakie. Zuk benetan uste dozu BGP ez dala txosten teknikoetan abiletan? Ni neu ez naz eretxi personalean sartuko, baina benetan uste dot ez zarala bape objektiboa. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Lerma Mentxaka, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as, a todos/as los/as junteros/as, así como a los/as periodistas y a las personas que han venido hoy como invitadas a esta Casa de Juntas. Junto con el grupo Socialistas Vascos, los/as junteros/as que pertenecemos al grupo Nacionalistas Vascos hemos interpuesto una enmienda a la moción presentada por el señor Lobato, el señor Lobato perteneciente a Podemos. El señor Rico, que me ha antecedido en la palabra, creo que ha explicado muy bien el por qué o las razones por las que se ha presentado esa enmienda, que ya se mencionaban en el documento escrito o en la propia enmienda. Egitate batzuk ezin argiagoak diranez, gai honetan guztian zehaztu eta aitatu beharrean gagozala uste dot.

Txartelen iraungipenari jagokonez, Barik sistema erabilten hasten dan lehenengo unetik bertatik, esperientzia eredu garri moduan sortu zan unetik bertatik be bai, zeozelan esatearren, jakinarazo egin zan txartel horreek baeukiela iraungipenik, eta, hasiera batean, esan dan lez, lau urterako izango zala adierazo zan.

Jazo zana zentzuzkoa da, jardunbidea zelako teknologian dagoan oinarrituta kontuan hartu ezker, gutxienez autortu egin behar dalako barrizaille samarra zana eta horren inguruko aurretiazko esperientziarik ez egoana. Esan daigun ez dagoala, ez dago esperientziarik, urteen joan-etorrian zelan ibiliko ziran jakiteko.

Alde horretatik, ondo dabilzana eta zerbitzutik kanpo geratzen ez dirana egiaztetan dan neurrian, txartel horreek erabilteko bizitzea 7 urtera luzatu zan, eta, gaur egun, egoera horretan gagoz. Garraio Partzuergoak 7 urteko marjinea emon deusku Barik txartelaren sistemearen administrazioan, 10 urte horreetako data horren aldean, orduantxe benetan zaharkituta geratu daitezkezala eta abian egon ez daitezkezala kontuan hartuta. Izan be, horixe bera da sistemearen abio ona bermatzen dauana eta horixe bera da aukerea emon eta bermatzen dauana txartelen beharrezko barriztapen hori kontrolpean egingo dana, mailaka eta apurka-apurka egingo dana. Herritarrei ezin jake jazo halako batean euren txartela abian ez egotea. Ganera, data berberetan ezin jake hainbat herritarri gauza bera jazo. Halanda ze, txartel personalizauetan, iraungipenei edo ez-iraungipenei jagokenez be, iraungipen-datea agertzen da inprimiduta. Egia esan, personalizauta ez dagozan txarteletan, iraungipen-datea ez da inprimiduta agertzen, baina badago txanpon-txartela kargetako egin daikgun edozein eragiketatan ikusterik, makinetan edo eskuragarri daukagun aplikazioa erabiltean be bai.

En mi opinión, así ha sido desde siempre, y en consecuencia siendo eso así, creo que no debería haber gran problema, y por eso hemos interpuesto una enmienda a la moción presentada por el señor Lobato. Otra cuestión es que seguramente, siendo esa tarjeta Barik un sistema de pago tan cómodo y práctico, no hemos prestado atención a ese sistema de pago que la ciudadanía valora muy positivamente, no nos hemos fijado en la fecha de caducidad. Eso es lo que creo que ocurre en este momento.

Nik neuk ikusten dodana da, ez noalako bizitzatik nire Barik txartela zer egunetan iraungiko dan pentsetan. Egia da. Por ello, seguramente se debe reconocer, y así lo ha manifestado el señor Rico, que se podía haber realizado de otra manera o de una manera más eficaz una especie de campaña de información sobre la necesidad de renovación de la tarjeta Barik. Sin lugar a dudas. Horixe bera da gure zuzenketaren eukia, eta gauza bi eskatzen dira bertan.

Hasiera batean, ordainketa-tituluetan ingurumenari begira plastikozko txartela baino jasangarriagoak diran aukeratarantz bilakatzen diran euskarrietarantz bilakatzea, ezelako zalantza barik. Bestetik, Bizkaiko herritarrei gai biren barri emoteko ekintzak areagotzea: tarifa-sistema, berez, eta ordainbideak, Barik txartela, hain zuzen be.

Respecto a la primera, Ekain Rico ha mencionado que ya se va a poner en marcha un nuevo sistema para el uso del teléfono como medio de pago, lo que seguramente supondría una reducción del número de tarjetas de plástico a utilizar.

Por otra parte, creo que lo que es más claro es que se puede mejorar la información que enviamos a la ciudadanía, fundamentalmente en lo que respecta a esas dos cuestiones. Esto es, respecto a lo que se debe abonar y, por otra parte, respecto al sistema de pago, y, concretamente, respecto a la tarjeta Barik.

Benetan uste dot sartu egiten garala, autortu be egiten dogula seguruenik gauzak ez dirana ezin hobeto egin, komunikazioaren faktoreak deserosotasun gehiago sortu

dauzana erreskadak egotean, herritarrek zelan jardun behar eben ez jakitean eta txartel horreek zergaitik barritu behar ziran ez jakitean.

Gaur egun, barriro be, berbarako, webgunean PCaren bidez eta telefonoaren bidez sartzean, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren webgunea abian jarri baizen laster, lehenengo eta behin, izenburu hau daukan albistea dago ikusgai: “Barik txartelen iraungipenari buruzko galde-erantzunak”. Bertan, zuzen-zuzenean eta oso modu ulergarrian azaltzen da zein diran Barik txartelagaz eta beharrezko barriztapenagaz zerikusia daukien faktore nagusiak, zer txartel iraungiten diran, non barritu behar diran eta zer ordutegitan. Zelan jakin noiz iraungiko dan txartela.

Alde horretatik, nire ustetan oso garrantzitsua da aukera hori eukita argi eta garbi ixtea personek iraungipen-data daukiena identifikauta eta bat datorrena txartelaren titularraren urtebetetzeagaz edo jaiotegunagaz. Personalak ez diranetan, personalizauta ez dagozanetan, badago makinetan edo aplikazioan begiratzerik. Alde horretatik, ez da beharrezkoa herritar guztiak une berean bulegoetara joatea berriztapena egiten. Denporea daukie, iraungipen-data hori edo erabilerea amaitu baino egun batzuk lehenago. Horrezaz ganera, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren webgunerako sarbidea dagoan moduan, autortu be egin beharra dago ez dauana inor engainetan, hau da, albistea zer egunetan eskegi zan, eta ondo baino hobeto ikusten da. Bidezkoa da autortzea urtarilaren amaierakoa dana, hau da, Podemos taldeko Lobato jaunak gaiaren inguruko interesa agertu eta itauna eskatu eban datearen ostekoa.

Por otra parte, yo diría que la situación actual de esa página web es adecuada respecto a la comunicación, lo que no significa que no deba hacerse una especie de campaña, concretamente, porque a mi parecer muchas veces la ciudadanía no sabe a dónde debe acudir a buscar esa información, lo que supone que obtiene una información inadecuada o una información errónea. Es necesario.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Disculpe, señor Lerma, vaya concluyendo, por favor.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias. Es necesario contar con un nivel de comunicación, con una iniciativa de comunicación mayor, como por ejemplo, para que se conozca que en esa página web se puede obtener información respecto a cuándo, dónde y cómo se han de renovar las tarjetas o cuáles son las otras alternativas para conseguir esa misma información. Lo cual explica el objetivo y el contenido de nuestra enmienda.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Andrade Aurrecoechea, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Eskerrik asko. PPTik, iragarri egiten dogu proposamenaren aldeko botoa emongo dogula, funtsezko proposamena babesten dogulako. Hau da, iraungitako txartelak barritzea doakoa izan behar da Bizkaiko herritarrentzat. Mozino honetako proposamenera hurreratzeko, lehen egunean diputaduak be, foru-diputaduak be egin eban zeozer egingo dot, esperientzia personala azalduko dodalako. Dana dala, ez dot diru-zorroa erakusteko ausardia eukiko, diputaduak lehen egunean egin eban lez, seguruenik berea baino estuagoa izango dalako eta txarto be ez dodalako geratu gura. Edozelan be, orain dala hiru bariku, Areetako metroko bulegoetara hurreratu nintzan. Barikuan, arratsaldeko 7etan. Bai, Elkarrekin Podemosen proposamena apur bat garatzen joango naz. Bertara, bulegora hurreratu nintzan, eta, lehenengo eta behin, segurtasuneko lagun bi topau

nebazan, oso persona atsegina, oso neska atsegina, eta informazioa emoten eutsun. Arretea emoten eutsun, eta esan egiten euskun zer egingo genduan, erreskadan itxaron behar genduan ala ez. Erreskadea egoan. 20 minutu, 30 minutu egon nintzan erreskadan, eta, barruan, lagun bakarria egoan beharrean. Hau da, jente gehiago egoan kanpoan, eta lagun bat beharrean. Oso deigarria egin jatan. Behargin guztiak artez-arteak ziran, eta oso-oso atseginak, baina, batez be, arretea emoten eban neskea. Izan be, jente asko bideratzen eban metroko geltokietako bulegoetara. Lehenengo eta behin, hausnarketa hau egin neban: Gobernu Taldearen aurreikuspen-faltea, bertan aitatu dan lez. Aurreikuspen-falta hori, lagun bat egon beharrean bi egon daitekezalako. Izan be, oraindokarren, bulego fisikoetan. Horri esker, apur bat laburtuko zan gauzea. Erreskadea egin genduan bertan, bertan itxaron genduan.

Mozinoan azaltzen da txartela barritu behar danean, 5 euro kargau behar dirala bertan. Hori ez da egia. Beste barik, zaharra kendu eta barria emoten deusue, eta besteak eukan saldoa sartzen deusue. Nire saldo urria bestean kargau eusten. Era berean, alabearena be baneroan, eta ez dira gitxienez 5 euro kargau behar, proposamenean adierazoten dan lez. Halanda ze, hori ez da egia. Une horretan, burura etorri jatan diputadu jaunak be tribuna honetan egin eban hausnarketea, itaun haretan esan zenduan 0,8 edo 0,08 bakarrik zala, ez dot ondo gogoratzen zer zenbaki esan zenduan, 3 euroko kobrantza horren kexu, zeuk entzun zenduanaren arabera. Ni neu ahoz kexau nintzan bertan egoan behargin gizagaixoaren aurrean, modu atseginean, jakina, kobrau egin eustelako, baina kexa idatzia be egin neban. Jakina, kexa idatzia, kanpoan sei lagun egozalako zain eta, kexa beteten hasi banintz, gaua egingo jaken, eta bulegoa zarratzen eben. Halanda ze, zuk zeure agerraldian esan dozu 0,08, ez dot ondo gogoratzen, bakarrik zirala kexu 3 euroak kobrau eutseezalako, baina jakin badakit erreskadan gengoan guztiok eta barrizapena egiten genduan guztiok kexa berbera geunkana: txartel barriagaitik 3 euro barriro ordaindu behar izatea.

Era berean, proposamenean be proponiduten da 3 euroak bidaietarako karga moduan itzultzea. Hori beste arazo bat da, niri bertan ez eustalako inork emon ez tiketik, ez ordainagiririk, ez ezer be ez. Hau da, neure txartela jaso neban, 3 euro kobrau eusten, barria emon eusten eta nik neuk ez dakit BEZik daukan ala ez, eukiko dau, baina diputadua ez dago hori argitzeko. Ez dau BEZik eukiko, eukiko dau. Tabernara noanean eta muztioa hartzen dodanean, tiketa emoten deuste. Botikara noanean, tiketa emoten deuste. Medikuarenera noanean eta fakturea eskatzen deusadanean, emon egiten deust. Hemen inork ez eustan ordainagiririk emon. Ez daukat eragiketa haren ordainagiririk. Txartel zaharragaz geratu ziran, zer esanik ez. Ezer barik geratu nintzan. Nik neuk ezin neikez 3 euroak erreklamau, segurtasun-kamaretara deituko ez baneu, orain oso modan dagozala kontuan hartuta, aireportuetan lez, baina ez dakit zelan erreklamau neikean. Antolatu leiteke. Garrantzitsua da hurrengoek ordaindu beharrik ez eukitea.

Aitatu danez, 5 milioi eta 400 mila euro kargauko dira txartelak aldatzean. Zelako kontrola daukagu, tiketik, ordainagiririk emoten ez badeuste? Zer kontroletan dozue diru horren inguruan, programa informatikoa, euskarria? Ez dakit, ez dagoalako jakiteko modurik, ez dagoalako ezelako kontrol fisikorik, ez dagoalako justifikauko dauanik. Ez zan egon ezelako kontrolik. Nik ez dot ezer esango txartelari buruz, mozinoan iraungipena eukan edo iraungipenik ez eukan esan arren. Nire eretxiz, abian jarri zanean, bertan azaldu dan lez, barritu egin behar da. Egia esan, orain, ez dira txartel barriak barritu behar, Madrilén jazoten dan lez, hemen aitatu dan moduan. Halanda be, argi be badaukat txipa daroan plastikozko txartelaren kostua 3 eurokoa ez dana. Txartelaren benetako kostuari buruzko agiriak eskatu ahal izango doguz. Hori dala eta, badaukat beste zalantzarik, eta mahai honen ganean jarri gura dot: zer egingo da 5 milioi eta 400.000 euroen eta txartelaren benetako kostuaren artean dagoan aldearen bidez? Metroko beste inbersino batzuetarako, horretarako dago pentsauta? Hori kezagarria da niretzat, txartela iraungipenagaitik barritu beharra ez litzatekealako euskarria izan behar, Garraio Partzuergoak beste inbersino batzuetarako dirua euki daian. Ostantzean, hori proponidu

ezkero, jentaurrean esan beharra dago, hau da, “horrezaz ganera, honetarako dirua batuko dogu”. Izan be, zuzena izan leiteke, baina ni neu ez nago ados.

Halanda ze, azken batean, barriri dinot, txartela iraungipenagaitik barritu beharra doakoa izan beharko litzateke edo, gitxienez, balio dauana kobrau gura izan ezkero, derrigorrezko egintzea dalako, ez dauka ezelako zerikusirik NANagaz edo txartel fisikoakaz. Nireak, ez dot esan, identifikau bakoak dira, kargetan dan Barik arrunta. Identifikauta dagozanetan, ostera, NANean lez, zahartzen zaranean argazkia aldatu behar da. Ulertzekoa da barritzea eta barritzea derrigorrezkoa izatea. Ordaindu behar izatea ala ez? Hori beste erespede bat izango litzateke, eta gobernuan zagozenok ados jarri beharko zintzatekeze, hor alkarregaz jesarrita zagozela kontuan hartuta. Hartu erabagia. Dana dala, ulertzekoa da arpegidunak barritzea, baina nireak ezelako arpegirik eta ezer ez badauka, zergaitik? Barriri dinot. Doakoa izan behar da, eta, horrexegaitik, mozino hau babestuko dogu.

Azken batean, nire eretziz, bariku arratsalde haretan Areetako bulegoan bizitako esperientzia ha kontuan hartuta, Elkarrekin Podemosek egindako proposamena ulertzen dot, gabeziak badaukaz be, batzen joan diran informazioetan oinarritzen joan dirala uste dot-eta. Izan be, funtsean, funtsezkoa da txartelak doakoak izatea, eta bat gatoz horregaz. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Méndez Urigoitia, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Junteros/as. Buenos días a todos/as.

Tras realizar pruebas durante muchos años, el día 11 de octubre de 2012 se puso en marcha la tarjeta Barik, recuerden ese dato, ese 2012, ya que lo repetiré luego, con la implantación masiva de esa tarjeta sin contacto en la mayoría de los transportes públicos.

En un principio, esa tarjeta sin contacto tenía una validez de 4 años, tal y como lo ha explicado el señor Lerma, y no de 7 años, como lo ha comentado el señor Rico. Tras las protestas de las personas usuarias, y quiero subrayar eso, el Consorcio de Transportes de Bizkaia amplió a 7 años esa validez. Por tanto, ahora, este año, 2020, se deben renovar muchas tarjetas Barik, que ya cumplen sus primeros 7 años.

Aquí se han dicho muchas cosas ya, y no las voy a repetir, pero quisiera aclarar otras cuestiones que considero muy importantes.

El sistema Barik utiliza dos tipos de tarjetas sin contacto. Aquí se ha comentado que hay que solicitar información. Bueno, pues se la traigo yo previamente. Quizá no diga bien su nombre, pero esas dos tarjetas son las siguientes:

MIFARE DESFire EV1

MIFARE DESFire EV2

Quédense con esas dos versiones. Nik neuk ez dot inongo inguruan galdetu. Txartelak egiten dauzan enpresearen zehaztapenak eurak dira. Ezaugarrietan adierazoten danez, memoriak 500.000 idazketa-ziklo bermatzen dauz (1.369 erabilera urtean), baita datuei eusteko 10 urte be, MIFARE DESFireren EV1 bersinorako; eta 25, bilakatuen dagoan EV2 bersinorako, betibe, baldintza egokietan gordeten badira, holako egoeretan proponiduten dan lez.

BGPk, Garraio Partzuergoak, baieztu egiten dau 2018-2022ko Epealdirako Kontaktu Bako Barik Txartelak Horniduteko 3. Esparru Hitzarmenean. Edonork kontsultau daike.

Segurtasunari buruzko 5.1.6. idatz-zatian, hortxe agertzen dira datuak, eta honako hauxe dinoskue:

- Irakurketa-zikloak: mugabakoak. Txartela ezelako muga barik irakurri daiteke.

- Idazketa-zikloen kopurua: > 500.000

- Bizi-iraupena: > 10 urtekoa EV1 modelorako; eta > 25 urtekoa, modernoena dan EV2 modelorako.

Edozelan be, BGP tematuta dago, eta txartel horreek 7 urteko epean iraungitea gura dau. Lehenengo, 4 ziran, eta, orain, 7 dira. Horretarako, sistemearen ustezko kolapsoa jotzen dabe argudiotzat. Sistemearen kolapso hori ez da zehetasunez aitatzzen edo ez da zehetasunez aitatzzen ez txartelen ezaugarri teknikoetan, ez txartelak horniduteko orrietan.

Halanda ze, kolapsoa benetan sortu dauana, eta Andrade jaunak emon deusku horren barri, baita sistemearen barri be, BGP bera izan da, era esponenzialean handitu daualako telefonogunera egindako deien kopurua, baita beharrezkoak ez diran arren Bezeroen Arretarako Bulegoetara egindako bisitaldiak be, Andrade jaunarena lakoa, eta zergaitik azalduko deusut. Izan be, alarma sortu da biztanleen artean, eta oso-oso txarto azaldu da zergaitik barritu behar diran orain Barik txartelak. Modu berean, bezeroen arretarako sistemeak be txarrera egin dau horren ondorioz, baita eskatzen daben guztiei oro har emon behar jaken zerbitzuak be.

Para informar sobre esa caducidad, el Consorcio publicó una escueta nota en su página web, tal y como ha comentado el señor Lerma, el día 14 de enero. 15 días más tarde, el día 28 de enero, creo, ante la repercusión que tuvo en los medios de comunicación, publicó otra nota cuyo título era “Preguntas Frecuentes sobre la Caducidad de las Tarjetas Barik. FAQs”.

La gestión del CTB no ha sido correcta, para nada, fundamentalmente si tenemos en cuenta que es el Consorcio quien establece las normas de uso de la Barik. Sin embargo, después, su aplicación queda en manos de las empresas que explotan el servicio, que, a su vez, derivan hacia el personal de Atención al Cliente.

Azken batean, metroko beharginak darabilguz ezkutu moduan, Andrade jaunak esan dauan lez, Bilbobusekoak, Bizkaibusekoak, Renfekoak, BGPk aldebakartasunez erabagi dauzan neurriak ezarri daiezan. Ganera, zehaztopen teknikoak zehetasunez azaldu deusuedazanean ikusi dogun lez, ez litzateke beharrezkoa izango hain azkar egitea.

Zergaitik ez dogu onartzen txartelok 10 urtera arteko gitxieneko bizitza-ziklora ailegetea?

Arabere gehiago, Lerma jaunak eta Rico jaunak esan daben lez, “Metro Bilbaoren zein Euskotrenen inguruneari eta beste tren-operadore batzuen ondorioz sortutako jarduketei begira telefono mobiletan Barik txartelaren birtualizazioa ezarteko proiektu eredugarri” bi abian dagozanean. Hain zuzen be, 2021erako egongo dira amaituta, eta, seguruenik, 2022an egon leitez abian.

Esan dodan lez, bizitza-zikloa 10 urtera arte luzatuko bagendu, gogoratu egiten deusuet zehaztaperetan agertzen dan gitxieneko epealdia dala, errazago izango litzateke gaur eguneko txartelak 2023ra arte erabilgarriak izatea eta Barik fisikotik Barik birtualera apurka-apurka igarotea, uneotan sortzen gabiltzan kolapsoa ekiditeko, Barik txartel fisikoaren gaur eguneko erabiltzaileei ezelako kalterik egin barik.

Izan be, horixe bera da zehaztea eta jardutea, Rico eta Lerma jaunok, BGPri herritarrei Bizkaiko tarifa-sistemari eta Bariki berari buruz emon beharreko mezu garrantzitsuenen jakinarazpena hobetzeko eskatzea ezer ez esatea dalako. Ez gabiltz zehazten, ez gabiltz jarduten, eta Ganbera honetatik horixe bera eskatu behar dogula uste dot. Nire taldekoon ustetan, handira jokatu behar dogu, erabiltzaileentzako hobekuntzak eskatu behar doguz, hobekuntza zehatzak. Zuok, barriz, txikira jokatzan zabilze, partzuergoaren kudeaketa txarra edo Garraio Partzuergoaren kudeaketa desegokia salbau gura dozue. Gure eretxiz, errakuntza hori autortu eta txartelen bizitza-zikloa luzatu beharra dago.

Baleiteke Elkarrekin Bizkaiaren proposamena nahaspilatsu samarra izatea eta zuzenketak aurkezteko aukera gitxi emotea. Lobato jaunari aurreratu neutsan, baina, gitxienez, arazo horretarako urtenbidea bilatu gura dau, erabiltzaileen eta garraio-enpresen ganean jausi ez daiten.

Amaitzeko, gogoratu egin gura deusuet Bizkaiko Garraio Partzuergoa ez dala erakunde abstraktua, nekez definitu daikeguna. Egia esan, baleiteke herritarrek lar ez ezagutzea, baina bertako beharginak Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioak dira.

Ganbera honetan, bertako Kontseju Orokorreko presidentea dago, Rementeria Maiz jauna, baita bertako bokaletako bat eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria be, hau da, Gómez Viar jauna. Esandakoa hartu kontuan eta, ahal dozuela, Bizkaiko herritarren kalterako ez diran neurriak ezarri. Eso es todo. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. A continuación, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señor Lobato Pascual, portavoz de Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Ganberako generako taldeen agerraldiak entzunda eta, batez be, Gobernu Taldea osotzen daben alderdietako ordezkarien agerraldiak kontuan hartuta, erratuta egongo ahal naz, baina, gure eretxiz, gure talde politikoak gaur eztabaidara dakarren proposamenak ez dauz behar beste babes lortuko aurrera egiteko. Atxakiatzat jarten dozue gauzak ondo egiten dagozala eta bide beretik lan egiten segidu beharra dagoala. Hori Gobernu Taldearen zuzenketan islatzen da, eta euren agintaldiak betikotzen dabezan gobernu-taldeen ezaugarri bereizgarria dan ohiko immobilismoaren emoitzea da.

Zuon talde politikoetako kideak eta zuon boto-emoileak erabat errespetauta, uste dogu ez dala honelako proposamenak jorratzeko modu onena. Emon dozuezan erantzunei eta, batez be, ordezkariak emon dabezanei apur bat erreparauta, ez dogu ulertzen zer dala eta aitatu dauan Rico jaunak NANaren doakotasuna. Neure lehenengo agerraldian adierazo dodanez, txipek iraungipen-datea daukiela esateko Gobernu Taldeak oinarritzat hartu dauzan agiriak eskatu doguz. EH Bildu taldeko ordezkariak be adierazo dauan lez, iraungipen hori, agirikoa danez, dinoskuzuea baino askoz be luzeagoa izan leiteke. Agiri horreek aitatu doguz, eta, agirikoa danez, aztertu egingo doguz, eta nik neuk aztertuko dodaz, ganera. Ingeniari tekniko elektronikoaren titulua daukat, eta badakit zer dinodan. Txipa iraungi egiten dala dinostenean, jakin egin gura neuke enpresa hori zertan oinarritzen dan iraungi egiten dala esateko. Bizitza-zikloak daukaz, zer esanik ez, eta, Bizkaiko garraio publikoari buruzko datuak

be badaukaguzanez, baleiteke iraungipen hori uste dogun edo Bizkaiko Garraio Partzuergoak uste dauan baino askoz gehiago luzatu ahal izatea.

Bestetik, dinamika parlamentarioak, zuok danok badakizuenez, maltzurak izan daitezke batzuetan, eta emoitzak baldintzaten dabez, interes alderdikariak eta proposamen batzuk mahai ganean nork jarten dauzan kontuan hartuta. Jakin badakigu zein dan Ganbera honetan dagoan indar-orekea. Jakin badakigu Gobernu Taldeak uste dauana baino ez dana onartuko. Horren jakitun, ez dot neure agerraldia amaitu gura, beti adierazo dogun lez, legegaldi honetan gure taldea ganerako taldeakaz lan egiteko prest dagoala esan barik. Holan, asmo handikoa baizen ukatuezina dan helburua lortuko dogu, hau da, bizkaitarren bizitzea hobetzeko moduko adostasunak erdiesten ahalegintzea. Ekimen parlamentarioak nork sinatzen dauzan izango da begiratuko dogun azkena, eta ekimen horreen eukiari erreparauko deusagu. Behin baino gehiagotan adierazo deusugu, Viar jauna, eztabaidea, eztabaidea eta akorduak. Horixe bera da Bizkaiko gizarteak eskatzen deuskuna, eta batzuok horretarako konpromiso inplizitua hartu genduan, geure eserlekuak hartzean.

Eztabaidara dakargun proposamenari barriro eutsita, adierazo barri deusuedanari jagokonez, nire ustetan ondo baino hobeto dakizue ekimen honetan eskatzen dana ezelako arazo barik onartu daikiena Bizkaiko Foru Aldundiak nahiz Bizkaiko Garraio Partzuergoak. Horrezaz ganera, badakizue proposamen horrek bat egingo leukeana Bizkaiko Foru Aldundiak kalidadeko garraio publikoaren alde egiten ei dauan apustuagaz. Halanda be, emoten dau bertako taldeek ekimena babestuko ez dabela. Guretzat tamalgarria da zuok erabagi hori hartu izana edo hartzeko asmoa eukitea. Era berean, Bizkaiko herritarrentzat be izango da tamalgarria, harrituta dagozala eta ados ez dagozala adierazo deuskuelako, Bariken barriztapenaren deskalabrua zelan kudeatu dan ikusita. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Rico Lezama, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **RICO LEZAMA** jaunak: Eskerrik asko. Ni neu harri eta zur ixten nozu ahal danik eta doinu zein jarrera onenez, eta harrituta ixten nozu esaten deustazunean agiriak eskatu dozuzala aztertzeke, baina hori holan dala ukatzeko ekimena ekarri deustazunean. “Nik agiriak eskatu dodaz, oraindakarren ez daukadaz, aztertuko dodaz, baina ekimena ekarri dot, eta hona igon naz txartelek daukien iraunkortasuna hori dala ukatzen”. Ondo da. Era batera lan egitea da, eta guk, sozialistok, beste era batera lan egiten dogu. Gure eretxiz erabilgarriagoa da datuak eukitea eta, datuak aztertutakoan, ekimenak proponidutea. Norberak erabagiten dau zelan lan egiten dauan. Dinamika parlamentarioei jagokenez, Lobato jauna, nire aldetik, ederto. Zure esanetan, dinamika maltzurren ondorioz, berton Gobernu Taldeak daukan gehiengoarenak bakarrik urteten dau aurrera.

Lehenengo eta behin, dinamika maltzurra ez, demokrazia, eta norberak gura dauanari emoten deutso botoa. Alderdi politikook daukaguzan emoitzak daukaguz, eta adostasuna lortzen dogu edo ez dogu adostasunik lortzen.

Bigarrenez, hortxe daukazun beste dinamika maltzur bati buruz berba egingo deusut: erdibideko zuzenketarako aukerea. Talde batek ekimena eta beste talde batek zuzenketea aurkezten dauanean, ohitura parlamentarioa da taldeak bere ekimena aurrera atera gura badau talde zuzenketagileakana hurreratzea eta gaia erdibideratzen ahalegintzea. Gaur, zuok neugaz berbetan noiz etorriko zain nago oraindakarren, eta Lerma jaunari be berbera jazoten jakola uste dot, seguruenik ezinezkoa izango zan adostasun-puntua lortzen ahalegintzeko. Edozelan be, jakina, ez niri berba egin dinamika parlamentarioei eta borondateari buruz, geugaz berba egiteko gure bulegoko atea jo be egin ez dozunean, puntu horretan adostasunik lortu daikegun ikusteko.

Izan be, ez litzateke izango Alderdi Sozialistek eta EAJk beste talde batzuekaz lortu daben lehenengo akordua, ezta azkena be. Hain zuzen be, osoko bilkura honetan bertan baten bat emongo dala uste dot. Halanda ze, horrek be herren egiten dau. Nik neuk lehen esan deusut. Méndez jaunak esan dau, webgunean agertzen diran galde-erantzunei buruz berba egin dau. Egia esan, beharbada txarto azaldu dot, edo txarto ulertu deustazu. Egunkariko barri labur hori atera dodanean, hain zuzen be, epea luzatu zala esan gura neban, eta hasieran ez zan 7 urtekoa. Beharbada, txarto azaldu dot, txarto esan dot, baina horretarako zan. Luzatu egin zan. 2015. urteko egunkariko barri laburra da, zeuk aitatu dozun sasoikoa. Edozelan be, BGPren galde-erantzunetara joten badogu, eta, onartzen badeustazu, zehaztasun-presuntzinoa emongo deusat eta emon egingo deusat, idatzi egiten dau, eta edozein herritarrek, zeuk be bai, ikusi eta irakurri egin daike iraungipenak 7 urtekoa izaten segiduko dauala. Izan be, Barik txartelak barruan daroan txiparen fabrikatzaileak 10 urteko gehieneko bizitza teknikoa emoten deutso fabriketan danetik. Epealdi horren ganetik, ez da ziurtatzen ondo ibiliko danik. Bizkaiko Garraio Partzuergoaren eretxiz, txipak igaroten dauzan epealdiak eta etapak kontuan hartuta, sistemearen segurtasuna eta egonkortasuna bermatzeko, jenteari saldu ostean 7 urteak igarotakoan, txartelek sistematik urten behar dabe. Hori holantxe azaltzen da BGPren webgunean.

Egia esan, egunkariko barri labur hori berori aztertu ezker, 2015. urtean baegoan, eta Méndez jaunak esan dau eta egia da, baegoan eztabaida hori: 10 urte iraun daikien ala ez. 2015. urtean, BGPren eretxiz, txip horri emoten jakon suntsikortasunaren arabera, sistemearen jasangarritasuna 7 urtekoa zan 2015ean. 2015. urtean.

Prezioari jagokonez, prezioa beti izan da 3 eurokoa, eragiketea hasi zanetik, eta holantxe azaldu da ordenantzetan. Garestia edo merkea izan daiteke norberarentzat, baina argi eta garbi dago doakoa ez dana. Euskarria ez da doakoa. Nonork ordainduko dau, baina esan barik doa doakoa ez dana, eta horregaz ados egongo garala uste dot. Benetan, niretzat tamalgarria da talde proposamengileak talde sozialistearen atea jo ez izana, adostasuna lortzeko. Halanda be, badinotsut seguruenik lortuko ez genduala, adostuko ez genduala, erdietsiko ez genduala, baina ez deusut esango hori holan izango zanik atea jo ez dozulako, hori fariseismo hutsa izango zan-eta. Ez dot holakorik egingo. Dana dala, jakina, ez niri dinamika maltzurri buruz berba egin, puntu honen ustezko erdibidea be bilatu ez dozunean. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Lerma Mentxaka, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, de nuevo. Intentaré explicar una serie de ideas. Hasiera batean, nire eretxiz, jatorrizko mozinoko bertako idea batzuk nahikoa erratuta dagoz. Hori dala eta, gure ustetan, ezelako zalantza barik, ezin zan onartu, eta alternatibea proponidu zan. Ezelako zalantza barik, berbarako, idea moduan proponiduten da gaur eguneko txartelen orde iraungiten diran beste batzuk jarri daitekezan aztertzea. Nire uste apalean, idea hori erabateko errakuntzea da, ingurumenaren ikuspegitik nahiz bulegoetara bertara doan jente-aldrearen kudeaketearen ikuspegitik. Hau da, gaur egun erabilerea daukien txartelak eurak mugaegunera arte, iraungipenera arte, erabilerarako zehaztutako mugaegunera arte erabilteko ahalegina egin beharko da. Ez, hain zuzen be, une honetan bertan erabilteari ixtea. Erabateko errakuntzea izango litzateke, ingurumenaren ikuspegitik be bai.

Bestetik, honako hauxe be bada berbabide: erabileratik kanpo geratuko dan txartelaren eta barriaren artean saldoak transferiduteko epemugea kentzea edo bezeroen arretarako lagunen edo bulegoen kopurua handitzea. Egia esan, nahikoa erraza da saldoa transferidutea. Badago saldoa berriztapenaren unean bertan transferiduterik, eta badago metroko

edozein bulegotan transferiduterik, ez dalako ezinbestean bezeroen arretarako bulegoetara jo behar. Nahikoa eragiketa erraza da. Ganera, herritarrek txartela barritzen dabenean transferidutea da normalena, edo, hain zuzen be, barritu gura izan ez dauan nonork lau hilebete, hain zuzen be, lau hilebeteko epea dauka, saldoak gura dauanean eta beharrezkotzat jotzen dauanean transferiduteko. Errakuntzea izan arren, guzurra da, adierazo egin gura dabe Madrilgo Erkidegoan txartelak ez dirala iraungiten, iraungipen-datarik ez daukiela, eta guzurra da erabat. Persona ugari txartel kargagarria da, eta 10 urteko iraupena dauka. Madrilgo Garraio Partzuergoaren webgunean. Madrilgo Garraio Partzuergoko garraio publikorako txartela. Webgunean dago ikusgai.

Era berean, aitatu egin gura dot niretzat apur bat larregizkoa dala txartelak barritzeagaitik 5 milioi euro lortuko dirala esatea. Hori itaunaren beraren egunean esan zan, 1,8-1,9 milioi txartel ei dagoz bueltaka. Nik ez dinot txartel asko jaulki ez diranik, baina ez dot uste txartel-kopuru hori abian dagoanik. Ondo erabili behar dira datuak. Seguruenik, barriztapenak izango dira horreek. Batez beste, ia-ia 2na txartel eukiko geunkez bizkaitarrok. Ez dot uste holan danik.

Hori dala eta, nire ustetan, jatorrizko mozinoan proponiduten diran gai askok ez daukie zentzunik, aurkezten dauanaren helburua bera izan ezean. Bere esanetan, nahaspilea eta egonezina egon dira. Mozinoak ez dauka zentzunik, betibe, mozinoa aurkezten dauanaren helburua bera ezinegon hori eta nahaspila hori sortzea ez bada.

Prezioaren kostuari jagokonez, eretxi guztiak errespetauta, faktore subjektiboa dalako azkenean, garestia dan edo merkea dan, alde horretatik erabateko itxurakeriaz jokutzen zabilzela uste dot.

Azkenik, garrantzitsua dala uste dot, berez garraio-sektorea ezagutu be egiten ei dauan batzarkideren batek lana egin daualako eta gaur eguneko teknologiei, euren erabilera-mugei buruzko datu teknikoak ekarri dauzalako. Ez dot esango "Nora zoaz? Sagarrak dakardaz" danik. Berbetan gabilzanari buruz gabilz berbetan, baina ez da zehatz-mehatz une honetan berbabide daukaguna. Méndez jaunak azaldu egin deusku, lizitazinoren baten ezaugarri teknikoak azaldu deuskuz edo 2018tik 2022ra edo 2019ra egin beharreko erosketaren batenak, lizitazinoaren edo esleipenaren edo 2022ren ostean. Abian jarriko diran 2022ko txartel horreek 7 urteko bizitza teknikoak baleukie, 2029-2030 eukiko geunke berbabide. Ados, ez gagoz 2030ean, 2020an gagoz, eta 2013an abian jarri ziran txartelak daukaguz berbabide, eta ez dakit zein diran euren ezaugarri teknikoak. Halanda ze, Garraio Partzuergoko teknikariek igorritako informazioagaz fietan naz. Horrezaz ganera, zentzunezkoa da txartelok erabilteko iraungipen-datea, mugea ezartea eta, bizitza teknikoak amaitu dalako, mugaeguneratzean benetan huts egin daikien baino lehenagokoa izatea. Zentzunezkoa da egitea, erabateko nahaspilea izango litzatekealako txartela abian jarri ahal izan daben herritar guztiei gitxi gorabehera 2020ko data berberetan iraungitea abian daukiezan txartelak. Aurretiazko data ezarri beharra dago, eta, bertan, azkenean, apurkako iraungipenak be zehaztu beharko dira egutegian, jaiotegunaren arabera. Hori personalizautako txartelen kasuan; eta, personalizau bakoen kasuan, mugaegun desbardinak kontuan hartuta. Ezin dogu esan, alde horretatik, behintzat, autortu egin behar dozue Garraio Partzuergoak plangintza egokia egin ebana, txartelen harpidetzea egiteko eta kontrolatuko, baina ez bizitza teknikoak baizik...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Disculpe, señor Lerma Mentxaka, vaya terminando. Muchas gracias. Señor Andrade Aurrecochea, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Ez neukan barriro urteteko asmorik, baina, agerraldiak ikusita, derrigorrezkoa da.

Sentiduten dot. Nire eretxiz, eztabaidea gurata desbideratzen dago: txartelak iraungi behar diran, iraungi behar ez diran, txipak, ez-txipak teknologia hobea diran. Nire eretxiz, herritarrak kezkatuta dagoz, lehenengo eta behin, sortutako eragozpenakaitik eta sortutako nahaspileagaitik. Nahaspilea, Lerma jauna, ez dau oposizinoak sortu. Hemen sortu dan nahaspilea ez da Zaldibarrekoa lakoa. Kexu dan jenteak sortu dauz nahaspilea eta krisia. Herritarrak dagoz nahaspilatuta, eta Batzarretara ekarri dan gaia jazo danagaitik sortu da, txartelak barritzen joan beharra dagoanean gure herrietan jazoten dabilenagaitik sortu da. Ez da sortu, eta ez ahalegindu nahaspilea oposizinoko taldeek sortu dabela esaten, Zaldibarren jazoten dan lez, dinozuen lez, berbera. Badago nahaspilarik, eta, hemen, batzar-areto honetan islatzen da.

Zuok dinozuenez, plangintza egokia egin da. Ez, lehen be esan dot. Bai, txartelek iraungipena euki daikie, baina, iraungi egingo dirana jakinda, plangintza egokia egin daiteke edo bulego barriak edegi, behargin gehiago jarri, baliabide gehiago jarri, iragarkiak egin..., eta ez da holako ezer egin. Zezenak atrapau gaitu. Txartelak iraungi egingo dirana jakinda, zezenak atrapau zaitue. Izan be, esan dodan lez, biztanleen arretarako zerbitzua nabari areagotu eitekean, eragozpen horreek ez eukiteko. Era berean, lehen be esan da ezin dala doakoa izan, 3 euro izan diralako. Zergaitik ez 1? Zergaitik ez 0,5? Zergaitik ez dira 6? Nik ez dot zera dinoan ezelako justifikaziorik ikusi: "hara, modu fisikoan derrigorrean aldatu behar dozuezan txartel barrien prezioa 3 eurokoa da, eta horrexegaitik kobretan deusuegu". Ez dot holakorik ikusi. Oraindakarren, ez dot horren inguruko ezelako justifikaziorik ikusi. Arabere gehiago, ingeniari teknikoa naz, baina jakin badakit holako txipa daroan txartelaren prezioa 3 eurokoa ez dana. Jakin badakit diru hori beste helburu batzuetarako erabiliko dozuena, eta, esan dodan lez, Gobernu Taldearen zilegizko ideia izan daiteke, baina ondo be egongo litzateke esatea: "diru hau aterako dogu, berreskuratzeko, beste inbersino batzuetarako". Esan zeinkien. 3 euroak, ostera, ez dira txartelerako, eta, barrero dinot, 3 kobretan dozuzan lez, 0,5 euro, 1 edo 28 be izan daitekezala uste dot. Ez dozue justifikau, baina derrigorrezko betebeharra danez, iraungipenagaitik, behin eta barrero dinot doakoa izan beharko litzatekeala. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Para concluir con el turno de réplica, señor Méndez Urigoitia, portavoz de EH Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo. Eskerrik asko, Lerma jauna, egin dodan lana aitzearren, baina, tira, balioa kentzearen be ez da. Dana dala, uste dot jakingo dozula eta Ganberaren ganeratikoak be bai, eta, ostantzean, neuk esango deusut orain, nik ez daukadana arduraldi osorik Bizkaiko Batzar Nagusiotan, eta halanbeharrean edo ez, lantoki daukadan enpresearen jaubea BGP da. Halanda ze, nahikoa ondo dakit zein diran erakunde horren lan-moduak, eta, nire eretxiz, berton azaldu diran arazo biak daukazuz.

Batetik, unean uneko kasu honetan, ez da plangintza egokirik egin, zuk hori esan badozu be, eta egiaztatu egin dogula uste dot. Bestetik, nire ustetan, oso komunikazino urria egin da alde horretatik. Nire nagusiak badira be, ez dau esan gura agirian jarri ezin dodanik txarto egiten dabenean azpimarratu beharrekoa.

Niretzat, azken erabiltzaileakaz hartu-emonik ez eukitea da Garraio Partzuergoaren arazoetako bat. Garraio Partzuergoa, lehen esan dogun lez, erakundea da, baina Ugasco kalean daukan egoitza zehaztu eta ezarten dauz gero garraio-zerbitzua emoten dabene presentzako arauak. Hori dala eta, bezeroakandik asago dagoz, eta ez dakie zein diran benetako preminak eta ez dabe inputik jasoten. Zer falta jake? Hondarrera jastea eta ondorio horreek benetan ikustea. Gaur Escalante jaunak orain dala urte asko Ganbera honetan Herri Batasunako batzarkidea izandako Perico Solabarriaren kamisetea soinean daroala eta, bide batez esan gura neuke hondarrera jatsi beharrean basea zapaltzea terminoa erabili daizuela eta benetan ikusi daizuela zer jazoten dan bezeroen arretarako bulego horreetan, erreklamazino horreek

izebergaren punta baino ez dira-eta. Andrade jaunak esan dauan lez, nahikoa dauka jenteak 20, 30, 40, 50 minutuz erreskadan itxaronda, gero erreklamazino hori aurkezten denpora gehiago inbertiduteko. Komunikazinoan hobera egin gura badogu, aholku bi emoten ausartuko naz. Erdibideratu ez dodala be ezin deustazue esan, baina, nire eretxiz, partzuergoak ustiatu behar ebazan baina ustiatu ez dauzan giltzarri bi dagoz. Batetik, txartela. Neurea ekarri dot, boltsikoan daukat. Ez dot diru-zorroa ekarri, diputadu jaunak egin eban lez. Aurreko aldea arpegi barik, kasu honetan, Andrade jaunak dinoan lez; eta, atzeko aldean, el número de tarjeta, txartel-zenbakia. Lehenengo digitu biak fabrikazino-datea dira, iraungipen-datea. Digitu bi horreei 7 gehitzen badeutsegu, ez da inoiz data hori baino txikiagoa izango. Halanda ze, partzuergoak hauxe esan baleu: “zeure txartela hartu, bueltea emon eta 7 gehitu”. Nire kasuan, 14 da. Gura izan ezkerro, zuon txarteletan egiaztatu daikezue. Nire txartela ez da inoiz 2021a baino lehen iraungiko. Hori dala eta, ez naz inongo bulegora joan beharko, eta ez dot ezer egin beharko. Horixe da ondo egitea, edozein aplikazino baino hobeto, eta edade bateko pertsonak edo teknologia barrietan oso trebeak ez diran pertsonak egin eikien. Bueltea emon eta egiaztatu. Era berean, askoz be errazago be egin eitekean. Hasierako zenbakia 12 baino handiagoa bada, ez kezkatu, ez dozu ezer egin behar. Ez sortu ikararik, ez sortu kolapsorik bulegoetan.

5 milioiri buruz berba egin dozue. Ez dakit 5 diran ala 4 diran, ezin izan dodalako egiaztatu. Halanda be, lehen esan dodan lez, zehaztapenetan dator partzuergoak beste operadore batzuen bidez 3 euroan saltzen dauan Barik 0,80-1 euro kostetan jakola erosketakopuruaren arabera, betibe, rugbyetarako, eurokopetarako edo beste edonolako ekitaldirako personalizatu gura ez badoguz, orduan 1,15era edo 1,50era igoten dalako prezioa. Hornitzaile batzuk dagoz. Orriak begiratu baino ez dago. Horixe da bere kostua. Zergaitik kobretan da 0,80 3raino? Nonork justifikatu beharko leuke.

Beste mezu bat be igorri eitekean, eta Andrade jaunak bidaia aurreztuko eban. Zure txartelak arpegirik ez badauka, hau da, arlo teknikoan anonimoa esaten dana, ez zara inongo bulegora joan behar. Bidaia aurreztu, edozein bulegotan egin daikezu-eta. Partzuergoak mezu hori igorten badau, informazino hobetzen dogu barriro, eta Andrade jauna ez zan erreskadan egon beharko, badaukalako metroko edozein geltokitan beste txartel bat erosterik eta bere saldoa transferiduterik.

Zuk iraungipen-datea daroen txartel personalizatuak nabarmendu dozuz, ez, nahaspilatsua da. 2012tik 2015era arteko txartel personalizatu iraungipen-datea ez dago ondo, gero 4 urte gehiago gehitu jakezalako. 3 urte gehiago, parkatu. Halanda ze, zure txartelean datorren iraungipen-datea ez dator bat danagaz, eta, bulegoetan, errotuladore ezabatuezinaz ganetik marketan deustue hiru urte gehiagoko batura hori. Hori dala eta, nahastea sortzen da, eta, batez be, edadekoenak diran txartel gorrietan.

Amaitzeko, gure ustetan, Barik txartela baliozko euskarria izan daiteke etorkizuneko txartel bakarretarako, para el billete único. Holan izango dalakoan gagoz. Horretarako, ostera, kudeaketea bera egokia izan behar da. Honako hauxe ekidin beharra dago: kostu erantsiak edo beharrezkoak ez diran barriztapenak, prezioen igoera esponenzialak, 2018an be metroko 3. linea ailegetean emon ziranak lakoak. Txartel adimendunak albo batera itxita, uste dogu ahalegina egin behar dala adimen hori politikara eta euskarri horreen kudeaketara be eroateko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Una vez concluido el debate, someteremos a votación la moción. Votemos. Sí, muchas gracias. No es evidente que la enmienda no se ha aprobado. Muchas gracias por recordármelo. El resultado de la votación es el siguiente: votos emitidos en total, 47: 18 votos a favor, 29 votos en contra y ninguna abstención. Por tanto, no se ha aprobado la moción.

Punto tercero del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2020/0000222](#))

Autor: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Asunto: Estatuto de las Personas Cuidadoras.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2020/0000222](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (8A)

Expediente: ([11/B/20/0000783](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2020/0000222SE](#))

Egilea: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Gaia: Zaintzaileen Estatutua

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2020/0000222SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (8A)

Espedientea: ([11/B/20/0000783](#))

Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Duque Santacoloma, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Buenos días a todos/as. Estoy viendo que han aprovechado para tomarse un pequeño descanso, ya que hoy va para largo. El debate o el tema que hemos traído hoy no es nuevo en estas Juntas Generales. La semana pasada, estuvimos en un programa de una televisión local los/as representantes de todos los grupos de las Juntas Generales. En Tele7, Elena, Eneritz, Juan, Eduardo y yo estuvimos debatiendo sobre el Estatuto de las Personas Cuidadoras. La persona que presentaba nos comentó que la razón de plantear ese debate era el interés mostrado por un/a espectador/a del programa y para aclarar dudas. Nos dijo que dicho/a espectador/a recibió una de esas 21.000 cartas enviadas por la Diputación y que le habían surgido muchas dudas.

A decir verdad, leyendo esa carta, nos parece lógico que le surjan esas dudas. Quería leérsela, es decir, la carta enviada por la Diputación a los hogares, a esos 21.000 hogares. Quiero leerles lo que se dice en esa carta. “Jagoleen Estatutuaren eta Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako familia-giroko zainketetarako prestazino ekonomikoaren arabera, autortu egiten jatzu jagolea zarana. Hori dala eta, Foru Dekretu horretan autortutako atsedena hartu ahal izango dozu. Ganera, egoitza-zerbitzuagaz lotutako prestazino ekonomikoari buruzko arauketa barria emon da argitara”.

Ese era el objetivo de esas cartas. Su objetivo era poder ejercer el derecho al descanso reconocido en el Decreto Foral. Informar al respecto a todas esas familias. Tal y como en el anterior Pleno, debate nos señaló el diputado Sergio Murillo, también era el objeto de este Estatuto reconocer sus derechos, lo dijo usted, Sergio, y reconocer también su trabajo. Lo que significa que reconocen la labor que desempeñan estas personas, a pesar de no estar remuneradas, imagino. Si la respuesta es afirmativa, tal y como nos dijeron, si uno de los objetivos de este Decreto es reconocer ese trabajo, y, por ello, reconocer su derecho al descanso, nos preguntamos si realmente se trata de un derecho. En el Estatuto de las Personas Trabajadoras se recoge el derecho al descanso, y se recoge así, como derecho. Sin entrar a debatir sobre los descansos, saben que normalmente los descansos o vacaciones de las personas trabajadoras son de 30 días, y, en este caso, son de 15 días. Sin embargo, sin entrar en ese debate, mientras las personas trabajadoras disfrutan de ese derecho al descanso, no pierden su sueldo por tomarse ese descanso. Sin embargo, en el caso de las personas cuidadoras informales, a pesar de estar reconocido como derecho en este Estatuto, si solicitan esos 15 días de descanso, pierden la proporción de esos días en la prestación para cuidados en el entorno familiar. En la carta no mencionan nada a ese respecto.

Esan dodan lez, Beharginen Estatutuan eskubide moduan be azaltzen da oporraldi edo atsedenerako epealdi hori. Esan dodan lez, oro har, beharginena 30 egunekoa izaten da, eta, kasu honetan, 15ekoa da. Dana dala, eztabaida horretan sartu barik, hausnarketea egin gura genduan. Beharginen Estatutuan, atsedenerako eskubidea autortzen da, baina atsedenerako eskubide hori ez dago lotuta euren soldatearen edo ordainsariaren etenaldiagaz. Kasu honetan, bai, ostera, nahiz eta Jagoleen Estatutuan atsedenerako eskubide moduan autortu, 15 atsedeen-egun horreek hartzen dabezanean, familia-giroko zainketeagaz lotuta dagoan prestazinoa gelditzen dalako.

Sin embargo, les han dicho en esa carta que pueden beneficiarse de ese descanso, cuyos costes contribuiremos a cubrir mediante una prestación económica vinculada al servicio residencial temporal, cuyo importe le será debidamente notificado. Holantxe azaltzen da gutunean. Badaukie urtean 15 eguneko atsedena hartzetik, eta horren kostuak estaltzen lagunduko deusegu aldi baterako egoitza-zerbitzuagaz lotutako prestazinoaren bidez. Izan be, behar dan lez jakinarazoko jake zein dan zenbatekoa.

Nos surgen dudas y preguntas, e imagino que nuestras dudas son similares a las de esas personas. Las preguntas son respecto a contribuir a cubrir con esa prestación que percibirán. Dicen que ese importe que van a percibir cubrirá todos los gastos o una parte y que garantizan una plaza residencial al cien por cien, ¿sí o no? Si no garantizan una plaza, percibirán esa prestación vinculada al servicio. Las 21.000 personas que han recibido esta carta tendrán estas preguntas y otras muchas. Entre esas otras preguntas, queremos preguntarles qué es lo que ocurre en el caso que la Diputación no garantice una plaza residencial. Zer jazoten da Aldundiak egoitza-plazarik bermatzerik ez daukanean? Dicen que percibirán un importe que les será notificado y que no se cubrirán los gastos derivados de una plaza en una residencia privada. Deberá poner dinero de su bolsillo para abonar la diferencia de la plaza en una residencia privada, y, además, perderá una parte de la prestación vinculada al cuidado en el entorno familiar.

Hau da, plazea bermatzen ez bajake, egoitza-plaza pribadura jo beharko dabe, eta, agirikoa danez, Aldundiak emongo deusea ez da nahikoa izango egoitza pribaduko plazearen kostua ordaintzeko. Se me está agotando el tiempo, por lo que lo dejaré aquí.

El Sr. **VICEPRESIDENTE SEGUNDO/BIGARREN LEHENDAKARIORDE** jaunak: Muchas gracias, señora Duque Santacoloma. Ahora, el señor Andrade Aurrecochea del Grupo Mixto-PP Bizkaia.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu jauna. Neu be egon naz Tele7ko eztabaida interesgarri horretan. Bertan, alderdi guztietako ordezkariok luzaroan eztabaidatu genduan Jagoleen Estatutuari buruz, eta ikustea gomendatzen deuseat jenteari, oso interesgarria izan zalako. Nire ustetan, oso argigarria izan zan, bertan gengoan alderdi guztiok geure eretxia emon gendualako, behar dan lez eta modu egokian, nik uste. Bat gatoz proposamengileakaz Jagoleen Estatutuaren inguruko kezka daukiela dinoenean. Mozinoan esaten danaren aurka, eztabaidea ez dau Bilduk, EH Bilduk mahai ganean jarri. Mozinoan esaten danez, eztabaidea zabaldu egin zan, eta ez dot uste eurak izan diranik mahai ganean jarri dabenak. Izan be, nire eretxiz, eztabaida nagusia Gizarte Ekintza Batzordean egin zan 2019ko zezeilean-edo, oker ez banago, eta Jagoleen Estatutuaren garapen horretarako oinarri garrantzitsuak ezarri ziran. Gure alderdiaren arauaz besteko proposamena egin zan, eta Alderdi Sozialistek zein EAJk adostu eben. Bertan, niretzat funtsezkoak diran ekimenak hartu ziran, eta, horren arabera, astiro-astiro, nik uste, joan da garatzen, baina badoa garatzen. Hori garrantzitsua da. Nire eretxiz, danok gagoz kezkatuta, esan dodan lez, Jagoleen Estatutuaren garapen horregaitik.

Badakit gaur ekarri deusuedan proposamena apur bat aurreratuta doala behar danari begira. Danok dakigu eta danok ados gagoz Bizkaiko bizi-itxaropena Europako batezbestekoa baino pare bat urte handiagoa dala esaten danean. Danok bat gatoz geure edadekoak gero eta era egokiagoan jagon behar doguzala esaten danean. Hara, 2019ko zezeileko aktea berrikusi dot, eta, bertan, aitatu egiten neutsuen 18 jagole, 18.000, egozala. Murillo jaunaren agerraldian bertan, lehen egunean 21.000 zirala aitutzen genduan. 2019ko zezeiletik 2020ko zezeilera arte, euren familiak jagoten dabezan 3.000 lagun gehiago dagoz. Urtebetean, 3.000 lagun, asko-asko dala uste dot, eta, horren ondorioz, hausnartu beharrean gagoz.

Era berean, egia be bada, eta gero azalduko dozuelakoan be banago, personen %80k gurago dabena euren etxean egon eta ez edadekoentzako egoitzan.

Lehen egunean azaldu zan atsedenerako programeari buruz gaur proponiduten zan gaiari jagokonez, diputadu jauna, eta 21.000 eskabide bialdu ziran. Hona hemen horri buruz daukadan lehenengo hausnarketea: 41 lagunek bakarrik, oker ez banago, agerraldi haretan, eta, gaur, beharbada, datu eguneratu gehiago emongo deuskuzue, eskatu eben atsedenerako programa hori, hau da, %0,195. Oso-oso jente gitxik eskatu dau atsedenerako programa hori.

Telebistako eztabaida horretan, egia esan, gauza biak inoazan persona baten itaunaren barri emon euskuen: egoitzan lekurik egoan eta zergaitik eten behar eutsien prestazinoa, atsedenerako eukan personea egoan bitartean, titularrari kostetan jakolako prestazinoa. Hara, batzorde hareetan jazo zana berrikusita, ikusi egiten dot guretzat kezagarria zala, eta gaur be aitatu egin da, egoitzetan plazarik egoan, lekurik eukiko ete genduan, egoitzea bermatzen zan.

Uste dot Sergio Murillok, diputaduak, lehen egunean esan ebala atsedenerako programa horretarako plaza batzuk gorde zirala. Juanek esan eban eztabaidan. Ez dot gogoratzen, baina, begira, hausnartu egin beharra dago, hori 41 lagunek bakarrik eskatu dabela ikusita, beharbada arazoa ez dirala egoitzak. Izan be, 41 lagun bakarrik badira, pentsau neinke beharbada gu egoitzan pentsetan gagozala atsedenerako programa hori emoteko orduan, baina baleiteke jenteak jagoten dauan personea egoitza horretara eroan gura ez izatea. Beharbada, ez dau oporretan joan gura eta egoitza batean sartzea, bere senidearen bizitzearen kalterako izan daitekealako. Beharbada, arazoa ez da egoitza hori, beharbada atsedenerako programa hori pazientea, zainketea, jagondako personea etxean dagoala emon behar dalako. Ostantzean, baleiteke prestazino hori murriztea izatea arazoa.

Era berean, ez dakit diru-kontua dan ala diru-kontua ez dan. Nire eretziz, denporeak aurrera egin ahala ikusi beharreko gaiak dira. Horrexegaitik dinot ez dogula proposamen honen aurkako botoa emongo. Abstenidu egingo gara, aurrera egiten daualako. Dana dala, uste dot goiztarregia dala, hor emoten diran urtenbideak baleitekealako zuzenak ez izatea. Hau da, ez dakit zergaitik esan behar dogun danak foru-egoitzara, egoitzara joan behar dirala. Baleiteke arazoa horixe izatea, edo ez dakit prestazinoaren arazoa dan. Nire eretziz, apurka-apurka egiten dau aurrera jagoleakaz ezarritako alkarrizketa horretan. Arazo hori topau daikegu eta ez eutsi. Beharbada, ez da guk uste baizen erraza plazarik dagoan ala plazarik ez dagoan ikustea. Izan be, baleiteke arazoa beste alde batetik etortea. 41 lagun baino ez. Horren ondorioz, hausnartu beharrean gagoz danok. Baleiteke arazoa beste era bateko faktore batetik etortea, eta danon eretziz gure jagoleentzako urtenbidea izango zan atsedenerako programa hori holakorik ez izatea, zelan dagoan atonduta kontuan hartuta.

Hori dala eta, abstenidu egingo garala uste dot. Eztabaidea ondo dagoala uste dot. Nire eretziz, hausnarketeak etorkizuneko eredurantz eroan behar gaitu guztiok. Ganera, hausnarketeak be guztiok eroan behar gaituanez, geuk be laguntzaile personalentzako prestazino ekonomikoen eguneraketea ekarriko dogu Ganbera honetara. Aldundi honek kontratauta dagozan soldatapeko jagoleei emoten deuten prestazinoaren beste zati bat dago. Lan hori

egiteko, lanbide arteko gitxieneko soldaten eguneraketa barriagaz geratu dira, prestazinoak zaharkituta geratu dira.

Halanda ze, horren ondorioz, etorkizunean ikusiko dogu, laster osoko bilkuren areto honetan, horren ondorioz, beharginak eratzu daitezke, Aldundiko laguntzek ez dabelako soldatea estaltzen. Halanda ze, gure ustetan, prestazino horretako gitxieneko soldatearen arabera eguneratu beharko da. Uste dot gaur egunera arte 800 euroraino ailegetan dala. Hausnarketa hori egin beharko dogu danon artean. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Euskal Herria Bildu trae hoy esta moción relativa al Estatuto de las Personas Cuidadoras derivada de una interpelación.

En general, desde el grupo Elkarrekin Podemos creemos que son unas propuestas cuyo objeto es mejorar el Estatuto.

Por ello, nos parecen adecuadas las propuestas que se plantean para garantizar el descanso de las personas cuidadoras:

Como por ejemplo, garantizar suficientes plazas residenciales en las residencias de la Diputación.

Respecto a ese tema, en caso de que se aprobara esa propuesta, quisiéramos dar una respuesta a las características y al perfil de las personas en situación de dependencia.

Es decir, las personas usuarias de distinta edad y de diferentes dependencias, actuales y futuras, no pueden compartir las residencias para personas mayores.

Kontuan hartzen doguz, kontuan be hartu behar doguz edadebakoak jagoten dabezan familiak. Egia esan, Andrade jaunak esandakoagaz be bat gatoz: zergaitik ez emon atsedean hori euren etxean? Ondo baino hobeto egin daiteke.

Bestetik, familien atsedenerako eta arnasketarako epealdian familia-giroko zainketarako prestazino ekonomikoari eustea proponidutea be egokia dala ikusten dogu, Foru Dekretu honetan adierazoten dalako gaur eguneko errealidadearen arabera gizarte-zerbitzuetako eragileztat hartu behar dirala jagoleak.

Halanda ze, konpromiso horregaz eta autortza horregaz bat egin gurean, prestazino ekonomikoari eutsi beharko litxakio, eta, horrezaz ganera, beste era bateko eskubideak be autortu beharko litzatekez, persona horreek, gure eretxiz, zainketen arloan lan egiten dabelako eta hori autortu egin behar dalako.

Senidetasunaren eskakizunaren salbuespenen aldaketea aitutzen dauan hirugarren proposamenari jagokonez, esan be egin beharra dago gure eretxiz egokia dala familia-eredu barri horreek eta lehendik dagozan alkarbizitza-eredu barri horreek kontuan hartzea.

Alde horretatik, nabarmendu egin gura dogu zainketetako lanak mendekoen senideek ez eze, oro har familiarik kanpoko andrea be izaten dan jagole nagusiak be garatzen dauzala askotan.

Elkarrekin Bizkaiaren ustetan, Foru Aldundiak persona horreek jagole nagusizat zeozelan hartzen ez dauzanez, euren ezegonkortasun-baldintzei eusteko eta sustatzeko prozesuko konplizea be bada, zeozelan esatearren.

Azkenik, Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Mahaiak berrikusteko proposamenari jagokonez, eskubidearen, autortzearen, udalakaz koordinau beharreko prestakuntzearen eta, era berean, kasuko koordinatzailearen inguruko bitasunak saihesti gurean, egokitzen be jotzen dogu proposamena, edozein kasutan arlo instituzional desbardinaren arteko bitasunak eta koordinazio-faltak ekidin ahal izateko.

De todas maneras, como he dicho, a pesar de creer que estas propuestas mejoran el Estatuto de las Personas Cuidadoras y, por tanto, las condiciones de las personas en situación de dependencia, desde nuestro grupo no podemos olvidar que por parte de la Diputación Foral, con el Estatuto de las Personas Cuidadoras, se está impulsando un modelo de cuidados muy cuestionable.

Esta Diputación Foral, como manifestó en la presentación del ESTATUTO de las Personas Cuidadoras, la Diputación pretendía ser un referente en los cuidados equiparándose a Finlandia en el nivel de cuidados.

A nuestro entender, aún queda mucho para que la Diputación Foral sea un referente en este ámbito, si continuamos creyendo e impulsando que los cuidados son responsabilidad de las familias. Para que se entienda, dejar los trabajos de cuidado en manos de las familias supone dejar los cuidados en manos de las mujeres, puesto que somos nosotras las que desarrollamos las labores de cuidado.

Halanda ze, estatutu honek zainketen feminizazioa sendotzen dau. Horrezaz ganera, beste idea bat be indartzen dau, hau da, zainketak garrantzitsuak ez dirala eta baliorik ez daukiela.

Izan be, zainketen balioa autortu gura bazendue, behargintzat hartuko zeunkiez andra horreek.

Soldata duina eukiko leukie eta ez prestazino ekonomikoa, onenean 400 eurokoa izan daitekeala kontuan hartuta.

Gure eretziz, estatutu honek enpleguak oso-oso baldintza ezegonkorretan sortzeko eta eusteko prozesua bultzatzen dau. Hori guztia gitxi balitz, maltzurkeriaz erabilten da personek non jagotea gura daben erabagiteko aukerea daukiela adierazoten dauan argudioa.

Hori argitu egin behar dala uste dot. Izan be, personek zainketak euren etxean jaso gura dabezala erabagi arren, ez da instituzinoen erantzunbeharra desagertzen. Instituzinoak dinot, zainketak erantzunbehar soziala, danon erantzunbeharra dirala kontuan hartuta.

Agirikoa danez, ados gagoz personeren erabagia errespetau egin behar dala esaten danean. Kasu honetan, oster, funtsezko aldea daukagu Foru Gobernuagaz, hau da, guk geuk zainketak ESKUBIDEA dirala uste dogu. Halanda ze, erantzunbehar publiko hori betearazo beharra dago, eta instituzino publikoak dira ardurapean hartu behar dabenak, baita familiareren etxean bertan be, personek zainketak bertan jasoteko erabagia hartzen badabe.

Gure ustetan, mendekoentzako zainketak kostu txikian “kontratetea” da estatutu honek proponiduten dauana.

La dependencia y los trabajos de cuidado se pueden abordar desde dos puntos de vista, desde el economicista y desde el social y humanista. Sin embargo, incluso abordándolos desde un punto de vista economicista, la inversión en cuidados puede convertirse en una inversión de calidad y de empleo no precario, que revertirá de manera importante en la sociedad.

Por tanto, hoy vamos a apoyar esta iniciativa, porque creemos que se mejoran las condiciones de atención de las personas en situación de dependencia, pero también creemos que es necesario que la Diputación Foral se replantee el modelo de cuidados que está implantando con este Estatuto. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Mahaiburu andrea, batzarkide jaun-androk. Lehenengo agerraldi honetan, honako hauxe egingo dot errespetuagaitik, hau da, aurkeztu jakun proposamenari erantzungo deusat. Ez dot unea erabiliko unean bertan otuten jatana esateko. Eztabaidatzea gura dauan zeozer proponiduten badau, berak gura dauana errespetetearren, erantzun egingo dot, eta zati horri baino ez deusat eutsiko. Erantzunen txandan, ostera, beste gai batzuetan sartuko naz.

Joan dan urtarrilaren 29ko Kontrolerako Osoko Bilkuran Euskal Herria Bilduk Gizarte Ekintzako diputaduari egindako itaunaren ondorioz, funtsean 4 puntutan laburtu daikegun mozino hau eskaintzen da:

1. Jagoleen atsedena eskubidetzat joten danez, Foru Aldundiaren menpeko egoitzetan horretarako behar beste plaza dagozana bermatzea.

2. Atsedeen hori hartzean, FGZPE (familia-giroko zainketarako prestazino ekonomikoa) ez etetea.

3. Ahaidetasunaren eskakizunari buruz berba egitean, 192/2018 Foru Dekretuan berrikustea ahaidetasunaren eskakizuna ez eskatzeko aurreikusitako salbuespena eta familiaren zein alkarbizitzearen arloko eredu barriak kontuan hartzea.

Azkenik, Bizkaiko Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Mahaia batzartzea, foru eta udal arloko eskumenen arteko bitasunik edo talkarik egon ez daiten.

Gizarte Ekintzako diputaduak agerraldi horretan, itaun horretan gogoratu euskunez, “edadekoen aldeko Nazino Batuen printzipioek baieztu egiten dabe edadekoek euren etxean bizitzeko aukerea euki behar dabena ahal daben denpora guztian, presino hori familiaren ganean bakarrik egon barik. Hori dala eta, laguntzea emon behar jake zainketak behar dabezan edadekoei arretearen emoten deutseenei”.

Datuen arabera, edadekoen %80k gurago dabe etxean geratzeko aukerak emotea, nahiz eta zainketak behar izan.

Guretzat ez da bardintasunezkoa zainketako betebeharrak guztiak familia-giroaren esku ixtea. Murillo jaunak gogoratu euskunez, “erantzunbehar publikoko neurri batzuk

indartu behar dira, beharrezkoa danean zainketea bera egingarria izan daiten, gizarte osoak modu kolektiboan bere gain hartu behar dauzan kontingentziak dirala kontuan hartuta”.

Gizarte osoak zainketetan daukan baterako erantzunbehar hori da, hain zuzen be, Foru Aldundiak gure Lurralde Historikoko “Jagoleen Estatutuan” egituratzen dauana.

Hori dala eta, mozinoko artikulua kontuan hartuta, gure taldekoon ustetan, 192/2018 Foru Dekretuan badago autortuta jagoleen atsedena, egoitzetako aldi baterako egotaldien bidez nahiz atsedenerako eginkizunak beteten dabezan beste zerbitzu batzuen bitartez. Faktore hori, ostera, ez da mozinoan agertzen edo ez da aitutzen.

Era berean, nabarmendu egin behar dogu urriaren 15eko 140/2019 Foru Dekretua 2020ko urtarrilaren leian sartu dala indarrean. Halanda ze, zeozertxu itxaron beharko da behar besteko ondorioak euki daizan, neurri barriak proponidu edo ezarri baino lehen.

Horrezaz ganera, mozinoko bigarren puntua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazinoen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren kontrakoa da, baina, batez be, “Ezaugarriak eta zer baldintzatan jasoten dan” izeneko 3.2.1. fitxea kontuan hartzen badogu.

Senidetasunaren edota ezkontza-ahaidetasunaren eskakizunari jagokonez, argi eta garbi itxi behar dogu estatutuan familia-eredu eta zainketa informalerako lotune-eredu barriak onartzen dirana. Ganera, Jagoleen Estatutuaren 10. artikulura jotzen badogu, argi-argi esaten da jagoletzat hartzen dana izatezko bikotekidea eta odolkidetasunaren arloko salbuespenak egiten dirana 10 urteko alkarbizitza dagoanean (artikulu horren 6. idatz-zatia). Arabere gehiago, aurreko artikulua, 5. artikulua kontuan hartuta, salbuespenezko egoeretan ezohiko egoerak eta erantzunak egongo dira eta hartuko dira kontuan.

Azkenik, agirikoa da beharrezkoa dana udal eta foru arloko informazio-sistemek komunikazinarako eta datuen trukerako sistema telematiko alkarreragingarrietarantz aurrera egitea, informazio hobea eukiteko eta gizarte-zerbitzuetako hartzaileen izapideak arintzeko eta errazteko.

Gure taldearen eretziz, Jagoleen Estatutua sendotzeko fasean dago, eta, sendotzeko prozesu horretatik, argi eta garbi dago apurka-apurka hedatuko dana lurraldean.

Barriro dinot. Mendekoen zainketa horreen inguruko baterako erantzunbeharra ez da familiarena bakarrik, gizarte osoarena baino.

Hain zuzen be, horixe bera egituratzen da 192/2018 Foru Dekretu horretan, gaur egun Bizkaian prestazio horretako 21.000 onuradun baino gehiago dagozana eta, horren ondorioz, mendekoen 21.000 jagole informal baino gehixeago dagozana jakinda.

Esandako guztiagaitik, ez dogu geure botoaz mozino-proposamen hau onartuko. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Coria, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **CORIA YANGUAS** andreak: Sí, buenos días a todos/as. Muchas gracias, señora Presidenta. Mendekoen Arretea eta Autonomia Personalak Sustatzeko 39/2006 Legea eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko osteko 12/2008 Legea ezartean, zainketa formaletarako sistemak garatu dira, egoitzak, eguneko zentroak edo mendetasunaren arretarako

beste batzuk. Aldi berean, familia-giroko zainketetarako prestazino ekonomikoaren eskutik, mendekoek etxean, etxeko intimidadean jasotako zainketa informalak azaleratzen hasi ziran. Azaleratu egin ziran, eta kuantifikatu egin ahal izan zan mendekoen senideak edo ingurukoak ziran zenbat jagole informal izan eitekezan prestazinoko onuradunak.

Gaur egun, Bizkaiak prestazino horretako 21.000 onuradun baino gehiago daukaz, eta, horren ondorioz, mendekoen 21.000 jagole informal baino gehiago dagoz Bizkaiian. Foru Gobernu honek 2018an onartutako Jagoleen Estatutua aurrerapausua izan zan berez, zainketa informaleen autortza administratibo eta legala egiteko orduan. Izan be, jagoleak agirikoago egin ziran, eta eskubidedun zein betebehardun subjektu bihurtu ziran. Alde horretatik, EH Bildu taldearen mozinoak aurrerapausu hori autortzen dau, gauzapean zehatzari buruzko eztabaidea proponidutean.

“Si hablamos de ello existe” dino esaera zahar ospetsu batek, “Izena daukana bada”, euskeraz; hain zuzen be, Jagoleen Estatutuaren onarpena bera. Aurrerapausua da zainketak agirian jarteko eta autortzeko bide onean, baina Jagoleen Estatutua ez da hor geratu, hau da, jagoleen eskubideen autortzan, apurka-apurka ezarri diran neurri zehatzak gauzatzen joan diralako.

Mozinoko lehen idatz-zatiari jagokonez, adierazo egin beharra dago Jagoleen Estatutuaren zortzigarren artikuluan jagoleen atsedenerako eskubidea zehazten dala jagondakoen egoitzetako aldi baterako egotaldien bidez, baina atsedenerako beste eginkizun batzuk beteten dabezan beste zerbitzu batzuen bidez be bai. Lehenengo paragrafo honetan proponidutako testuan, ez da gai hori aitatzen, hau da, diputaduen esanetan 1.163 jagolek atsedeen hartzeko onuradun moduan erabilten dabezan beste formula horreek, mendekoak desgaituen edo edadekoen eguneko zentrorra doazan bitartean. Beste 369k berbera egin daikie, lanbide-zentro batera doazalako, eta 108k atsedena bateragarri egiten dabe autonomia personala sustatzeko zentroetako partaidetzeagaz. Dana dala, mozinoan ez da esaten 2019ko urriaren 15ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean emon zala argitara 140/2019 Foru Dekretua. Izan be, egoitzetan 15 egunera arteko egotaldiak egiteko laguntzea bultzatzen dau, jagoleek atsedeen hartzeko aukerea euki daien. 2020ko urtarrilaren leian, bete-beteian sartu zan indarrean, eta esparru barri horrek ondorioak euki arte itxaron beharra dago, atsedenerako eskubidea benetan beteten laguntzeko neurri barriak proponiduteko. Azken 20 egunotan, 40 eskabide egon ei dira.

15 eguneko egotaldi horreetarako aurrekontu-erabilgarritasuna inondik inora agortuta ez dagoanez, bilakaerea ikusi behar dogu, eta ziur foru-taldeak horren guztiorren barri emongo deuskuna 2020ko ekitaldi honetan.

Mozinoko bigarren idatz-zatiari jagokonez, ez dogu ulertzen, egia esan. Familia-giroko zainketetarako prestazino ekonomikoa bateragarria da atsedenerako sistema parzialakaz; berbarako, lanbide-arloko edo autonomia personalaren sustapenerako eguneko zentroak. Estatutuan bertan adierazoten da, 13. artikuluan, besteak beste. Ganera, atsedena egoitza-zentro batean egiten danean, etxeko zainketetarako prestazinoa eten beharra dago, agirikoa dalako zainketa horreek emoten ez dirana. Ganera, argi baino argiago dago egoitzan dagoanak ez dauzana zainketak etxean jasoten eta ezin dauana gai biakaitiko finantzaketa publikorik jaso. Jagondakoak jasoten dauan prestazinoa ez dau jagoleak jasoten, eta, horrezaz ganera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazinoen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan aurreikusitakoaren kontrakoa izango litzateke, “Ezaugarriak eta zer baldintzatan jasoten dan” izeneko 3.2.1. fitxan zehazten dan lez. Eusko Jaurlaritzek adostasun politiko eta instituzional zabalaz onartu eban Zorroari buruzko Dekretu hori 2014ko abenduan, eta EH Bildu be baegoan adostasun horretan.

Hirugarren idatz-zatiari jagokonez, testuan bertan, hirugarren idatz-zatiak malgutasuna ezarri gura dau jagoleak autortzeko orduan, odolkidetasun-mailarik euki barik jagoten dabenean eta alkarregaz bizi dirana egiaztetan dabenean. Foru-diputaduak esan eban.

Formula barriak, familia-formula barriak, zainketa informalerako lotune-formula barriak onartzeko prest gagoz, baina hemen adierazo egin beharra dago Jagoleen Estatutuan bertan jagoletzat hartzen dirala izatezko bikotekideak, odol-ahaidetasunaren arloko salbuespenak egiten dira 10 urteko alkarbizitza dagoanean eta ezohiko egoeretarako salbuespen gehiago be badagoz, 5. idatz-zatian zehazten dan lez. Esate baterako, ez dago arazorik lotunearen logikan bertan egoera barriak ezarteko.

4. idatz-zatian, udaleko gizarte-zerbitzuakazko koordinazioa bultzatzeko borondatea ikusten dogu, jagoleen prestakuntzarako eta informazinarako eskubideak egituratzeko. Ados gagoz, zer esanik ez, koordinaziopean lan egin beharra dagoala esaten danean. Gure eretziz, koordinazioa eta informazio-trukea bultzatu behar dira oinarritzko gizarte-zerbitzuen eta foru-zerbitzuen artean, informazio-sistemen alkarreragintasunaren bitartez, baina, batez be, foru eta udal arloko eskumenekoak izanda euren artean bateragarriak diran gizarte-zerbitzuetako prestazinoei eta zerbitzuei jagokenez.

Holantxe ebatzi zan Bizkaiko Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Mahaiaren azken batzarrean. Jakin badakigu deialdia baino lehenagoko lanak egiten dagozana, eta, esan deustenez, Erakundearteko Mahaia martiaren 9an batzartuko da seguruenik. Ez dogu ulertzen mozinoan bertan gaur eguneko arauzko esparruaren kontrakoak diran gaiak proponidutea. Ez dira Gobernu honek abian daukazan ekimenak aitatzen, eta ez dau araututa dagoana kontuan hartzen. Horrexegaitik, gaitzetsi besterik ez daukagu. Jagoleen Estatutua sendotzeko eta zabaltzeko fasean dago. Apurka-apurka eta lurraldeka hedatuko da, eta guretzat pozgarria da EH Bildu batzarkide-taldeak hedapen horretarako ekarpenak egin gura izatea, baina mozino honetan ez dau lar asmetan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Ahora, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Sí, muchas gracias. Señor Andrade, argitzearren baino ez, ez dogu adierazo gura izan Jagoleen Estatutuari buruzko eztabaidea guk geuk hasi dogunik. Beste barik, genkarren mozinoa testuingururatu gura genduan, eta aurreko Osoko Bilkurako proposamena aitatzen genduan, guk geuk proponidu gendualako. Eztabaidan urten daben gaiak apur bat argitzen joatearren, esan egin behar dogu, beharbada gaur genkarren hobekuntza-proposamenaren zehetasunei gehiago eutsi deutsegu aurreko agerraldian, baina adierazo egin gura neban beste batzuetan lez ez dogula uste zainketako politika publikoak behar dan moduan jorratzen dagozanik. Nire eretziz, nahikoa ados gagoz Elkarrekin Bizkaiaiko Eneritzek emon dauan azalpenagaz. Hain zuzen be, holantxe be adierazo neban Tele7n euki genduan eztabaidea ezin aberasgarriagoan. Izan be, gure ustetan, instituzino publikoek, euskal instituzino publiko guztiek, seguruenik, gure gizarteak XXI. mendean daukazan erronka handienetako bati aurre egin behar deusie, hau da, zainketeari, baina zainketa hori bere dimensino osoan ulertu beharra dago, biziari berari eusteko funtsezko zutabea da-eta.

Gure ustetan, gainditu barik daukagun erronka handia da, eta jakin badakigu oraindakarren behar dan moduko mailan ez gagozana eta egoera horri adabakiak jarten deusiezan politika publikoak egiten goazana. Halanda be, Tele7n esan nebanez, uste dogu gure betebeharra dala kasu honetan Jagoleen Estatutuko onuradunak diranen baldintzak hobetzen dabezan proposamenak ekarte hona. Hori dala eta, proposameneko lau puntu horreek genkarzan. Beharbada, lehenengoak badira... Hemen, dekretu batzuk eta arauketea aitatu dira. Gogoratu egin gura dot Elenak aitatu dauan Mendekotasunari buruzko Legean zehazten zala familia-giroko zainketarako prestazioa ezohikoa izan behar zala, eta, gaur egun, laguntza hori

jasoten daben 21.000 lagun daukaguz Bizkaian, eta 10.000 egoitza-plaza. Hori hausnarketa moduan.

Ez dogu zalantzan jarten personek zainketak euren ingurune hurrenean, euren etxeetan jaso gura izatea. Eneritzek esan dauan lez, gure ustetan administrazio publikoaren betebeharra da persona horreek zainketak ingurune hurrenean jasoteko daukiezan gurari horreei aurre egitea, baina ikuspuntua zuzena ez dala uste dogu. Gure eretziz, zainketak, zuk, Sergio, aurreko eztabaidan esan zeunskunez, interes orokorrekoak dira, interes publikokoak dira. Zainketea eskubidea bada, instituzino publikoek holan erantzun behar deusie horri. Emoten dau neurri horreen bidez askotan ezegonkortasun-egoerak eta gehienbat andrekin egiten dabean zainketa-zereginak kronifiketan gagozala.

Edozelan be, badinogunez, uste dogu genkarzan proposamen honeen bidez zeozelan hobetzen genduzala ehunka eta milaka andra horreen baldintzak, lehenengo proposamen bien kasuan, atsedean hori eskatzen dabenei egoitza-plazea ziurtatzea. Eskatzen ez badabe, PPko ordezkariak esan dauan lez, esan barik doa errespetau egingo geunkeana, instituzino horrek euren guraria errespetauko dauana. Atsedean hori eskatzen bada, ostera, egoitza-plaza hori eukiteko eskubidea daukie. Barriro gogoratuko dot. Zerbitzuagaz lotutako prestazinoa ezohikoa izan behar da. Halanda ze, Aldundi honek behar besteko konpromisoa hartu beharko leuke, gura daben guztiek egoitza-plazea euki daien.

Bigarren proposamenari jagokonez, eta ez da zainketarako prestazinoa etetea, badakigu prestazino hori, hain zuzen be, jagondakoakaz lotuta dagoana. Halanda ze, kontraesana da jagoleen atsedenerako eskubide moduan autortzea, egia esan, Jagoleen Eskubideen Estatutuan zehazten dan atsedena jagondakoakaz lotuta dagoalako. Kontraesana da, eta hortik dator ganerako guztia. Erakundearteko kontraesana be bai, Elenak inoanez, zerbitzu bi horreek bateratuezinak dirala adierazotean. Edozelan be, Gipuzkoako Aldundiak baimendu egiten dau. Prestazinoari eusten deusie, atsedenerako eskubide hori daukienean edo erabilten dabenean.

Azkenik, azken proposamen biei jagokonez, uste dogu berez azkenean, esan deuskuzun lez, Erakundearteko Mahaia 9an deituko da, holan izango ahal da! Horixe berori gura dogu, gai hau jorrazteko eta, horrezaz ganera, Dekretuan zehaztuta egon arren oraindokarren garatu barik dagozan beste hainbat eta hainbat baliabide eta zerbitzu lantzeko.

Amaitzeko, aurreko Osoko Bilkuran familia-mueta barri buruz egiten genduan hausnarketea. Gure eretziz, zeozelako, ulertu dogunaren arabera, zeozelako posibilidad dago, uste dogu seguruenik familia-errealidade barri horreetara egokituko dirala, eta dekretu horreek azaldutako guztira be egokitzen joango diran itxaropena daukagu. Besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Andrade Aurrecochea, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, desde su escaño, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Bai, eskerrik asko, mahaiburu andrea. Labur-labur. Beste barik, lehen esan dodan lez, bat gatoz kezkeagaz. Ados gagoz hobetu beharra dagoala esaten danean, Jagoleen Estatutuaren hobekuntzan aurrera egin beharra dagoala, baldintzak hobetu behar dirala. Osoko Bilkura honetara ekarten diran proposamenak, lehen adierazo dodan lez, goiztarregiak dirala uste dot. Beharbada, ez dira gure jagoleek behar dabean erantzunak. Halanda ze, nik neuk denpora apur bat gehiago itxiko neuke, eta txosten osoagoen zain geratuko nintzateke. Ez da egoitza-kostua, ikusi dogun lez, 41 lagunek baino ez dabelako atsedean hori eskatu. Baleiteke beste era bateko arazoa izatea, eta

azpimarratu egin beharko da. Era berean, bat nator esaten danean desadostasunak konpondu behar dirala hemen egin ezin ei danaren eta Gipuzkoan egiten ei danaren artean. Konpondu, aztertu eta ikertu egin beharra dago. Horregaitik, abstenidu egingo gara, proposamena goiztarregia dala uste dot-eta. Zelan doan ikusi beharra dago, baina betiko lez hobetzeko prest gagoz. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Nire ustetan, danok bat gatoz ondoizateari, ugalketeari, ugalketearen sustapenari eta, azken batean, biziaren beraren euspenari begira be zainketak ezinbestekoak dirala esaten danean. Milioika andrak zainketen ardurea hartu ez bagendu edo milioika andrak jagoten segiduko ez bagendu, nik neuk argi eta garbi daukat gaur egun ez gintzatekezana gagozan lekuan egongo. Gizonek lan egiten urten ahal izan dabe, ekoizten urten ahal izan dabe, androk ganerako guztia hartu dogulako ardurapean, ganerakoa, baina, batez be, zainketak. Horrek badauka baliorik. Hemen, zainketeari emon gura deusagu balioa, zeozelan esatearren, baina autortzearen bidez baino ez. Gure ustetan, oso ondo dago autortzea eta hortikxe be igaro behar da, baina ez da nahikoa.

Orain dala gitxi, Bardintasunerako Foru Araua be onartu zan, foru-instituzino honek generoaren ikuspegia bere politika publikoetan txertatu eian eta, aldi berean, beti-beti andren zein gizonen benetako bardintasuna sustatu eian. Zelan egiten da hori? Desbardintasunei aurre eginda, bada. Jagoleen Estatutu honek, hain zuzen be, kinua baino zeozer gehiago egiteko aukerea emoten eban, zainketetako lana autortzea baino zeozer gehiago egiteko aukerea emoten eban, eta zuok ez zarie hain asago joango; izan be, Gobernuak hasieran egindako proposamena zeozertxu hobetzen dauan proposamena be ez dozue babestuko.

Ni neu, egia esan, gaur triste nago bertan entzuten nagoanagaitik. Ganera, argudioak betikoak dira: ezin hobeto egiten gabilz, edo zeozer jazo arte itxaron beharra dago. Kasu honetan, Jagoleen Estatutua erabat hedatu arte edo hobekuntzarako bitarteko neurriak ezarri daikeguzanean. Nire ustetan, honako hauxe da zuon proposamena: zelan edo halan egin beharra dago aurrera.

Otermin jaunaren esanetan, legea bete beharra dago. Egia da, baina horren ondorioz andrek zainketen arloan daukien zeregina sendotzen bada be? Ezetz uste dot. Horren ondorioz zainketetako laneko ezegonkortasuna sustatzen bada be? Ezetz uste dot. Denporea hartu daigun, egoera barriro aztertu daigun eta aldatu daigun. Nire eretxiz, adibide moduan, dekretuan bertan gai bat, gai deigarri bi dagoz. Batetik, 4. artikuluan, FGZPE eskuratzeko eskakizunei buruz berba egiten danean, c idatz-zatian aitatzen da mendekoei emondako arreteak eta zainketak euren preminetara egokitu behar dirala, mendetasun puntuen eta mailearen arabera.

Bertako f puntuan, adierazo egiten da behar besteko arduraldia eskaini beharra dagoala, mendekoei arreteak emoteko edo, holan bajagoko, zainketak nahikoak eta kalidadekoak dirala ikuskatzeko eta kontrolatuko. Hori, ganera, erantzunbeharpeko adierazpenaren bidez egiaztauko da. Hori, jaun-androk, nori eskatuko deusagu? Bere etxean mendekoa modu informalean jagoten dauan andreak? Edo eskatu egiten deusagu edo eskakizun horreek eskatu egingo geunskioz zainketen arloan lan egiten dauan nonori? Uste dot dekretuak argi eta garbi nahastetan dauala batetik legerian esaten dana eta dekretuan jarten dauana, ez da zuzena, ez da koherentea, edo jagole informalak dira edo profesionalak daukaguz berbabide.

Zuok “Jagoleen betebeharrak” 9. artikuluko “Prestau beharra” 3. puntuan be badinozue, hau da, betebeharra da, eta behar besteko denporea emon beharra dago, mendekoak behar dauan zainketarako behar diran gaitasunak eskuratzeko. Horretarako, behar besteko prestakuntzea egiteko aukerea emongo da. Nori eskatuko deusagu hau? Bere etxean dagoan jagole informal bati edo behargin bati eskatuko deusagu? Nire ustetan, harago joateko eskatzen gabilz bertotik, gitxienez andrak errespetetan dauzan zainketa-ereduan inpliketako, baina, era berean, desbardintasunak sortzen dabezan elementuen hausturan be inpliketako. Nire eretxiz edo, gitxienez, zuok argi ixten zabilze oso inplikauta zagozeta jagoleakaz, oso ondo saltzen dozue, baina, bizitza honetan beti jazoten dan lez, mobimentua ibiliz egiaztetan dala uste dot, eta, praktikan, dekretu horretan adierazotakoaren arabera, jagoleakazko inplikazino-mailea oso urria dala uste dot. Arabere txarrago, hori konpondu gura ez dozuela emoten dau. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Ikusi daigun honetan guztian zuhurtzia apur batez jokatzetik daukagun, azkenean esan ez dodazan gauzak esan dodazana jakin dodalako. Dana dala, nik berba egiten dot, eta nork berea ulertzen dau.

Lehenengo eta behin, nire eretxiz nabaritasuna da Bizkaian aurrera egiten gagozeta, baina, batez be, gai honetan. 2018. urtetik gabilz hori egiten, eta ez hori bakarrik, ganerako autonomien edo erkidegoen edo probintzien aldean, gura dozuen moduan, Bizkaia mugan dagoalako aurrera egiten dabilzanen artean. Seguruenik, gehiago gura dogu danok, jotan lez. Gehiago gura dogu danok, baina danak bere erritmoa dauka, eta bere inguruabarrak daukaz. Esan dogunez, 2020. urteko urtarilaren lean indarrean sartu dan dekretua egon da. Denpora apur bat emon daigun, zelan doan gauzatzen ikusteko, zer neurri txertatu edo ezarri behar diran ikusteko.

Era berean, niretzat tranpati samarra dan teknikea dago hemen, hau da, edozein itaunetan, arauz besteko edozein proposamenetan erantzuterik eukiko ez dauan galderak egitea diputaduari. Ostean, neure erantzuna emongo dot.

Agirikoa danez, nik neuk badakit, eta hortik dagoan diputaduak, berba egin ezin dauanak, ez daki, bada. Neuk esango deusut zein dan erantzuna: eztabaidan, tranpatxuak egitea. Bestetik, dekretu garrantzitsu biri buruz be bagabilz berbetan: Zorroari buruzko 2015. urteko Dekretua, zelan egon dan ezarten, eta Jagolei buruzko 192/2018 Dekretua. Zainketa ez-profesionalak. Oso aitamen interesgarriak egon dira, laguntzea mendekoarentzat dala dinozulako. Ez da ostean jagolearentzako lan-eskubideak sortzen dauzan laguntzea. Kontuz! Zuk mendetasuna daukazu, administrazino publikoak lagundu egiten deus, baina, jasoteko eskubidea daukazun zainketea zure ingurukoa bakarrik izan behar ez danez, ikusi daigun danon artean zelan egiten dogun geure zuk zainketak eukiteko erantzunbehar hori. Horretarako, gauza asko proponiduten dira; barbarako, prestakuntzea emon ahal izatea, behar dan moduko arreteja jaso daizun; atsedenerako zentroak eskaintzea, gai familiar bategaitik hau guztia odolkidetasunpeko hartu-emon bategaz lotuta egon ez daiten, zeozelan esatearren, eta beste aukera batzuk egon daitezeta, bizitza aldatu egin dalako. Defendiduten gabilzan legeak andren zainketea kronifiketan dauala, andrak hori egin ahal izango daben bakarrak dirala esateja be! Hain zuzen be, hori ez da legean inon agertzen. Era berean, legea be bada horren inguruan egiten dodan interpretazino. Uste dot nahaste kontzeptual handian sartuko garala hemen. Legeak dinoana dino.

Hori dala eta, ez daigun ez dinoana asmau. Izan be, legean islatuta agertzen ez diran gauzei buruz dinodana legezkota izango balitz, zergaitik ez dot legea aldatzen?

Zehetasuna be zehatz-mehatz aztertu daiten, eta kasuistikan sartuko gara, zehetasun txiki guztiak beste zehetasun txiki batzuek kolokan jarriko dabez aldi berean. Azkenean, beste zehetasun txiki bat izango da, eta, azkenean, legea tamainu handikoa izango da, eta ez dau ezertarako balio izango, txarren dagozantzenako baliabidea izan arren. 41.000 lagunek mendetasun-balorazinoa daukie Bizkaian, eta, eurretatik, 21.000 lagunek badaukie baliabideren bat ezarrita. Halanda ze, gitxienez beste 21.000 lagunek jagoten dabez, eta, zoritxarrez, zer edadetan sartzen gabilzan kontuan hartuta, jagolea bera be mendetasun-prozesuetan sartuko da aldi berean, bizitzea luzatu egiten dalako, zorionez. Hori dala eta, ikusiko dogu zelan konponduko dogun gai hau etorkizunera begira. Mendetasuna daukan jagolea eta, aldi berean, beste mendeko bat jagoten dabilena.

Halanda ze, lan ona egiten dagoala uste dot. Zuhurtasuna aholkulari onena da politika sozialak ezarteko orduan, eta esan ez diran gauzak esatea oso polito geratu daiteke prentsako izenburuari begira, baina ez dau ezer argitzen laguntzen. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Para concluir el debate, señora Coria Yanguas, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **CORIA YANGUAS** andreak: Sí, buenos días, de nuevo. Funtsezko lau idea nabarmenduko dodaz, besterik ez. Barriro dinogu dekretu honen bidez, dekretu hau beste aurrerapausu bat dala urteetan isilduta eta ezkutuan egon dan errealidade soziala autortzeko orduan. Estatutua, parkatu, dekretua esan dot, eta mendetasuna zein zainketea artatzeko abian jarten diran zerbitzuak eta baliabideak eten barik berrikusten dira, eta aldatu egin daitezke, beti-beti erespide teknikoak kontuan hartzen badira eta, zelan ez, erabiltzaileek eurek parte hartzen badabe, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean adierazoten dan lez. Halanda ze, berrikusi egingo da.

Proposamenak dira, artatutako personak dira eta urtariletik gure laguntzea jasoten daben personak dira. Ez gabilz diskursoak egiten. Jagoleak hortxe dagoz, eta aurrerantzean be egongo dira. Neurri zehatzak dira, eta andrei zein gizonei laguntzen deutsee, baina, batez be, andrei. Personak dira, eta laguntzak jasoten dabilz. Andren zeregina betikotzeko prozesuaren bidez zer esan gura dozuen ulertzen dogu. Halanda be, ez da errealidadea, ez da andren zeregina betikotzen, agirian jarten dalako eta ikusiezintasunaren ondorioz, gura izanda edo gura izan barik, ukatzen jakon balioa emoten jakolako. Badago gehiago eskatzerik, eta urrunago joango gara, baina ezin dozue ukatu gaur egun jagoleak 2018an baino hobeto ez dagozana, laguntza handiagoa daukiena eta autortza handiagoa be bai. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Una vez concluido el debate, someteremos a votación la moción. Votemos. El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 46: 16 votos a favor, 28 votos en contra y 2 abstenciones. Por tanto, no se ha aprobado la moción.

Punto cuarto del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2020/0000223](https://www.euzkadi.net/interpelaciones/2020/0000223))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2020/0000223SE](https://www.euzkadi.net/interpelaciones/2020/0000223SE))

Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Asunto: Desarrollo de la Norma Foral 4/2018 para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2020/0000223](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (9A)

Expediente: ([11/B/20/0000784](#))

Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Gaia: Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako 4/2018 Foru Arauaren garapena

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2020/0000223SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (9A)

Espediente: ([11/B/20/0000784](#))

Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Urkaregi Etxepare, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. En el Pleno anterior, tal y como dije al formular la interpelación, lo más complicado viene tras la aprobación de la Norma Foral: el cumplimiento de lo que está escrito. Debemos pasar de las palabras a las acciones, poner en práctica lo que está escrito. No resulta tan sencillo. Existen resistencias. A veces, evidentes; otras veces, no tan evidentes. Es lógico, he dicho que existen resistencias, porque la incorporación de la perspectiva feminista implica cambios, cambios en profundidad. Ahí está la clave.

Orain dala urtebete eta erdi, Ganbera honetan onartu genduan Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua. Dana dala, gaxena ez da araua onartzea, bertan idatzitakoa egia bihurtzea, berbetatik ekintzetara igarotea baino.

Gatxa da, Bardintasunerako Foru Araua garatzean, danok mobidu behar garalako, Aldundiko nahiz Foru Sektore Publikoko egiturak. Hori dala eta, aldatetak egin behar doguz, ezin dogu orain arte egiten zana egiten segidu. Aldaketa horreek albo batera itxi ezin doguzan erresistentziei egin behar deutsee aurre. Hain zuzen be, erresistentzia horreen jakitun egon behar gara, aurka egin ahal izateko.

Por eso presentamos nuestra moción. Decíamos lo siguiente: las Juntas Generales de Bizkaia instan al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad a:

Que antes de la finalización del actual periodo de sesiones presente en la Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, durante la legislatura, un Plan de Acción para el desarrollo de la Norma Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres, especificando las tareas a realizar por cada departamento y por las entidades del Sector Público Foral, junto con su cronograma. Ayer, el PNV y el PSE presentaron una enmienda.

EAJren eta PSOEn zuzenketa adierazoten zanez, honako hauxe eskatzen jakon Enplegu, Gizarte Inklusino eta Bardintasun Sailari:

2020ko urriaren 30a baino lehen, Enplegu, Gizarte Inklusino eta Bardintasun Batzordean aurkeztu daiala Bizkaiko Andren eta Gizonen Bardintasunerako 2020-2023ko VI. Plana, Andren eta Gizonen Bardintasunerako Araua garatzeko asmotan, sail bakotxak zein Foru Sektore Publikoko erakundeek egin beharreko jarduketak eta kronogramea zehaztuta.

Bardintasunerako Plana Foru Arauaren garapenaren zati bat da, baina zati bat baino ez.

Izan be, Foru Arauan bertan, berbarako, Andren eta Gizonen Bardintasunerako Sailarteko Batzordearen eginkizunak zein diran begiratu ezker:

e) Sailei behar besteko ekintzak proponidutea, Foru Arau hau eta Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Plana garatzeko eta betearazoteko.

Arauan bertan, idatz-zati batean baino gehiagotan, Foru Arau honen eta Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Planaren garapena eta betearazpena aitutzen dira gai desbardin bi izango balira lez. Edozelan be, Bardintasunerako VI. Planari buruz baino ez zan berba egiten zuzenketan.

EH Bilduk ez eban gura Foru Arauaren eukia Bardintasunerako Planera murrizterik gura. Ez gengoan ados, Foru Araua harago doalako, Aldundiko eta Foru Sektore Publikoko egituran bertan daukalako eragina, baita bertako politika publikoetan be. Ganera, bere legezkoatasun-mailea Bardintasunerako Planarena baino handiagoa da ezelako zalantza barik, tresnea dalako eta ez legezko araua.

Por ello, hemos intentado alcanzar una transaccional, y quiero subrayar que lo hemos intentado por todas partes, y, hoy mismo, hemos presentado la transaccional acordada:

Hona hemen adostu dogun akordua: Bizkaiko Batzar Nagusiek Enplegu, Gizarte Inklusino eta Bardintasun Sailari eskatzen deusie 4/2018 Foru Arauan zehaztutako bardintasun-egituren laguntzaz behar besteko ekintzak diseinatu daizala, Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arau hau garatzeko eta betearazoteko, sail bakotxak zein Foru Sektore Publikoko erakundeek egin beharreko jarduketak eta kronogramea zehaztuta. Ekintza horreek eta kronogramea Enplegu, Gizarte Inklusino eta Bardintasun Batzordean aurkeztuko dira.

Por una parte, en esta transaccional se plantea que las acciones se deben diseñar en colaboración con las estructuras de igualdad. Creemos que eso es importante, porque así se implican diferentes departamentos de la Diputación. Dicha implicación es necesaria para incorporar transversalmente la perspectiva de género.

Por otra parte, todas las partes debemos ceder en algo: por una parte, porque el PNV y el PSE han adquirido el compromiso de abordar el desarrollo de la Norma Foral para la Igualdad en lugar del VI Plan para la Igualdad.

Sin embargo, también EH Bildu ha cedido, al no establecer una fecha concreta. Es cierto que pensábamos que había que establecer alguna fecha, no la que nosotros/as señalábamos en la moción, pero, sí, el día 30 de octubre especificado en la enmienda.

No ha sido posible, por lo que EH Bildu ha priorizado que se alcance el acuerdo y que estas Juntas Generales adquieran el compromiso de desarrollar la Norma Foral para la Igualdad. Erdibideko honetan, Bardintasunerako Foru Arauaren garapenerako ekintzak aurkezteko epea zehaztea gura izango genduan. Dana dala, ezinezkoa izan da, eta EH Bilduk lehenetsi egin dau Batzar Nagusiotan akordua lortzea eta behar besteko konpromisoa hartzea, paperean ez geratzeko eta Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arauan hartutako konpromisoak abian jarteko.

No hay plazo, pero esperamos, bueno, estamos convencidos/as de que la presentación de acciones no se demorará demasiado. En todo caso, los grupos disponemos de instrumentos de seguimiento, si vemos que no se está cumpliendo el compromiso adquirido, así como la posibilidad de presentar otras iniciativas. Ese es el compromiso que hoy adquiere EH Bildu: estaremos atentos/as, para que se cumpla lo que vamos a aprobar hoy.

Tal y como dijimos en el anterior Pleno, desde EH Bildu no queremos que la Norma Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres se quede en una norma aprobada y que solo se lleven a cabo algunos de sus objetivos. Hoy, en ese sentido, con el objeto de llevar a la práctica la Norma Foral para la Igualdad, vamos a dar un paso, aunque sea pequeño.

Por eso retiramos la moción, y vamos a apoyar la transaccional. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Corresponde el turno a los grupos que han presentado la enmienda. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Mahaiburu andrea. Batzarkide jaun-androk. Buenos días barriri be. Urkaregi andreak eskaini deuskun azalpenean, ibilbide laburra egiten dau lortu dogun akorduaren kudeaketan jazo danari buruz. Halanda ze, horren ondorioz, Euskal Herria Bilduk egin euskun lehenengo proposamenaren abiapuntutik hasiko naz neu be.

Andren eta Gizonen Bardintasunerako 4/2018 Foru Arauaren garapenari buruzko urtarrilaren 29ko itaunaren ondorioz, EH Bilduk Enplegu eta Gizarte Inklusino Sailari eskatzen deutso indarreko batzaraldia amaitu baino lehen Enplegu, Gizarte Inklusino eta Bardintasun Sailean aurkeztu daiala legealdian bertan Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua garatzeko Ekintza Plana, kronogramea eta sail bakoetak eta Foru Sektore Publikoko erakundeek egin beharreko jarduketak zehaztuta.

Gure eretxiz, badago bardintasunaren arloko jarduketak zehaztu eta atontzen dauzan tresnarik, eta, gure kasuan, foru-administrazioak egin behar dau. Tresna hori andren eta gizonen bardintasunerako planak dira, eta holantxe adierazoten da zezeilaren 18ko 4/2005 Legean eta Andren eta Gizonen Bardintasunerako bagilaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 21. artikuluan. Halanda ze, gure ustetan, ez da zentzuzkoa jarduketak zehazten dauzana ez beste agiri bat egitea. Hain zuzen be, 21. artikulua horren 3. idatz-zatian azaltzen danez, foru-sail guztiek urteko programazinoa zehaztu beharko dabe, eta Andren eta Gizonen Bardintasunerako Planean euren jarduketa-eremuak diran neurriak ezarri, jarraipena egin eta ebaluatu egin beharko dabez.

Horretarako, Bardintasunerako Zuzendaritzeak Foru Arauan aurreikusitako bardintasun-egiturak daukaz, hau da, Sailarteko Batzordea, Bardintasuna Taldea eta sailtako batzordeak, Foru Arauaren 2.-16. artikuluen arabera. Plana eta sailtako egiturak daukaguz berbabide, ekintza horreen egutegia modu autonomoan egin behar dabenak dira-eta. Guztiguztiek kudeaketarako autonomia euki behar dabe, baita koordinazinoa be, Foru Arau honetako aginduak bete-betean gauzatzeko. Horren jakitun eta ahal danik eta adostasun zabalenen garrantzi handiaren jakitun, Urkaregi andreak azaldu dauan zuzenketea adostu dogu. Gure ustetan, proposamen hori alde guztien eretxiaren eta jarrera onaren adierazgarri egokia da, 4/2014 Foru Arauaren onarpena dala eta lortutako adostasun zabalari eutsi gurean. Laespada diputadu andreak gogoratu ebanez, Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua preminazko beharrezana izan zan, eta oraindokarren be bada, baita Bizkaiko errealidadera egindako begirada feministea be.

Zure esanetan, datuak tematiak dira, eta itandu egiten deuskue androk gizonen aldean abiapuntu daukagun gizarte-desabantaileari buruz, ondoizate-mailan, bizikalidadean, ekonomian, astialdiaren eta norberaren denporearen gozamenen, erabagiak hartzeko prozesuan, bazterketarako arrisku-faktoreetako era guztietako aukeretan eta zaugarritasunetan eta, zelan ez, indarkerian. Foru Arau hau asmo handikoa da, ibilbide luzekoa. Agindu argia emoten deutso Bizkaiko Foru Aldundiari, eta bardintasunerako foru-politiken

garapenerako behar diran oinarrien ezarpenetik abietan diran mailakako neurriak behar dauz. Jakin badakigu Foru Arau honen bidez Bizkaian bardintasuna jarten dauana agenda politikoko lehenengo puntuan, genero-bardintasuna jarduketa politikorako oinarritzko printzipioa dala kontuan hartuta. Jakin badakigu araua onartutakoan gaxena etorrena, hau da, bertan idatzitakoa egia bihurtzea, adierazpenetatik ekintzara igarotea. Foru Aldundia horretarako ahalegina egiten dabil, eta, lan horretan, talde sozialistearen babesa topauko dozu beti. Gaur eta bihar. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Edesa Gómez, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. 2018ko bagilaren 20an, Ganbera honetan onartu genduan Bardintasunerako Foru Araua. Foru Arau horrek zeozelan aldatu eban Aldundi honek gizonen eta andren bardintasunaren arloan egindako ibilbidea. Legegintzearen mailatik, ganera, bidea zehazten segiduko dau Aldundi honetan. Ahaldun nagusi honek aurreko legealdiaren hasieran hartutako konpromisoa izan zan, eta holantxe bete zan. Halanda ze, agirikoa da Aldundi honek konpromisoa eta inplikazioa daukazana bardintasunagaz. Izan be, ezin da beste era batera izan, Aldundia bera izan dalako bide hori zehaztu dauana eta bardintasuna bere eguneroko lanean jarri dauana.

Joan dan hileko itauneko eztabaidan, zu, Urkaregi andrea, eta Laespada diputadua ados zengozen urratsak, urrats handiak emon zirala esatean. Egia esan, Urkaregi andrea, zuk nabarmendu egin zenduan zer egin ugari egoala artean, eta azkarrago, abiada handiagoan joateko eskatzen zenduan. Era berean, ados be bazengozen Aldundia lako erakundearentzat holako araua eukitea preminazkoa zala adierazotean, batez be. Hori dala eta, nire eretziz, zeozelako alde ulergarrietatik harago, gai honetan bat gatoz eukiagaz eta bat gatoz helburuagaz. Hain zuzen be, holantxe ikusi ahal izan zan Foru Arau hau onartu zanean. Izan be, eztabaidearen, eztabaida ugariaren, negoziaketa askoren, hausnarketa askoren emoitzea izan zan, baina, batez be, adostasun zabalarena. Egia da gaxena Foru Arauaren garapenaren ostean datorrena. Erabat ados nago horregaz. Hori dala eta, gogoratu be egin behar da asmo handiko Foru Araua dala eta, horren ondorioz, ez dala erraza gauzatzen, aldaketak egin behar diralako, denpora asko behar dalako eta egun batetik bestera emon behar ez diran ekintzak diralako, mailakako ekintzak diralako. Izan be, Aldundi honetako kidego politikoa ez eze, kidego politiko eta funtzionariala be inpliketan dauan Foru Araua da. Holantxe gabilz lanean, eta, nire ustetan, funtsezkoa da Laespada andreak joan dan Osoko Bilkuran aitaturako ekintza horreek guztiak nabarmentzea, hortxe ikusten diralako aurrerakuntzak, hortxe ikusten diralako aurrerapausuak eta Aldundi honek bardintasunean egindako benetako apustua.

Gaur Bilduk aurkezten eban hasierako proposamenera ailegau arte emoten joan diran urratsak zein izan diran azaldu dabe Juanek eta Arantzak. Hori dala eta, zuzenketea aurkeztea erabagi genduan, Ekintza Plana sortzea proponiduten eban mozinoan proponidutakoa beharrezkoa ez zala uste genduan-eta. Gure eretziz, ez zan beharrezkoa, bagoalako tresnarik, hau da, bardintasunerako planak. Izan be, Otermin jaunak ondo azaldu dauanez, 4/2005 Legean eta gure Foru Arauaren 21. artikuluan ezarten dira, eta bardintasunaren arloko jarduketak zehaztu eta atondu egiten dabez.

Dana dala, horrezaz ganera, uste dot aurkezten genduan zuzenketa honetan bardintasunerako plan horrek be aitutzen genduzala tresna moduan, eta, ganera, zuk eskatzen zenduzan ekintza gehienak kontuan hartzen dabezala uste dogu, baina, harago joanda, Foru Arauaren 12. 13. eta 14. artikuluetan zehaztutako egituren esparruan garatzen diran generako neurriak be hartzen ziran kontuan.

Azkenik, gaur goizean, erdibideko akordua sinatu dogu EH Bildu taldeagaz, Foru Arauaren garapenean egin genduan eta eroan dogun adostasun horri eutsi gurean edo eusteko asmotan. Urkaregi andreak irakurri dau. Halanda ze, ez dot irakurriko. Gure eretziz, zeozelan esatearren, adostasun hori lortu beharra egoan, batez be, araua egitean erdietsi zan adostasun hori kontuan hartuta, esan dodan lez. Hori dala eta, ahalegin txikia egin dogu, jarrerak hurreratzeko. Egia da hiru taldeok amore emon doguna, baina jarrera on hori balorau egin beharra dagoala uste dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, mahaiko kideok, batzarkide jaun-androk, buen mediodía a todos/as. Egun on danoi. Askotan esan dogun lez, nire taldea bat dator andren eta gizonen benetako bardintasunaren alde lan egiteko premineagaz. Bardintasun hori arlo askotara ailegetan da: lana, gizartea, familia eta beste hainbat arlo.

Horri jagokonez, orain dala aste batzuetako komunikabideetako izenburua irakurriko deusuet, eta ziur zeuok be irakurriko zenduena. “Urtarrileko euskal lanbako barrien ehuneko 90 baino gehiago andrak dira. Gehienak iraupen luzeko eta 45 urtetik gorako lanbakoak dira”.

Beste bat irakurriko deusuet. “Andrek 10 enplegutatik 2 baino gitxiago beteten dabez metalgintzan, metalezko produktuen industrian eta makinetan zein ekipamentuetan, estadistika industrialaren zenbakiak berresten daben lez”. Beste hau, azkenik. “Andrek 10 enplegutatik ia-ia 7 beteten dabez merkataritza txikizkarian”. Ez dira izenburu hutsalak, ez dira esaldi hutsak, 2019an Euskal Autonomia Erkidegoan andren eta gizonen bardintasunari buruz egindako txostenetik ateratako datuak baino.

Benetan uste dot pisu handiko argudioak dirala eta, horren ondorioz, gure Lurralde Historikoko andrek jasaten daben errealidade gordina geure gain hartu behar dogula derrigorrean. Gero eta beharrezkoagoa da andren eta enplegua, lan duina eskuratzeko daukien eskubidearen alde lan egitea. Era berean, puntu honetan, hausnartu egin beharra dago sektore publikoaren bultzadaz bakarrik aurre egin ahal deusagun erronka horri edo gizarte osoaren alkarlana bilatu behar dogun helburu horretan. Baietz uste dot. Era berean, garrantzitsua da barriri esatea arauzko ariketea ez dala hainbat gura izandako bardintasunaren helburuak berez lortuko dauzan elementua. Beharrezkoa da gizarte honetako kide guztiok batera lan egitea, estamentu guztien artean, helburu horreek lortu ahal izateko.

Oraindokarren lan asko eta asko egin behar danez, oso kontuan hartu behar dogu Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako gizartea ez dala barria gobernanzako gaietan, andren eta gizonen bardintasuna bultzatzeko orduan. Arauzko esparrua zabal-zabala da: Espainiako gobernuek bultzatutakoa, Eusko Legebiltzarreko arautegi zabala edo, aitatu dan lez, Batzar Nagusiok 2018an sustatu eben Bardintasunerako Foru Araua.

Egia esan, egindako bidea luzea da, nahiz eta, sarritan seguruenik, lorpenak txikiak dirala uste izan. Gaur, hasierako mozinoa aurkeztu jaku hemen. Holantxe hasten da gaur Batzar Nagusiotan berbabide daukagun espedientea. Mozino hori Bardintasuneko foru-diputaduari, Laespada andreari, orain dala aste batzuk Batzar Nagusiotan egindako itaunaren ondorioz sortu da. Bertan, eskatu egiten jako indarreko batzarraldia amaitu baino lehen Enplegu, Gizarte Inklusino eta Bardintasun Batzordean aurkeztu daiala legegintzaldian bertan Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua garatzeko Ekintza Plana, kronogramea eta sail bakotxak eta Foru Sektore Publikoko erakundeek egin beharreko jarduketak zehaztuta.

Foru Gobernuaren mozino hau presaka egin dala uste dodala esan behar deusuet. Orain, azaldu egingo deusuet zergaitik erantzuten dodan Bardintasunerako VI. Plana urriaren 30a baino lehen aurkeztu behar zala inoan zuzenketearen bidez. Horri buruzko hausnarketa batzuk. Presaka egin dala aitatu dot, oso bitxia dalako epea funtsezko helburu daukan zuzenketea aurkeztea, kasu honetan urria aitutzen zan, eta epea hori eskuz, bai, eskuz idatzi izana horretarako libre itxitako tarte batean. Egia esan, Foru Gobernuako jaun-androk, ez dot uste oso estetikoa danik hori aurkeztea eta, nire eretziz, horren inguruko hain konpromiso urria erakustea.

Era berean, harri eta zur geratzeko modukoa da Gobernuak bere buruari zeozer egiteko eskatzea. Autortu egin behar dot ez dodana inoiz holakorik ikusi. Instituzino batean ez dot inoiz ikusi Gobernuak bere buruari eskatzea gauza zehatz batzuk egiteko. Ganera, egia esan, autortu egin beharra dago horren bidez modu inplizituan be autortzen dabena egin egin beharko ebena eta egin ez dabena.

Nire ustetan, antzeko zeozer be jazoten da Bilduren mozinoagaz. Bertan, eskatu egiten da legealdian bertan Bardintasunerako Foru Araua garatzeko Ekintza Plana aurkeztu daitela. Parkatu, baina Osoko Bilkurako gai-zerrenda berrikusten nengoala atzo niretzat egin neban hausnarketea partekatuko dot zuokaz. Hara, nik ez dot ikusten bihar Ganbera honetara nonor etortea, Ogasun eta Finantzetako foru-diputadua, berbarako, eta Jarduketa Plana, Ekintza Plana egin daiala eskatzea, Persona Fisikoen Errentearen ganeko Foru Zergeari buruzko Foru Araua beteteko, legea bete egiten dalako eta kitu. Ganera, uste dot lehen nonork aitatu dauala Osoko Bilkura honetan. Zer jazoten da, bada? Bardintasunagaz zerikusia daukienak ez dirala ogasunagaz eta finantzakaz zerikusia daukienak baizen garrantzitsuak? Guk geuk, oposizionetik, abantailea emoten deusagu Gobernuari, foru-arauak parekoak izan ez daitezkan. Batzuk bete egiten dira, eta kitu. Beste batzuetan, ostera, jarduketa-planak, kronogramak egin behar dira, eta posizinoa jatsi beharra dago datarik jarri barik be. Horra hor atzo niretzat egin neban hausnarketea.

Arabere gehiago, Foru Gobernuaren zuzenketeari barriro eutsita, Bizkaiko Bardintasunerako 2020-2023ko VI. Plana egiteko eskatzen da. Bardintasunerako aurreko Planari, bosgarrenari, erreparetan badeusagu, indarraldia 2019an amaitzen zan. Hurrengoa, suertea lagun, 2020ko zemendia baino lehen egongo da abian. Etenpuntuetan jarten zenduen data horregaitik dinot. Halanda ze, zer jazo da 2019ko abenduaren 31tik 2020ko urriaren 30era arte? Ez dozue uste lan hori eginda eta aurkeztuta egon beharko litzatekeanik? Nik neuk azalduko deusat Foru Gobernuari zer jazo dan gai honegaz. Foru-hauteskundeak daukie izena, eta, neurri handi batean, orain be jazoten da.

Laster, hauteskundeak eukiko doguz barriro, kasu honetan, autonomikoak. Dana dala, batzuen ustetan, aurrea hartu beharra dago, garrantzi soziala daukan gaia dalako. Batzuetan, norberak, hainbateko zaratearen ondorioz, uste dau garrantzitsuagoa dala manifestaldiaren aurreko aldean lehenengo agertu gura izatea, Rementeria jaunak esango leukean lez, “izenburu erraza bilatzea”. Bereizi barik, lortzeko eta hau lorpen moduan aurkezteko gizonen eta andren bardintasunaren helburua erdiesteko orduan. Gero, erdibidekoa da, eta, azken batean, jatorrizkoa da. Zuzenketek kontuan be ez dau hartzen, eta, erdibideko horretan, esan dodan lez, posizinoa jasten dabe. Lege hori bete egin behar da, baina orain eperik be ez deusagu jarten Foru Gobernuari. Ni neu ezin naz ados egon horregaz. Dana dala, nire taldeak, behintzat, erantzunbeharrez lan egin gura dau. Ukatuezina da andren eta gizonen bardintasunaren alde daukan balio soziala, eta administrazino publikoak arlo horretan bete behar dauan zeregin erabagigarria. Horixe izan zan gure konpromisoa, eta gure konpromisoa izaten segiduko dau. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Por último, señora Cabornero Alor, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos. Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arauaren bidez, 2018ko garagarrilean, ondo esan dan lez, behar besteko makineria jarri zan abian, bardintasuna gure lurraldeko agenda politikoko lehenengo puntuan lekurtzeko. Batetik, erabateko erronkea eta aukera handia zan, bardintasunerako eta indarkeria matxisten desagerpenerako politiken arloan urrats kualitatiboak eta kuantitatiboak emoteko. Bestetik, etxe honek aspalditik andrakaz eukan betebeharrak historikoa zan. Sasoi horretan, kontzeptuak, hausnarketak, eztabaidak eta idea feministak ikusiezinak ziran ia-ia.

Garaiak, ostera, aldatu egin dira, eta, une honetan, mobimentu feministari esker, gaur egun feminismoak eta bere proposamenek gero eta zeresan handiagoa daukie. Une honetan, gero eta andra gehiagok eta gehiagok argi eta garbi eskatzen dogu jagokuna gura doguna. Aldaketa sakonak eskatzen doguz. Dana dala, egia da urratsak emoten joan dirana, Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arauaren onarpenaren ondorioz aurrera egin dana eta txostenak egin dirana, Bardintasuneko teknikarien lanpostuak sortu dirana, bardintasunerako ekintzetarako aurrekontuaren ia-ia %1 erabili dana. Tira, bai, hori guztia egia da, bai.

Hori agirikoa da, eta horretan beharrean dabilzanen lana balorau gura dogu. Edozelan be, Foru Arauaren garapenari jagokonez, argi-argi dago nahikoa flematikoa dan makineria daukaguna eta ailegetan ez dana, geldiro-geldiro doana, astiroegi doana. Astiro-astiro. Arauan bertan zehaztutako epeak beteten ez badira, ez da izapideen abiadeagaitik izango, ez da emon beharko doguzan urratsak barriro be ondo, oso ondo zehaztu beharko diralako izango. Ez da horregaitik izango, gurago dalako astiro joan, urrats geldoak baina seguruak emoteko. Hemen, gauza seguru bakarra dago, hau da, oraindakarren feminismoak eta bere proposamenek bidea erakusten deuskue, eta abiada batean aurrera egiten dauan feminismoari segiduteko abiadea, instituzino moduan atzean, atze-atzean ixten gaituala kontuan hartuta.

Esperientziak egiazta egin deusku gizarte batek aurrera egiten dauana andren eskubideek eta tratu zein aukera bardintasunaren autortzeak aurrera egiten daben neurri berean, funtsezko zutabeak diralako bere garapenean. Halanda be, Foru Arau honen garapena azearen garapena lez egituratu leiteke, zeozelan esatearren, motela, ezin motelagoa. Androk, barriz, ez daukagu geldotasun hori onartzerik. Elkarrekin Bizkaiakook jakin badakigu makineria horri koipea emon ahal jakona. Kontua ez da ahal izatea, makineria hori azkartu eta koipea emon behar deusagulako, sasoiaren parean egoteko. Izan be, bardintasunaren arloko erritmoen aldearen ondorioz, desbardintasunak dagoz soldatetan, aukera-desbardintasuna eta immobilismo patriarkala dagoz, andren eskubideen urraketea kronifiketan da, langabeziak gora egiten dau eta, horren ondorioz, txirotasuna andratu egiten da. Txirotasun otzana. Holantxe definiduten dabe alde ugariko erakundeek. Kostu txikiko eta eragin txikiko txirotasuna, zainketetako etxeko lana ikusiezin egiten dauana eta andrekin lan-merkaduan daukien zeregina behin eta barriro gitxitzen dauana.

Andren eta Gizonen Bardintasunerako Arauaren 1. kapituluaren 50. artikuluan esaten danez, genero-ikuspegia txertatzean, alkargunetzearen printzipioa hartu beharra dago kontuan politika sektorial guztietan. Diseinetean, garatzean, jarraipena egitean eta ebaluetean, kasuan kasuko eskumenen esparruan ezarri behar dira andren eta gizonen benetako bardintasun eraginkorra lortzeko neurri bereziak. Edozelako bereizkeriari aurre egiteko eta indarkeria matxistak desagerrarazoteko. Etxe honetako batzarkide jaun-androk, oso-oso urrun gagoz aurreikuspen horreen lorpenetik. Bardintasunerako Foru Arauak bardintasunerako politikak bultzatu leikez, baina, oraingoan, urrats gitxi eta lotsorak baino ez dauz emon, antolakuntza-arloko mobimentuei begira baino ez.

Mobimentu feministek eskatzen deuskunez, arinago joan behar gara, eta, oinadak emon behar badoguz, emon egin behar doguz. Aspalditik, andren eta gizonen bardintasuna lortzearen dagozan herrialdeek argi eta garbi itxi dabe erakundeek eta gizarteak ekintza zehatzak eta proaktiboak ezarri behar dabezana hori jazoteko. Horretarako, ostera,

androk ez dogu asteko zereginen zerrendan erantsi behar geure eskubide guztiak errespetarazoteko moduko etenbako burrukea. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Ahora, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días, de nuevo. Resulta complicado, puesto que creo que lo que hoy debemos subrayar, y ese es nuestro objetivo, es el acuerdo alcanzado. Debo comentar algo sobre las intervenciones realizadas. PPko ordezkariagaz, Fernández andreagaz, hasiko naz. Antza, esan egiten deusku hori, hain zuzen be, ez litzatekeala Ogasuneko arau bategaz jazoko. Holantxe da. Halanda be, Ogasuneko arau bat eta Bardintasunerako Foru Araua be ez dira bardinak. Ez, bata lehenengo edo bigarren mailakoa dalako, Bardintasunerako Foru Arauaren ondorioz, esan dodan lez, eta proposamen feministen onarpenaren ondorioz, gizartean erabateko aldaketea egin behar dalako baino. Era berean, instituzinoan be egin behar da erabateko aldaketea, gu guztion artean be egin behar da erabateko aldaketea. Egia esan, hori ezin da egun batetik bestera egin, baina aurrera egiten joan beharra dagoala uste dot.

Lehen egunean be esan neban. Legea eta errealidadea ez doaz beti eskutik. Bardintasunaren arloan, agirikoa dala uste dot. Eusko Legebiltzarreko Bardintasunerako Legea daukagu 2005etik, eta, zer esanik ez, ez da bardintasuna lortu. Izan be, lege horretan agertzen diran gauza asko ez dira oraindokarren bete. Halanda ze, nire ustetan, ezin da esan legea badagoala eta kitu. Ez, ba. Hain zuzen be, gure itaunak eta gure mozinoak honako hauxe eukien helburu: txipa aldatzea, esango neuke nik, beharrezkoa dala adierazotea eta askotan agirikoak izan ez arren berbabide eukitako zailtasun horri eta erresistentzia horri benetan aurre egin behar izatea, geure jardunbidean aldaketak egiteko. Izan be, nire eretxiz, arazo handiena, nonork esan dau, Elkarrekin Bizkaiak, nik uste, hau makineria izatea da. Hain zuzen be, nekez mobiduten dan transatlantikoa danez, indar guztiak batu behar doguz, benetan zeozer mobidu daiten. Izan be, esan egin behar dot, zoritxarrez, oso gitxi mobidu dala. Neu be bat nator horregaz. Edesa andrearen esanetan, bardintasunaren inguruko konpromisoa agirikoa da hor. Nik neuk ez dot konpromisoa kolokan jarriko. Badaukagu konpromisorik, baina arazorik be bai, konpromiso hori ezarteko modua oso bereizgarria da, eta esan egin behar dot. Esan egin behar dot, lehen egunean esan nebalako sailtako araudi guztiak onartzen dagozala, Sustapen Ekonomikokoak izan ezean, eta Bardintasunerako Legea beteten ez dabena autortu nebalako. Lehen egunean esan neban.

Ahora, se lo diré al señor Rementería. Ha comparecido el Gabinete del Diputado General, y ni una sola mención sobre la igualdad. Es grave, ya que es usted el responsable principal y es un referente para todos los departamentos y si su usted no lo hace... Es una pena que no esté Ibone Bengoetxea, pero ha admitido otra cosa. El órgano de garantía vinculado a la Norma Foral de Incompatibilidades. En el mismo, se dice, se justifica que no existe impacto de género, que no hay impacto de género porque se trata de una institución, porque es una cuestión organizativa. Eso está obsoleto, eso era en el reglamento que teníamos, donde se decía cuándo se debía elaborar el informe sobre impacto de género y cuándo no. Sin embargo, ahora, la Norma Foral para la Igualdad dice que todos los órganos deben ser paritarios. Por tanto, ese órgano de garantía también deberá ser paritario, por lo que sí influye. Por ello, ¿qué me parece a mí? Que estamos funcionando como si no existiera la Norma Foral para la Igualdad. No sé cuántos/as habremos leído la Norma Foral para la Igualdad y cuántas veces hemos reflexionado sobre lo que supone todo lo que está escrito ahí.

En el Pleno anterior me referí a no sé cuántas cosas, y puedo continuar refiriéndome a ellas: cuántas cosas que se establecen en la Norma Foral para la Igualdad deben

desarrollarse. Creemos que eso requiere muchísimo trabajo, y por eso planteamos en nuestra moción, así como en la transaccional, llevar a cabo una planificación. Por supuesto, esa planificación nos permitirá ver a todos/as qué debemos hacer y cuándo en todos los departamentos, en todas las entidades del Sector Público Foral. Eso nos dará tiempo, y nos convencerá. Hasta este momento, no hemos cumplido ni un solo plazo. Seguramente, no vamos a cumplir los plazos, en la transaccional no se concreta el plazo, pero nosotros/as no claudicaremos, estaremos muy atentos/as. Lo he dicho antes, se debe cumplir realmente lo que se va a aprobar aquí. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Ikusi daigun hemen zer daukagun berbabide badakigun. Izan be, emoten dau gai labana jarri dogula hemen eta, bertan, mundu guztia datorrela eta edonora botaten dauzala baloiak, kolokan jarten dauzala asko egiten dan, gitxi egiten dan, sasoiz gabilzan, berandu gabilzan, duintasuna... Egia esan, horren guztiorren azpian dagoana giza duintasunaren inguruan daukagun kontzeptua da. Oso gitxitan berba egiten da kontzeptu horri buruz, giza duintasun osoaren oinarri bada be.

“Plangintzea, ezarpena, jarraipena eta ebaluazinoa” izeneko 21. artikuluari buruz gabilz berbetan. Aspalditik, Urkaregi andreak behin eta barriro esan dau orain badaukagula araurik. Batez be, orain, zelan beteko dogu foru-egitureari jagokon guztia, sailetan nahiz Aldundiko soziedadeetan? Zelan egingo dogu? Zer epetan? Zer organugaz? Nork ikuskatuko dau? Horixe da kontua. Halanda ze, proposamena egiten deuskuzu. Guk, EAJK eta Alderdi Sozialistek, zuzenketea aurkezten deusugu. Ganera, beste inork ez dau zuzenketa aurkeztu.

Guk aurkeztu egin dogu. Eztabaidea dago, eretxi-trukea dago eta adostasuna lortzen dogu. Batez be, honako hauxe da adostasun horren borondatea: arrakastea baloretan segidutea. 4/2018 Foru Arauak bertotik urten eban aho batez, eta arrakastea da. Lan eskergea egiten dago. 65 artikulua, 15 xedapen gehigarri, 4 titulu. Irakurri egiten dogu. Badakigu zertan datzan. Ostantzean, beste edozein gauzari buruz berba egitea da garrantzitsuena. Bizitzeari buruz daukadan ikuspuntua botaten dot, eta zelako bidebakokeria zuontzat guztiontzat, nire moduan pentsetan ez dozuelako. Zer polita! Errazoia emoten ez deusugulako ez dogu bardin pentsetan? Bizitzea ikusteko era bakar bat baino ez dago? Zer posiziotatik?

Laidoa jasaten dauanaren posiziotik, horretarako aukerea emoten dauan egiturearen bidez betearazoten dauanaren posiziotik? Aldundiak ez dau gizakien inguruko ezelako irainik onartzen, baina, kasu honetan, gizonen eta andren beharrezko bardintasuna nabarmentzen dogu gaur Laespada andreak zuzentzen dauan sailaren lanaren bidez, danon laguntzaz, danon ahobatezko adostasuna lortuta garatu dauan Foru Arau handia. Orain, garatzen dago. Barriro dinot. Honetan borondate iraunkorra dauka urratsak gura dauzan Urkaregi andreak, autortu egiten dogulako egiturak handi-handiak dirana, oso pakidermikoak, esakunea onartzen badeustazue. Ganera, oso geldoak be badira, inertzia handia dalako, aldatu egin behar dalako eta epeak jarri behar diralako. Horixe bera adostu dogu. Politikan irakatsi eustenez, azterketa zientifikoan lez, edozein gairen aurrean zeure buruari itandu, aurreikuspenak sortu eta gehien bakantzen dauan irakurketea bilatu. Seguruenik, egiazkoena dan irakurketea da gatxena eta latzena, ez errazena. Gaur, hemen, hauxe daukazue berbabide, honexegaitik. Izan be, eskura jarri dabe, badago asmorik, datea bera be bazan eztabaidagai, baina ez egoan ezelako asmo txarrik. Horren adierazgarri, lan eskergea egin dogu adostasuna lortzeko, eta horixe da balio dauana, Foru Arau danagaz bat datorrelako. Ganera, Ganbera honetatik urten ebanez, beste edozein adierazpen maltzurra da, bokazino moduan be ez dagoan zorra igorten jakelako ganerakoei. Niretzat gizakien duintasuna da interesgarria, euren izaera sexuala edozelakoa dala

be, euren prestakuntza akademikoa edozelakoa dala be, euren sorterrria edozein dala be, danok batzen gaituana duintasuna dalako. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Edesa Gómez, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Lehenengo eta behin, balorau egin gura dot holako gaietan adostasuna lortzea. Bai, bere lana eta bere inplikazioa autortuko deusadaz Urkaregi andreari. Halanda be, ezin dot berbera esan, batetik, Fernández andreari buruz, bere kezka nagusia hasierako zuzenketan Tippex egotea izan dalako. Benetan, nasaiaigo nago, horretan geratu dalako, beste barik. Izan be, uste dot benetan ez zenkiela zertan zetzan hasierako zuzenketa hau, zertan zetzan sinatzen gagozan akordu hau. Era berean, uste dot ez dakizula zertan datzan instituzino honetan daukagun Foru Araua.

Cabornero andrea, zure diskursoan geldiro goazala esan dozu funtsean eta azkarrago joan behar garala. Hortik atera ahal izan dodan bakarra da, ez jatalako ezer argi geratu, benetan. Joan dan legealdian Foru Arau hau onartu genduanean ez egozan Fernández andreari eta Cabornero andreari gogoratuko deuset, egin zan lan guztia gogoratuko deusut. Gogoratu egingo deusut taldeen 98 zuzenketa onartu genduzala, EH Bildurenak eta zure taldearenak, hain zuzen be. Zure ordezkariak, Eneritz De Madariaga andreak, eztabaida haretan esan ebazan berbak gogoratuko deusudaz. Zera esan eban: “lan eskergea egin dogu, eta egiten segiduko dogu, ekarpenak egiteko”. Gaur zuri entzunda, benetan, ekarpen gitxi ikusten dodaz. Argi dago joan dan legealdian lan ona egin zana Aldundi honetan. Aldundi honek Foru Arau ona egin eban. Ganberako talde guztiek aberastu eben Foru Arau ona. Foru Arau hau konpromisoaren adierazgarri da, Aldundi honek bardintasunagaz daukan inplikazioaren erakusgarri da. Legealdi honetan, urratsak emoten segiduko dogu, eta horretan lan egiten segiduko dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, Señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Egun on barriro. Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Azken agerralditik hasiko naz, Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak egin dauan agerralditik. Ulergarria da nire inguruko zalantzak eukitea. Badakizu zer jazoten dan? Zuk ez nozula ezagutzen. Oso arraroa izango litzateke zuk nik dakidazan gauzak edo pentsetan dodazan gauzak jakitea. Halanda ze, zentzun horretan hartuko dot, kontrakoa zentzunezko azalpenik eukiko ez leukeana izango litzatekealako. Zuk, zuzenketa honen bidez, egiten dozuna, eta gero aitatu be egingo dodan Alderdi Sozialistek egiten dozuena da, modu inplizituan autortzen dozue eginkizunak itxi dozuezana, erdibideko zuzenketa horretan Foru Araua garatzen jarriko zariela dinozuelako, ez darabilzuelako zuon zuzenketetan ohikoa dan makulu-berbea, hau da, “lanean segiduten dogu”. Honetan, aitamen hori be ez dozue egiten.

Etenpuntuena, Tippexena, autortu be egin dozue. Jakina, garrantzitsua da, garrantzizkoa da, Andren eta Gizonen Bardintasunerako VI. Plana aurkezteko eta onartzeko datea be ez zeunkielako zehaztuta. Halanda ze, zeuok autortu dozuen lez, Gobernuo kideek bakarrik irakurri ei daben Foru Arauaren atal garrantzitsu eta nabarietakoa be bada. Izan be, Gobernu honek eta babesten daben taldeek oposizinoak paperak be irakurri daikezana autortzeko gaitasunik be ez daukie. Hara, Gobernuari eusten deusien taldeek bakarrik egin beharreko zeozer da hori. Zuok onartu eta bozkatuko dozuen zuzenketa horretan, nire eretziz, jakina, zuzenketearen eukia ona dana autortzerik ez daukazuenez, “adostasunagaitik egiten dogu”. Hara, niri bost axola zergaitik egiten dozuen, idatzita dagoana onartuko dozuelako.

Zeun errazoiak azaldu deuskuzue, baina idatzita dagoana onartzen dozue. Autortza inplizitua da, eta eginkizunen itxiera argia da, Bizkaiko gizartearentzat garrantzitsua dan gaian: bardintasuna eta andren zein gizonen bardintasanaren helburuaren lorpena.

Bilduko ordezkariaren esanetan, hara, zuk zerga-araua aitatu dozu, eta zera dinozu: “bardintasanari buruzkoa ezin da maila berberaz neurtu”. Hori zure taldearen posizioa izango da, orain dala gitxi Ogasun eta Finantza Batzordea euki gendualako eta, bertan, aldaketa ezin handiagoa proponidu jakulako, oso garrantzitsua dan zeozer, errenta-autorpena, alegia, aurkezteko modua eraldatu ahal izateko. Era berean, oso aldaketa handia be bada eten digitala jasaten daben bizkaitarren zati handi batentzat. Esan jakunez, hori holantxe izango zan bai ala bai, eta egokitzen joan beharko ginan, Foru Gobernuko egiturak eta, batez be, Ogasun eta Finantza Saila ez eze, bizkaitar guztiok be bai. Holan, bada, nik talde moduan onartu ezin dodanez, ez dot uste ez nik bardintasuna gehiago defendiduten dodanik ez nik personearen duintasunean gehiago sinisten dodanik, nik neuk bertan gagozanok hori egin beharko geunkeana jakintzat emoten dodala kontuan hartuta. Dana dala, nire taldeak ez dau eskakizunik gitxituko, guretzat funtsezkoa dan gai batean, hau da, Bardintasunerako Foru Arauan. Beste barik, Alderdi Sozialistako ordezkariari erantzun gura deusat bere taldeko ordezkariak Osoko Bilkura honetako beste puntu batzuetan egin dauzan adierazpenen bidez. Bere esanetan, legezkoatasuna bete egiten da bai ala bai, eta, ostantzean, badakigu non dagoan hori salatzeke foroa. Izan be, ez dau emoten erdibideko zuzenketa moduan izango danik. Nik, behintzat, ez dot berak esandakoa holan interpretau. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Para concluir el debate, señora Cabornero Alor, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea, barriro. Otermin jauna, onartzen badeustazu, nik andra moduan daukadan ikuspegitik ebaluau edo sentidu edo barruntauko dot arauaren aurrerakuntzea. Zuok egiten zabilzen aurrerakuntzak eta lurzoru-mailan, kalean bertan daukien eragina kontuan hartuta, onartu egingo deustazu, zuk ondo esan dozunez, duintasunagaitik errespetauko deustazu. Epeak ez betetea edo ahal danik eta gehien luzatzea baizen garrantzitsua ei da Foru Araua bera berez ez betetea. Egoerea ondo taitututa ez badago, planik ez badaukagu edo berandu badaukagu, arauaren garapena eragozten segiduko dogu, eta dana moteltzen segiduko dogu. Elkarrekin Bizkaiakook bat gatoz mozino honetan aurkeztutako kezakaz eta ardureagaz. Ganera, Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua onartutako araua bakarrik izatea be ez dogu gura eta ahaztea eta sustapena bakarrik bultzatzea. Hemen, Ganbera honetan bertan bere egunean adierazo genduaneez, esan genduaneez, arau honek nekez mobiduko ebazan gure antolakuntza sozialaren oinarriak, nahiz eta andren aurkako indarkeria zein desbardintasuna sortzen dauzan, nahiz eta betearazpenerako nahikoa berme be ezarten ez dauzan. Izan be, horren adierazgarri da arauak bere garapenerako planik ez eukitea. Bestetik, ez dauz Aldundiagaz lotutako enpresak zigortzen, arauan bertan zehaztutako aginduak beteten ez dabezanean. Arauak enpresarien enpresei ixten deutse, nahiz eta pentsau genero-ikuspegia saltegi handietako inbentarioaren aurretikoa dala. Horrezaz ganera, kontuan hartu beharra dago sail batzuentzat, orain arte egiaztatu daben lez, bardintasuna ez dala inoiz lehentasunezkoa izan. Gaur egun be, genero-ikuspegia nekez txertatu daiteke gai batzuetan, oinarritzkoenak diran gaitan, alegia. Oraingoz, arauak ez dauka planik, ezta etorkizuneko plana egiteko datarik be, eta, ganera, sail bakotxaren babespean ixten dauz preminen diagnostikoa eta balorazioa.

Izan be, araua euren neurrira garatzeko eginkizuna abian jarten ez dabenean eta euren sailetan genero-ikuspegia be ezarten ez dabenean, kargudun politikoez ez daukie erantzunik edo ezelako zigorrik. Testuinguru hori kontuan hartuta, erraza da ulertzen sail batzuetan hartu daikiezan erabagiak, Ogasun Sailean, berbarako, Bizkaiko Lurralde

Historikorako aurrekontuak egitean ez dauhalako ulertzen zelan ezarri genero-ikuspegia. Saileko zuzendaritzan, lau gizon eta andra bat dagoz. Azpiegitura Sailean, ostera, 0 andra dagoz zuzendaritza-taldean.

Edesa andrea, planak, ekimenak, arauak eta artikulak onartzea ez da betearazpenaren bermea, eta hementxe ikusten dogu. Gaur, argi eta garbi ikusten gabilz. Berandu baino lehen egiten eta aurkezten, aurkezten dan plana gura dogu. Plan horretan, behar besteko mekanismoak zehaztu eta ezarri behar dira, andrekin erabagi-guneetan parekotasunez sartzeko aukerea euki daien. Datadun plana, datarik ez zehaztean, arauaren garapenetik aldentzen garalako barriro eta, bestetik, ostera, asmo-adierazpen hutsera hurreratzen gaitualako. Foru Araua garatzeko plan hori egokia, asmo handikoa izan behar da, eta presaka egin behar da. Horretarako, aurrera segiduten laguntzeko moduko ekimenak behar dira, baina azkarxeago, eta jotearen erritmora izan behar bada, holantxe izan daitela. Lehen adierazo dogun lez, oso zeresan nabariko da bardintasunaren eta eskubideen arloan. Datea proponidutea erabagiko dan adierazotea gura geunke, baina, batez be, boto-asmoari begira. Muchas gracias. Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. La especificación que ha solicitado es la que se someterá a votación, la transaccional, tal y como ha sido firmada y registrada. Lo que significa que se retiran la moción y la enmienda que se han presentado previamente y que someteremos a votación la transaccional. Por tanto, votemos. El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 46: 44 votos a favor, ningún voto en contra y 3 abstenciones. Por tanto, se ha aprobado la transaccional.

Punto quinto del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2019/0002256](#))

Autor: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Asunto: Memoria, reconocimiento y reparación de víctimas de violencias machistas.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2019/0002256](#)), ([R.E.11/E/2019/0002340](#)), ([R.E.11/E/2019/0003053](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (25A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (25B), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (25C)

Expediente: ([11/B/26/0000515](#))

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2019/0002256SE](#))

Egilea: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Gaia: Indarkeria matxistaren biktimen oroimen, autortza eta erreparazioa

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2019/0002256SE](#)), ([11/E/2019/0002340SE](#)), ([11/E/2019/0003053SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (25A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (25B), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (25C)

Espedientea: ([11/B/26/0000515](#))

Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, de nuevo. Buenos días a todos/as. Gaur, hasteko, gogoratu egingo dot, gogoratu egin gura neukez eta oroimen-egintzea egin gura neuskie ahiztei, lagunei, amei, lehengusinei, auzokoei, alabei, amumei.

2020ko urtarrilaren 6a. Mónica 28 urte eukazan, hilebete batzuk eroiazan bere lan barrian, bidaia-koordinatzaile moduan. Bere Instagram bidaiaz, barrez, lagunak ateratako argazkiz beteta dago, baina, batez be, 3 urteko Zihara alabeagaz ateratako argazkiz beteta. Errege egunean, edadebakoaren aitak Mónica eta Zihara hil ebazan. Mónica diborziorako izapideak egiten ebilen abendutik, baina ez egoan aurretiazko salaketarik.

Urtarrilaren 12a. Olga, 61 urtekoa. Urtebete inguruko hartu-emonaren ostean, Olga Albacetera joan zan bere bikotekide barriaren etxera bizitzen. Hilebete geroago, Antoniok 4 tiro jaurti eutsazan, eta bere buruaz beste egin eban bosgarren baleaz. Aurretiazko salaketarik be ez egoan.

Urtarrilaren 18a. Judith, 29 urtekoa. Praktikak egiten hasi zan Erizaintzako laguntzaile moduan. Bere bikotekide ohiak, mosso d'esquadra batek, ez eban banaketea onartzen, eta jazarri egiten eban. Zapatu gau batean, buruan egin eutsan tiro, eta, ostean, bere burua hil eban.

Urtarrilaren 22a. Dimitrik Larrialdietara deitu eban 43 urteko Liliana emazteari labaina sartu eutsala esateko. Liliana bere etxean erail eben, 11 eta 14 urteko seme-alabak etxean beragaz egozala. Edadebakoak auzokoaren etxean babestu ahal izan ziran.

Urtarrilaren 22a. María, 73 urtekoa. Senarrak samea ebagi eutsan. Odolpozu handian topau eben bere etxeko sukaldean. Mariak aurreko hartu-emon bateko alabea eta semea eukazan.

Urtarrilaren 25a. Manuela, 79 urtekoa. Senarrak erail eban, eta, krimenaren ostean, bere burua hil eban leihotik behera botata.

Urtarrilaren 28a. Goizaldeko 3etan, 45 urteko María topau eben bere etxean erailda. Mariak alaba nerabea eukan.

Zezeilaren 9a. Ana, 34 urtekoa. 3 urteko umei emoten eutsen klasea. Senargaiak labainea sartu eutsan Anari, kalean bertan. Ana neskato txiki baten ama zan.

Zezeilaren 10a. Clara, 49 urtekoa. Clara bere amak topau eban, etxera janaria eroaten joan jakonean. Bainugelan egoan, eta 3 labainkada eukazan saman. Edadebako alabea itxi dau umezurtz.

Zezeilaren 18a. Aliana, 34 urtekoa. Samea ebagi eta sastar-eukiontzira bota eben. 14 urteko mutil baten ama zan.

Eraildako 11 andra. 6 edadebako umezurtz, aurton. Androk andrak izatearren bakarrik erail dabez. Andra horreen guztien eta gaur egun berbabide ez diran beste askoren oroimenez, isilunea egiten dogu egun batean, baina, gero, beste askorik ez. Giza eskubideak errespetetan ei dauzan gizarteak andrek giza eskubideen arloan jasaten dabez egiturazko urraketei aurre egin behar deutse oroimenaren eta ordainaren bidez. Izan be, gure ikasbide sozialak oroimenean dagoz oinarrituta, eta andren belaunaldi barriei igorten deutseguz. Oroimenaren bidez, geure etorkizun bateratuaren zutabeak finkatzen doguz. Gaur egun, arakatu beharreko lan-arlo handia dago oraindakarren, aurrera egin beharra dago oroimenerako eta ordainerako politiketan, arlo horretan. Izan be, oroimenak eta autortzeak salatzeiko ikarea galtzen laguntzen deuskue, baina sare kolektibo eta sozialak ezagutzen, ehuntzen eta bertan parte hartzen be bai, indartsuagoak izateko eta prebeniduten eta osatzen laguntzeko. Indarkeria matxistak jasan dabez andren ordaina, ordaina, autortzea eta oroimena arreta integralaren osogaiak izan behar dira, eta funtsezko tresna dira, giza eskubideen kultura zabaltzeko eta indarkeria matxista bako gizartea eratzeko.

Joan dan abenduan, auzokoek eskatuta, 3.600 sinadura batu ziran, eta Nagore Lafaggeren izena jarri jakon Irungo parke bati. Ama, Asun Casasola, erreferentzia argia da oinazetik abiauta oroimena eta pedagogia zelan egin daitekezan ikusteko, eta zera inoan adierazpen batzuetan: “hemen, Irunen, ez dabe ahaztu gura, oroimenak bizirik irautea gura dabe, holako kasuak barriro jazo ez daitezat. Ekitaldi txikia da, baina oso sinbolikoa. Nire eretziz, garrantzitsua da gizartearentzat, ikusten ez dan guztia ahaztu egiten dalako. Orain edo urte batzuk barru Nagore nor izan zan itantzen dauan mundu guztiari azalduko deustie”.

Asun Casasolak oso ondo azaltzen deusku herri batentzat zeinen garrantzitsua dan indarkeria matxistako biktimak eta bizirauleak ez ahaztea, agirian jarrea eta eremu publikora eta oroimen kolektibora eroatea. Arauz besteko proposamen honen bidez, behar besteko laguntzea emoten dogu, oroimen horrek andra bakar bat be atzean itxi ez daian. Arauz besteko proposamen honen bidez, behar besteko laguntzea emoten dogu, lurraldeko udalen laguntzaz politika publiko zehatzak sustatzeko. Oroimen kolektiboa eta oroimen historikoa eratzen laguntzen dogu, eta, horretarako, ordain sinbolikorako eta autortzarako ekintzak diseinetan doguz, ekitaldi instituzionalen, eremu publikoetako elementu oroigarrien... bitartez. Arauz besteko proposamen honen bidez, behar besteko laguntzea emoten dogu, indarkeria matxisten kontakizunak isilarazo gura dabezanen aurrean edo gizarte moduan erakusten deuskuen argazkiari aurre egin gura ez deustienez desitxuratu egiten dabezanen aurrean txertoa dan oroimena bultzatzeko. Arauz besteko proposamen honen bidez, indarkeria matxistetako biktimen eta bizirauleen lekukotasunak kontuan hartzen dabezan materialak diseinetan eta egiten laguntzen dogu, prebentzinorako eta sentsibilizaziorako eginkizunetan erabili daitezat. Guk, geure eremu politikoko instituzinoetatik, herritarrei eskatu behar deutsegu sare sozial bizietako giza ehunaren osogaiak izateko, oroimena egiteko, indarkeria matxistetako biktima guztien autortzea eta ordaina egiteko. Izan be, gauza bat egia da. Ez dago oroimen bako etorkizunik, eta ez dago ordain bako justiziarik. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Orain, ez dakit nondik hasi, Eusko Legebiltzarrean egin dan eztabaidea berregiten dalako ia-ia. Zure agerraldian, Eusko Legebiltzarrean daukazuen ordezkariak esandako paragrafo zehatzak darabilzuz, eta, bertan, adostasuna zein batasuna lortu ziran, zer egin behar zan zehazteko. Gaur, arauz besteko proposamena dakarskuzue hona, ezarpen bila, baina foru-eskumenekoak ez diran gauzak eskatzen jakuz.

Lehen egunean, zure proposamenari, gure zuzenketeari, EAJgaz sinatutako zuzenketeari buruz berbetan egon ginanean, esan egin genduan, “arazotxua daukagu hemen”. Izan be, antza danez, badaukagu proposamen bati ezetz esaten urteterik, emoten dau Batzarrok ezetz dinotsiela Eusko Legebiltzarrean esan danari, eta ez da egia. Guri, behintzat, Gasteizen daukadazan kideei, lehenengo eta behin, Batzar Nagusiok Aldundiari eremu publikoko ekintzak egiteko eskatu deioela eskatzen bajaku, horretarako eskumenik ez daukagunean, udalen eskumenekoa dalako, txarto hasten gara. Batzarrok Bizkaiko udalen koordinatzaile nagusia dirala ulertzen danean, ez dogu ulertzen zer diran Batzarrak. Hortxe dago Eudel. Halanda ze, gauza bi eskatzen bajakuz, gure eskumenak zein diran eta betearazo ezin doguzana jakinda, Eudelek edo beste edozein erakundek errekursoa aurkeztuko leukealako, ezin dogu hau onartu. Hori dala eta, zuk esan zenduanaren inguruko zuzenketa alternatiboa aurkeztu genduan, egokitzeko asmotan. Hau da, Gasteizen esandako berbera esaten segidu gura dogu, udalen, gobernuen, Aldundiaren eta Batzarren jarduketa-esparruak errespetauta. Horri jagokonez, batzar-egunkarian agertzeko baino ez bada be, guk aurkeztutakoari emon gura deustat erantzuna. Ez dauka beste asmorik.

Zuzenketea aurkeztu dogu, eta, horren bidez, geure Foru Aldundiari eskatzen deutsagu artxibo berezia sortu daiala, objektuak ikertu eta gorde daitezcan eta gizartean, legeetan eta komunikabideetan Euskadiko indarkeria matxistetako biktimen autortzea eta estimazioa zelan bilakatu diran zabaltzeko, kontzientzia sortzeko eta dokumentetako erabili daitezcan; eta bardintasunerako eta indarkeria matxista bako bizitzetarako hezkuntza-modulua abian jarri daiala DBHko laugarren mailako eta Batxilergoko ikasleentzat, batez be, indarkeria matxistetako biktimen, indarkeria matxistetako bizirauleen lekukotasunen barri emoteko.

Era berean, Eusko Jaurlaritzeari eskatzen deutsagu ganerako erakundeakaz lan egiten segidu daiala indarkeria matxistetako biktimen eta bizirauleen autortzeari eta ordainari begira, oroimen kolektibo eta historikoa eratzeko. Lan egiten segidu daiala, era bateko eta besteko materialak egin daitezcan eta gizartean, legeetan eta komunikabideetan indarkeria matxistetako biktimen autortzea eta estimazioa zelan bilakatu diran zabaltzeko, kontzientzia sortzeko eta dokumentetako erabili daitezcan; eta, lehen esan dodan lez, indarkeria matxistako biktimen eta bizirauleen lekukotasunen barri emoten daben materialak egin daitezcan eta ikastetxeetan erabili daitezcan.

Horixe proponiduten dogu zuk dinozunaren inguruan. Kanpoan itxi daigun, eta nik neuk esan neutsun, eremu publikoagaz zerikusia daukan guztia, udal-eskumeneko arloetako jarduketea dan guztia. Izan be, emongo diran hezkuntza-materialak Hezkuntza Sailari edo ikastetxeei curriculumaren diseinurako egiten jakezan proposamenak dira. Horixe esan genduan, eta zuk ezetz esan zeunskun. Arabere gehiago, zure proposamenaren, zure proposamenaren inguruko zuzenketea aurkeztu zeunskun, danon babesa lortu gurean. Barriro dinogu. Proposamenean eremu publikoko jarduketea aitatzen segidu ezkeru, guk Batzar moduan Foru Gobernuari eremu publikoan esku hartzeko eskatzen badeutsagu, ezin dogu, ez daukagu eskumenik eta ezin dogu egin. Udalakaz ekintzak egitea edo udalei zer egin behar daben esatea, errakuntzea, horretarako dagoalako Eudel. Ezin deutsagu baietz esan proposamen honi, mozino honi, baina ezelan be ez doa Eusko Legebiltzarrean aho batez onartu zanaren aurka, eta akordu hori da gaur bere berrespenerako onartu beharko litzatekeana, gura badozu, eta ezinbestean, baina onartu egin geinkeana.

Azkenik, esan egin gura dot Bizkaian badagoala andren aurkako indarkeriako biktimen maparik. Sakatu daitekean estekea da, eta zer lekutan jazo dan, zer jazo dan eta euren aurkako abusua zein izan dan ikusten da bertan. Ganerako guztiagaz, azpian duintasunaren errespetuari buruz dagoan filosofiagaz be bai, horregaz guztiagaz bat gatoz, baina ezin dogu ezer onartu, egin, horretarako eskumenik eta gaitasunik ez badaukagu. Erakundearteko errespetua euki beharra dago. Hori kentzen badozu, zure proposamena babesteko prest gagoz. Hori kentzerik ez badaukazu, ezetz esan beharko dogu, gure kideek Gasteizen onartu ei dabenaren aurka jokatu arren. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Sí, buen mediodía. En primer lugar, ya veremos si en el último momento alcanzan un acuerdo o no, pero yo le he comentado a Eva que nuestra posición será la de la abstención, porque se trata de un debate que se llevó a cabo en el Parlamento, porque se han dado los mismos pasos que en el Parlamento y porque entendemos que Elkarrekin Bizkaia no ha recogido las propuestas que planteamos en nuestra enmienda. Creemos que seguramente todos los partidos políticos estaremos de acuerdo en el fondo.

Sin embargo, no estamos tan de acuerdo en el enfoque o en las formas, e intentaré explicarlo. Además, yo creo que en este país ya hemos trabajado en el reconocimiento

y reparación de todas las víctimas y en la importancia de la memoria. Aún nos queda un largo camino por recorrer en ese aspecto, pero sabemos algo sobre esa cuestión. En sí, hay un debate, y, en este tema, concretamente, se está dando un debate en la memoria y reparación de las mujeres que han sufrido la violencia machista, como he comentado. Es un debate vivo en el movimiento feminista, por lo que yo, además, quería hacer referencia a unos artículos y opiniones publicados en una revista feminista de Euskal Herria. En uno de ellos, Zuriñe Rodríguez, activista militante, además de periodista, realizaba una reflexión al respecto, y recogía el testimonio de otras mujeres activistas. Julia Monjek, aktibista militante feminista eta memorialistek, zalantzan jarten dau andrak biktima moduan, subjektu pasibo moduan bakarrik irudikatzen dirala. Aktibista horrek, ostera, argi dauka biktima moduan gogoratzen dabezan memorialak garrantzitsuak be badirana, erabili eta sustatu egin behar diralako, gerretako eragina salatzeke eta autortzeke erabilten diralako.

Gerrako izugarrikerien iragarleak ez eze, Salvadorreko beste aktibista batek, Gloria Guzmánek, dinoanez, memorialak biktimen arteko alkargune fisikoak be badira, oinazea konpontzen laguntzen dabe, baina, batez be, euren senideena, eta eginkizun pedagogikoa beteten dabe etorkizuneko belaunaldiakaz, Evak adierazo deuskun lez. Adibide hurbilagoa daukagu hur-hur, Azkoienean, eta urteak emon ebezan horretan lan egiten. Azkenik, 2016an, Azkoiengo udalerrian, Nafarroako Erriberan, gerrako juizioz kanpoko exekuzinoei, ulemozketei eta laidoei aurre egin eutseen andren omenezko eskultura egin eben. Oroimendun Andren Alkartearen ekimena izan zan. Finantzaketea euren kabuz kudeatu eben, eta horixe nabarmendu gura genduan, ikuspuntua, formea, ados egon gaitkezalako indarkeria matxistako biktimen garrantzian, autortzan, esan dodan lez, oroimenean. Dana dala, gure ustetan, ikuspuntua, gure eretxiz, ez da zuzena, eta behetik gorantz egin behar dala uste dogu, probak be badaukaguzalako, hau da, holantxe, era horretan, arlo instituzionaletik herri-eremurantz, esan daigun, egin danean, porrot egin da. Prestaketa-ariketa horreek modu kolektiboagoan, herritarragoan, mobimentu feministatik abiauta eta, batez be, subjektuak eurak eta biktimak diran andrak kontuan hartuta egiten diranean, arrakastatsuak dira, ostera.

Goitik behera egiten daneko, esan daigun, porrot horren adierazgarri da Txilen andren monumentuan, Txileko oroimenean egin zan eraikuntzea. Estaduaren abala euki eban, eta zapalkuntza politikoko andra biktimak gogoratzen ebazan. Gaur egun, ostera, bertan behera itxita dago ia-ia.

Por ello, queríamos centrar nuestra intervención en eso, y esa es la razón de nuestra abstención. Eva, lo has comentado en el anterior debate, feminismoak bidea proponiduten deusku betiko moduan, y yo lo comparto totalmente. Antes, en otra intervención, ha comentado un juntero que su argumentario para dar legitimidad es el género. Yo soy militante feminista, soy miembro del grupo feminista de mi localidad y no sé si eso me da más o menos legitimidad, pero sí tengo experiencia militante, y me parece que es fundamental escuchar atentamente las cosas que plantea el movimiento feminista.

Asimismo, se ha publicado otro artículo hace dos semanas, hace muy poco, y lo ha escrito una abogada catalana. Se llama Laia Serra, el título es el siguiente: “La reparación de las violencias sexuales análisis en la red”. En palabras de Laia, Andrankanako Indarkeriaren aurkako Burrukeari eta Prebentzinoari buruzko Istanbulerako Hitzarmeneko, Istanbulerako Hitzarmeneko 5. artikulua... Istanbulerako estaduak hitzarmen horri heltzen deusanez, ulertu egin behar dogu horren ondorioz behar besteko baldintzak jarri beharko leukezala, hitzarmen horretan adierazotakoa abian jarri daiten.

Artikulu horretan, arreta egokiari buruzko nazinoarteko betebeharra azaltzen da, eta, horren arabera, estaduek era guztietako neurriak garatu behar dabez derrigorrean, indarkeria matxistak prebeniduteko, ikertzeko, zigortzeko eta ordaintzeko. Por ello, hablábamos sobre eso en la propuesta que planteamos. Que el marco debe ser el Convenio de Estambul. A su vez, también subrayábamos la reparación de esas víctimas. Quizá a mí me

gustaría profundizar en eso en mi segunda intervención. Además, creemos que en el Parlamento de Gasteiz perdimos una bonita oportunidad para ponerlo en marcha, porque nuestra propuesta tampoco salió adelante y porque la Ley para la Igualdad se ha quedado ahí de momento. En la prensa, aparecieron titulares relativos a la Ley para la Igualdad, donde según los medios el Gobierno pretendía recoger también una reparación económica para esas víctimas. En esa propuesta planteada por Elkarrekin Podemos, perdimos esa oportunidad de poner en marcha esa iniciativa concreta. Continuaré en mi segunda intervención.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor López de la Fuente, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LÓPEZ DE LA FUENTE** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Elkarrekin Bizkaia batzarkide-taldeak, Cabornero andreak, indarkeria matxistetako biktimen oroimenari, autortzeari eta ordainari buruzko Arauz Besteko Proposamena aurkezten dau. Proposameneko justifikaziotik, adostasuna lortzeko aukerea eskaintzen deuskuen baieztapen asko egiten dira. Ahalegin handiena egin behar dogu, biktima horreek babesteko, euri laguntzeko eta eurakaz gagozala erakusteko. Labur-labur esanda, euren oroimena babesteko eta indartzeko.

Bat gatoz andren aurkako indarkeria matxistea giza eskubideen urraketeagaz lotura zuzena daukala esaten danean. Era berean, badakigu andrek indarkeriaren aurrean daukien esposizinoa halanbeharrezkoa ez dana, zaurgarritasunen bat eukiteagaitik jasaten ez dabena, indarkeria hori oso errotuta dagoan egiturazko bereizkeriaren emoitzea dalako. Agirikoa danez, andrek indarkeria bako bizitza autonomoa eukiteko moduko gaitasun guztiak garatzen dabean neurrian eta euren bizitzen kontrola barriro be euren esku dagoan neurrian, desbardintasun eta podere arloko hartu-emonak eraldatu eta lehendik dagozan bereizkeria guztiak desagerrarazo ahal izango doguz. Segidu egin dogu, aurrera egin dogu terminoen azalpenean, baita arretarako zein jarduketarako moduen eta estrategien azalpenean be.

Hori dala eta, autortza sozialerako eskubidea itzultzea eta modu kolektiboan eratzea daukagu berbabide, biktimen eta bizirauleen autortzan sakontzen segiduteko. Prozesuak diseinatu behar doguz, eta, bertan, jarduketearen helburu nagusi izan behar dira andrak. Oso garrantzitsua da lehenengo une hori, andrek euren burua biktimatzat jotzen dabenean, jaubekuntzarako prozesua dalako eta, horri esker, jasandako indarkeria salatuko dabelako eta etorkizuneko urtenbidean pentsauta gaindituko dabelako mina. Holan, biziraule egiten dira, eta, bertan, eraldaketarako eragileen zeregin soziala beteten dabe. Halanda ze, eurentzako guztientzako egia, justizia eta ordaina eskatu behar dira horren ondorioz.

Euskal Sozialistak batzarkide-taldeak eta nire taldeak, Euzko Abertzaleak taldeak, arauz besteko proposamenaren inguruko zuzenketa hau aurkezten dogu, egokiagoa dala uste dogulako. Zuzenketa, argi eta garbi ixten dogu biktimak eta bizirauleak autortu behar dirana eta, horretarako, indarkeria matxisten inguruko oroimen kolektiboa eta oroimen historikoa eratu behar dirana. Horrezaz ganera, bardintasunerako eta indarkeria matxista bako bizitzetarako sentsibilizazio-jarduerak babesten doguz, Andren eta Gizonen Bardintasunerako bagilaren 20ko 4/2018 Foru Arauan xedatutakoaren arabera. Eskatu egiten dogu biktimen eta bizirauleen lekukotasunaren barri emoten daben materialak egiteko, aitatutako arauan prebentzinorako eta sentsibilizaziorako zehaztutako eginkizunetan erabili daitezkan. Proponidu egiten dogu indarkeria matxisten inguruko politika publiko koordinatuak, alkarlanpekoak, koherenteak eta integralak abian jartea lurraldeko udalerrri guztietan eta euren alkargune-ikuspegia ziurtatzea.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzeari eskatzen deusagu ganerako erakundeakaz lan egiten segidu daiala autortzeari eta ordainari begira, oroimen kolektibo eta historikoa eratzeko. Lan egiten segidu daiala, era bateko eta besteko materialak egin daitezcan eta gizartean, legeetan eta komunikabideetan indarkeria matxistetako biktimen autortzea eta estimazinoa zelan bilakatu diran zabaltzeko, kontzientzia sortzeko eta dokumentetako erabili daitezcan; eta biktimen zein bizirauleen lekukotasunen barri emoten daben materialak egin daitezcan eta ikastetxeetan erabili daitezcan.

Esandako guztiagaitik, aitatu dodan lez, zuzenketa honek indarkeria matxistetako andra biktimen eta bizirauleen autortzan, oroimenean eta ordainean alkarregaz lan egiten joateko aukerea emoten dau. Oroimen historiko eta kolektiboaren sorreran, bardintasunaren benetako lorpen eraginkorrera garoezan esperientzien eta jarduketaren garapenean. Horretarako, sentsibilizaziorako jarduerak sustatzen dira, beti-beti andra biktimak kontuan hartuta. Egiten danaren helburu nagusi dira eta izan behar dira. Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeok alkarregaz proponidu dogun zuzenketea egokiagoa danez eta Elkarrekin Bizkaiaren proposamenak foru-eskumenean esparruak gainditzen dauzanez, gure taldeak ez dau babestuko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea. Egun on barriro be. Indarkeria matxistearen gatxaren aurkako burrukea erakunde guztietako eta, era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko politika publikoetan lehentasunezko lekua euki behar dauan burrukea da. Bat gatzoz Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako arauz besteko proposamenean proponiduten danagaz, unean unekoak eta zatikakoak ez diran jarduketak sustatu behar dirala azaltzen dau-eta. Egiturazko politiken bidez bakarrik aurre egin ahal izango deutsegu gizarte osoaren arretea eta kezka erakarri beharko leukiezan eskubide-urraketei.

Era berean, guretzat oso egokia da nabarmentzea herritarren ekimena larregitan joan dala ekimen instituzionalaren aurretik. Behar dan lez jokatu behar dogu, behar dan lez jokatu behar dogu, ezin dalako giza eskubideen urraketa bat bera be justifikau, parkatu, ukatu edo ahaztu be. Egia da Bizkaian be badagoana hobekuntza-marjinarik. Bertan, datuen arabera, egiaztatu egin dogu 2019an 2018an baino delitu gehiago egon zirana sexu-askatasunaren eta sexu-ikubakotasunaren aurka, eta, bertan, sarketadun eraso sexualen gorakadea %13,6koa izan zan. Joan dan urtarrilean argitara emondako informazino ofizialaren arabera, Euskadin ia-ia %10 hazi dira sexu-askatasunaren aurkako delituak.

Lurraldeka, alde txarrena Bizkaiak daroa, holako delituetako andra biktimen kopurua %23,3 gehitu zalako: 189, 2018an; eta 233, 2019an. Gipuzkoan, hazkuntzea %0,75ekoa izan zan, eta, Araban, %12,7 gitxitu ziran salaketak. Gizarte demokratikoek irme erantzun behar deusie giza eskubideen edozein urraketari, eta irmetasun hori ez dago hilketa matxistak egin osteko jentaurreko gaitzespen ezin argiagoagaz bakarrik lotuta. Izan be, horren ondorioz, oroimenerako politika publikoak be garatu behar dira, eskubideen urraketea parkatzen daben edo ukoan finkatzen diran jokabide justifikatzaileak babesten dauzan edozein jarrera soziali aurre egiteko.

Kontakizun inklusiboa eratu behar dogu, andrek eta gizonen genero-indarkeriaren gatxaren aurkako eta bardintasunaren aldeko ekintza guztietan bat egin daien. Gure herrialdeak indarkeria matxistearen aurkako aurrerapausu handiak emon dauz azken hamarkadotan. Herrialde erreferentea gara gatx horren aurkako burrukan, Europar Batasunean be bai, baina inoiz ez da nahikoa, eta datuek horixe gogoratzen deuskue. Oroimen kolektiboa eratzeko eta indarkeria matxistearen aurkako burrukearen mesederako dan ikerketegaz edo

hezkuntzeagaz lotutako ekimenak abian jartea babestu beharra dago. Seguruenik, arauz besteko proposameneko gai batzuk ñabartu leitekezan arren, iragarri egin gura dot proposamenaren, Elkarrekin Bizkaiaren proposamenaren aldeko botoa emongo dogula. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Ahora, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señora Cabornero Alor, portavoz de Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, de nuevo. Otermin jauna eta EAJko ordezkaria, zuok aurkeztu zeunsten hau, zati batzuk hartzen ahalegindu nintzan, talde politiko guztion adostasuna lortzeko. Eusko Legebiltzarrekoa bertan be berregiten ahalegindu nintzan. Ahalegina egin neban, EH Bildu be inplikau eitean eta proposamen-moltso honen aldeko botoa emon eian. Dana dala, nire proposameneko lehenengo puntua zuok aurkeztu zeunstena dala esan behar deusut. Lehenengoa. Hirugarrena be bai. Orain, bigarrena eta laugarrena, zuok ez dozue oroimena ezelan be, ezertarako aitatzen. Borondaterik egon bazan, berbetan segiduko genduan, eta, seguruenik, zeozelako adostasuna lortuko genduan.

Carmen Bernat Mateuk, Valentziako Unibersidadeko ikertzaileak, idatzi eta esaten ebanez, orokorrean, azterketek eta mobimentuek, oroimen historikoak euren testuinguruan eragin sozial handi-handia euki eben eta, oro har, diktatorialak, errepresiboak zein bortitzak izan ziren jazoera politikoak daukiez helburu nagusi. Genero-zapalkuntzen ondorioz sortutako indarkeria matxistak, ostera, etenbakoak dira, eta ez dira oso deigarriak, ez deusielako ezelako estadu-kolpeari edo jazoera politikoari erantzuten.

Instituzinoak, batzuk, oroimenagaz lotutako ekintzak egiten dabilz, baina oraindik unean unekoak dira, sakabanatuak, eta ez dagoz irismen luzeko politika publikoaren barruan kokatuta. Orain arte, ezin izan doguz oroimen kolektibo eta historikoko biktimak lekuratu, azken horrek eraldatzeko ahalmena badauka be. Sistema osoko indarkerien oroimena behar da, eta, indarkeriena edo presinoena ez eze, eguneroko erresistentziena, banakako erresistentziena, kolektiboena, anonimoena be bai.

Ekimen hori abiapuntu, eta borondate politikoz, aurrerapausu handia emoten zan, indarkeria matxista bako gizarterantz aurrera egiteko orduan ezinbestekotzat jotako oroimenaren eta autortzearen politika publikoari hasierea emon ahal izateko.

Duque andrea, zuokaz bat gatoz herritarrak eta mobimentu zein alkarte feministak kontuan hartu behar dirala dinozuenean, behetik gora eratu ahal izateko, ondo adierazo dozunez. Gure bigarren proposamenean holantxe ezarten ahalegindu gara, baina ezinezkoa izan da, bertan behera geratu da. Oso-osoa beharrezkoa da instituzinook adostasunak lortzea eta berrestea eta gaurkotasunari neurri politiko barrien bidez aurre egitea.

Edozelan be, zuok, Gobernuari eusten deusazuenok, parkatu egingo deustazue, baina ohikoa da instituzinoek alkarregaz lan egitea edo euren arteko alkarregina eukitea, baina, arabere gehiago, bardintasanaren arloan, batez be, bardintasunerako planak... garatzeko orduan udalek berez daukiezan gabeziak eta egoera hau kontuan hartuta, autortzea, memoria, ordaina berbabide badaukaguz, igarri egin daikegulako horretarako baliabideak ugariak izango ez dirala, hain zuzen be.

Batzuek atea joteko inoen, Rico jaunak inoan. Ez dago. Zuok ardurea hartu eta atea jo behar dozuez, zuon proposamenak aurrera aterateko besteko adostasunak lortu ahal izateko. Ederto, bada. Horra hor errealidade gordina. Antza danez, ez da hain erraza danontzat. Ganbera honetako ganerako talde politikook ez gara beste batzuk baizen zorionekoak.

Eskumenen inbasinoari buruz berba egiten dozue. Guk geuk ordainerako eta oroimenerako ekintzak diseinetan laguntzea eta babestea daukagu berbabide. Zuon berbabidea atek jotea dan bitartean, guk adostea eta lan egitea daukagu berbabide. Gizarte bidezkoagoa eta bardintasunezkoagoa geldiarazoten dauan alkarbizitza barruratzaillea defendidutea, baina, atek jota be, atxakia guztiak immobilismoa, gelditasuna dirala emoten dau, eta parkatu, Otermin jauna, baina nik ez neban zuzenketea aurkeztu, jarrerak hurreratzeko proposamena baino.

Gai bat argitu beharra dagoala uste dot, hau da, udal-eskumenak udal-eskumen, zeuk be badakizu udalakaz lan egiteko aukerarik badagoana. Bardintasunaren arloan be jazoten da, udal batzuek Bizkaiko Foru Aldundiaren babes hori behar dabelako, bardintasunaren arloko ekintzak be garatzeko, lehen ondo esan dodanez. Halanda ze, gatxa izango da oroimenaren eta ordainaren arloko ekintzak euren kabuz euki ahal izatea. Beste arlo batzuetan be jazoten da egitate bera. Berbarako, abiada handiko trena ailegetean. Gaur, barriro, zuok, Gobernuari eusten deutzazuenok, komunetik behera botaten dozue, eta ganerako talde politikook proposamenak komuneko papera izango balira lez hustubidetik zelan doazan ikusi besterik ez daukagu. Gaur, barriro, etxe honetan egiaztatu da zelako pasibotasuna dagoan indarkeria matxistak desagerrarazoteko konpromisoaren aurrean. Lehen esan dodana. Egun batean, isilunea egiten dogu, eta, ostean, udal-eskumenak eta ate-jotaldiak daukaguz berbabide. Muchas gracias. Nada más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Otermin Eraso, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Sparringik behar badozu, inguruabar bat dala eta daukazu gorrotoa nori bota behar badozu, horren adierazgarri nazala uste badozu, horren adierazgarri nazala esateko baizen ondo ezagutzen banozu, aurrera. Halanda be, idea hori ez daukadanez horren adierazgarri ez banaz, nire alderdia horren adierazgarri ez bada, irakurketa negatibo horretan Aldundia horren adierazgarri ez bada, zergaitik egiten dozu? Zein da zure asmoa? Errazoi handiagoa eukitea aurkariaren sinisgarritasuna kolokan jarrean? Aurkariak ete gara? Benetan gara aurkariak gatx honen kontrako burrukan? Gu geu ez ete gara burrukatzen eta ez ete daukagu giza duintasunaren inguruko kezkarik? Zer dala eta doinu hori? Zer dala eta norabide hori? Neuk esan neutsun. Nabardura bi horreek kendu arte, ezin izango dogu babestu. Zeuk gura zenduana berbaz berba kontuan hartzen dauan beste bat aurkeztu deutzugu, baina, halanda guzti be. Prestauta neukanaren zati bat irakurriko dot, zeozero egiten nabilela jarri dozulako kolokan. Hara, joan dan legealdian, Enplegu, Gizarte Inkusino eta Bardintasun Sailak indarkeria matxistako biktimak eta bizirauleak autortzeko eta agirian jarteko era bateko eta besteko ekimenak jarri dauz abian. Besteak beste, nabarmendu egin behar dot indarkeria matxistearen mapea egin eta zabaldu dala. Bertan, Bizkaiko udalerrri baktotxean egon diran erasoak eta hilketak agertzen dira, eta Aldundiaren webgunean dago ikusgai. Bardintasunerako Foru Arauaren ondorioz, Indarkeria Matxistearen, Genero Indarkeriaren Behatokia sortu eban, eta Bizkaiko indarkeriaren errealidadea ezagutzen eta informazio hori aztertzen segidu dau.

Aldian-aldian, behatokiak datu horreek emoten dauz argitara, sailetik bertatik zabaltzen diran txostenen eta aldizkariaren bitartez. Hirugarrenez. Zirgari Sarien lehenengo edizinoan, 2016. urtean, andra biktimek eraturako Haize Berria erakundeari emon jakon andren aurkako indarkeriaren kategoriako saria. Oraingo legealdian, Zirgari Sarien lehenengo edizinoan, biktimak nabarmentzeko apustua egin danez, andren aurkako indarkeriaren kategoriako sariaren azalpenean berriaz aitatu da biktimen ordainerako lana. Bardintasunerako eta indarkeria matxista bako bizitzetarako sentsibilizazio-jarduerak babesten segidu gura dogu, lehen aitaturako gure Foru Arauan xedaturakoaren arabera. Bardintasun Zuzendaritzako lan guztiak andren eta gizonen bardintasuna dauka helburu. Izan be, indarkeria matxistearen desagerepenaren sustraian dagoz, sentsibilizaziorako kanpainen bidez, oro har, eta

A25ekoen bidez, batez be. Gazteentzako jarduketak be badagoz; berbarako, indarkeriaren prebentzinorako programa batzuk sailak argitara emon dauzan materialetan; esate baterako, biktimei buruzko gaiak: “Ikusteko ahotsak”, “Ondo maite nazazu”...

Errealidadea ezagutzen dogu, errealidadearen parte garalako. Errealidade hori, ostera, ezin dogu itsu ikusi. Biktimak mingarriak diralako guretzat, danok geure familietan daukaguzalako biktimak, ez dogulako onartzen inork sufriduten dauanaren duintasunaren errespetuaren inguruko ikasbiderik emotea. Zer gura dozu? Gobernua, Gobernuari eusten deusagun alderdiok, Alderdi Sozialistea eta EAJ hainitsuak, zakarrak eta ergelak ete gara, sufriduten dauana kolokan jarteko? Zein da gure lanaren zentzuna? Zure ustetan, danok, ni, behintzat, zertarako nago politikan, hainbat urtetan sufriduten egon ostean nonor ikasbidea emoten etorri dakidan? Hori gura dozu? Esaldi polita? Zuretzat, danak. Niretzat, neure konpromisoa eta neure errazoa. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias. Con las distintas propuestas que hemos traído en un debate anterior, con este tema, dijimos en su momento que no utilizaríamos este tema para la confrontación política, y estoy viendo que hoy está sucediendo eso. ¿Por dónde empiezo?

Les voy a leer una frase del texto elaborado por parte del movimiento feminista en la “mani” del 25 de noviembre. Zemendiaren 25eko mobimentu feministek zera inoan Bilbon: “ez dogu puntu lilarik gura, ezta inor dolurako, amorrurako eta burrukarako daukaguzan diskursoen eta eremuen jaube egitea be”. Por favor, tengan en cuenta, insisto, lo que el movimiento feminista dice sobre este tema.

Como he dicho antes, creo que es muy importante que entre todos/as consensuemos un marco de violencia machista, y, como hemos señalado, el Convenio de Estambul es el adecuado para eso. Por ello, planteamos una propuesta concreta.

Esan dogunez, Juan, Indarkeria Matxistearen Behatokia Bizkaian daukagun tresna erabilgarria da. Gure ustetan, Istanbulleko Hitzarmenaren esparruan jorratu beharko leuke indarkeria matxistea, gaur egun egiten danaren azalpen zabalagoa egiteko, berbabide euki dozun mapa hori eguneratzeko eta, proposamen barri moduan, herri batzuetan, Ondarroan, Ermuan, Basaurin eta askoz gehiagotan, berbarako, egiten dabilzan esperientzia oroigarriak batzeko edo mapan jarteko. Hori tresna erabilgarria izan daiteke. Hor badaukagu eskumenik, eta urratsak emon doguz.

Esas son algunas de las propuestas que recogimos en esa proposición que trajimos. Insisto. Cuando hablamos de la reparación, es muy importante analizar los recursos y solicitar los recursos económicos, y eso lo comentamos en el Parlamento de Gasteiz.

Horixe bera jarri genduan mahai ganean eztabaida hori egin zanean: biktimen ordaina egiteko orduan, ordain ekonomikoa be egon behar da. Antza, badago akordurik, adostasuna dago horretan, eta Bardintasunerako hurrengo Legean azalduko da hurrengo legealdian. Holantxe izango dalakoan gagoz.

Además, también hemos basado nuestro argumento en que debe ser un proceso que supondría un movimiento superior al movimiento feminista, y, ahí, quisiera reforzar esa idea.

Orain dala gitxi, Arartekoak gomendioa egiten eban, aurreko urratsera itzulita, biktimetzako autortza ekonomikoari buruz, gomendioa egiten eutsan Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, andra batzuek jasaten dabezan genero-indarkeriako egoerak behar dan lez aztertzeko. Izan be, Arartekoa Lanbidera joaten diran eta indarkeria matxistako biktimak diran andren salaketa asko jasoten dabil, Lanbidek eskatu egiten deuselako elikagaien pentsinoa ez ordaintzeagaitiko salaketea egin daiela. Arartekoak belarrietatik tira egin barri deutso sailari berari. Hortxe be badaukagu ibilbide luzerik, diru-sarrerak bermatzeko errentearen baldintzen hobekuntzan, azterketa sakonagoan be badaukagun lez. Hain zuzen be, hurrengo legealdian Gasteizen horri buruz be eztabaidatu ahal izango dogulakoan nago.

Como he dicho, respecto a los procesos que se están llevando a cabo en los municipios y los ayuntamientos, tanto desde las instituciones como desde los movimientos feministas, es nuestro deber dar fuelle a esos procesos y reforzarlos, aportando también unos recursos económicos, por supuesto. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Nacionalistas Vascos. Aún le queda tiempo, pero como ha concluido.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Ñabardurea egin gura neban. Talde guztiok egin dozuen proposamenean, alkargunetzeari buruz berba egiten dozue, eta uste dot nahaste teorikoa dagoala esparruan. Lehen, zeharkakotasunaren kontzeptua jarri zan modan, hau da, egitura instituzionaletako arlo guztietan, udaletan, Batzarretan, instituzinoan dagozan sail guztietan politika feministak edo genero-politikak jorratzea. Alkargunetzea beste gauza bat da, ostera, hau da, feminismo baltzak proponidutako tresna analitikoa da, eta hausnartu egiten dau zapalkuntzak alkargune batean kurutzatzen dirala. Errazea, klasea, etnia, hizkuntzea. Hori dala eta, neugaz bat datorren feminismo hori, hain zuzen be, kapitalismoaren aurkakoa da, arrazakeriaren aurkakoa da, feministea da. EAJk, PSOEk eta Podemosek proponidutakoa horixe bada, bat egiten dot.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Ahora sí. Señor López de la Fuente, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LÓPEZ DE LA FUENTE** jaunak: Muchas gracias, de nuevo, señora Presidenta. Bigarren txanda honetan, baieztu egin gura dot autortzea, sentsibilizazioa, prebentzioa, instituzinoek politika publikoetan edo indarkeria matxistetan daukien koordinazioa, oroimen kolektibo eta historikoa, kontzientziazioa eta lekukotasunen bidezko hezkuntzea kontuan hartzen dabezan zuzenketak, gaur talde sozialisteagaz aurkezten doguna eta Elkarrekin Bizkaiak, Sozialistek eta Euzko Abertzaleek zemendian Eusko Legebiltzarrean onartutako erdibideko zuzenketea, berbarako, oso lagungarriak dirana, indarkeria matxistetako andra biktimen eta bizirauleen autortzan, oroimenean eta ordainean lan egiten segiduteko.

Dana dala, Aldundiak gaur, joan dan legealdian egindako lana be nabarmendu beharra dago. Izan be, honako hauxe egiten segiduten dau: autortzeko eta agirian jarteko ekimenak, kanpaina orokorrak, gazteentzako kanpaina bereziak, materialen argitalpena, biktimen lekukotasunen bilketea eta, zelan ez, alkargunetzearen printzipioa. Hain zuzen be, Andren eta Gizonen Bardintasunerako 4/2018 Foru Arauaren printzipio gidarietako da, eta foru-politika publiko guztietan ezarriko da bardintasunaren alde. Gaur, ez gara ados jarri, Cabornero andrea, baina Batzar Nagusi honeetako talde politikook argi eta garbi itxi dogu indarkeria matxistetako biktimen eta bizirauleen oroimenerako, autortzarako eta ordainerako politikak hobetzen eta bultzatzen segidu gura doguna. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor López De la Fuente. El Grupo Mixto no va a participar. Por tanto, concluido el debate, someteremos a votación la Proposición No de Norma. Cuando todos/as estén en sus escaños, podemos votar. El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 46: 8 votos a favor, 28 votos en contra y 10 abstenciones. Por tanto, no se ha aprobado la Proposición No de Norma.

Los puntos sexto y séptimo del Orden del Día se debatirán conjuntamente.
Ekimen bi dira.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2019/0003027](#))

Autor: Isuskiza Arana, Zigor (EHB)

Asunto: El establecimiento de un límite de gasto mensual en la autopista AP68

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2019/0003027](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (27A), [Enmiendas: No presentadas](#) (27B)

Expediente: ([11/B/26/0000582](#))

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2020/0000132](#))

Autor: Ekain Rico/Irene Edesa (EAb/NV·SV/ES)

Asunto: La AP-68.

Documento **Principal:**
([R.E.11/E/2020/0000132](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (31A), [Enmiendas: No presentadas](#) (31B)

Expediente: ([11/B/26/0000729](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2019/0003027SE](#))

Egilea: Isuskiza Arana, Zigor (EHB)

Gaia: AP68 autopistan hileko gastu muga ezartzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2019/0003027SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (27A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (27B)

Espedientea: ([11/B/26/0000582](#))

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2020/0000132SE](#))

Egilea: Ekain Rico/Irene Edesa (EAb/NV·SV/ES)

Gaia: AP-68

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2020/0000132SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (31A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (31B)

Espedientea: ([11/B/26/0000729](#))

Por tanto, señor Méndez Urigoitia, portavoz de Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Desde el día 1 de enero de 2017, la Diputación Foral de Bizkaia estableció un sistema de pago de un peaje máximo de 30 euros al mes para la ciudadanía de Bizkaia por el uso de las autopistas Supersur, AP-8 y los túneles de Artxanda. En ese momento, EH Bildu propuso en los ayuntamientos de Uribe Sur y en las Juntas Generales de Bizkaia que se pusiera en marcha una bonificación similar para la ciudadanía de Bizkaia que utiliza la autopista AP-68, tal y como lo hace la Diputación Foral de Araba desde 2012. Sin embargo, esa propuesta no salió adelante, porque no consiguió el apoyo del PNV y del PSE.

De ese modo, desde entonces la ciudadanía de Uribe Sur no se ha beneficiado tanto por el uso de la AP-68, en comparación con las otras vías mencionadas anteriormente. Sin embargo, no solo los/as vecinos/as de Uribe Sur, sino tampoco cualquier ciudadano/a de Bizkaia que utilice esa vía. Ahora, esa situación ha cambiado, ya que desde el pasado diciembre la autopista AP-68 es de competencia foral.

Por tanto, ahora no existe ningún pretexto para superar esa discriminación. Esa es nuestra propuesta de hoy: que para las personas usuarias de Bizkaia de la autopista AP-68 ponga en marcha inmediatamente el mismo sistema de bonificación de límite de gasto establecido en las vías de los túneles de Artxanda, Supersur y AP-8 de su competencia.

Horixe bera da gaur aurkeztzen dogun arauz besteko proposamenaren errazoi nagusia: autopista hori erabilten dabenek Bizkaiko Lurralde Historikoko eukiera handiko errepideetako generako erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak berberak eukitea. Izan be, ez dogu ulertzen autopista horrek Arabatik igaroten danean bidesarien hobari-sistemea eukitea, hau da, hileko 15 bidaiatik aurrera bakarrik %60ko deskontua lortzea, eta Bizkaian antzeko neurria ezarri ezin izatea.

Era berean, gogoratu egin gura deusuet gure mugetatik kanpo, Errioxako Gobernuak eta Aragoiko Gobernuak be hitzarmenak daukiezala AVASAgaz, AP-68ko tarte batzuetako erabiltzaileen baldintzak hobetzeko.

Gure ustetan, berbetatik ekintzetara igaroteko unea danez, asmo hutsak ez dira nahikoak, konpromisoak behar doguzalako. Argi daukagu faktore tekniko batzuk aztertu beharko dirana emokidadun enpreseagaz, BFaren eta AVASaren artean egin beharreko jarduketak zehazteko eta baloretako. Dana dala, ezin dogu akordu hori atzeratu ermokidea 2026an amaitu arte, lehenbailehen bilatu behar dalako urtenbidea.

Uneotan, errepideen euskal mapea, Arabari, Gipuzkoari eta Bizkaiari jagokenez, oso-osorik da foru-titulartasunpekoa. Maiatzerako, transferentziak eskualdatzeko Batzorde Teknikoak emoitzen txostena euki beharko leuke, eta une hori egokiena izango litzateke, AP-68k lurraldearen generatikoko gastu-mugearen sistemeagaz bat egitea proponiduteko. Aldi berean, ezin dogu garraio publikoaren garrantzia ahaztu. Ezin deutsegu bidesariei hobaria emon eta garraio publikoa kajoian ahaztuta itxi, tarifek erabiltzaileen errentak kontuan hartzen ez dabenez, operadoreen arteko aldatetak zigortzen diranean eta emokidadun bakoitxak tarifa desbardina ezarten dauanean.

EH Bildukoon ustetan, bidesarien sistemea bardindu behar da, baina, aldi berean, Bizkaiko garraio publikoa be bardindu behar dogu. Azken hori, ganera, berba bitan laburtzen da: txartel bakarra.

Para terminar, de nuevo recordarles las claves de nuestra propuesta. Primera, acordar. Segunda, llevar a cabo. Acordar, para alcanzar lo antes posible un acuerdo entre la Diputación Foral de Bizkaia y AVASA. Llevar a cabo, para poner en marcha lo antes posible un sistema de límite de gasto en la AP-68. Porque en Bizkaia es necesario homogeneizar el sistema de peajes, por justicia social, y porque ya no hay excusas. De hecho, es responsabilidad directa de la Diputación de Bizkaia en estos momentos.

Proponidutea, adostea eta egitea edo gauzatzea. Horra hor gure proposamenaren giltzarriak. Proposamen horrek honako helburu hau baino ez dauka: lehen esan dodan lez, gaur egun Bizkaian dagoan bidesari-sistemea bardintzea eta behar dan lez prestetea, lurraldeko eukiera handiko errepide guztien finantzaketari buruzko beharrezko eztabaidea lehenbailehen egin ahal izateko. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. A continuación, señor Jerónimo Moreno, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días a todos/as. Egun on, muchas gracias, señora Presidenta. Egun on batzarkide jaun-andre, konbidatu jaun-andre eta Osoko Bilkura hau aurrera ateraten eta jentaurrean zabaltzen laguntzen dozuen profesional guztioi. AP-68a erabilteagaitik hobariak ezarteko aukerea proponiduten da arauz besteko proposamen honetan. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen proposamena azaldu baino lehen, ñabardura batzuk egin gura dodaz, guretzat beharrezkoak diralako gaiaren ikuspegi egokia eukiteko. 2020ko urtarrilaren 1etik, azpiegitura hori foru-titulartasunpekoa da, baina kudeaketea pribadua da oraindokarren, Alderdi Popularreko, José M^a Aznar jaunaren gobernuak emokida hori luzatu ebalako 2026ra arte. Hori dala eta, ezinezkoa da erreskatetea, 2011n mugaeguneratzen bazan be. Halanda ze, 2026ra arte titulartasuna eta kudeaketea ez dira oso-osorik Aldundiaren esku egongo. Bere egunean, neurri hori gogor-gogor kritikau eban Alderdi Sozialistek.

Joan dan legealdian, 2017ko urtarrilean, sozialiston aldarrikapen historikoa bideratu eta gastua mugatzeko sistema jarri zan abian, hau da, tarifa finkoa. Labur-labur esanda, 30 euroko gastu-mugea dago erabiltzaileko, eta, muga horretatik aurrera, doakoa da erabiltzailearentzat, muga horretatik aurrera diruz lagunduta dagoalako. Hau da, danon artean ordaintzen dogu, ez dago doako ezer, dirulaguntzea aurrekontuetatik ateraten da. Doakoa dala esateko modu hori, benetan, ezin dogu esan doakoa danik, emokidadun enpresek kobrau egin behar daualako eta bere kanona kobrauko daualako. Edozelan be, alde handia ezarri beharra dago: zer dan titularra izatea. Jaubea zara, baina nonork kudeatu eta kobretan dauz bidesariak. Bestetik, zer dan Interbiaken bidez titularra eta kudeatzailea izatea, beste azpiegitura batzuetan lez.

Halanda ze, Foru Aldundia titularra da, baina titulartasunaren eskualdaketan berez etorren kudeaketea 2026ra arte luzatzea. Autopista hau erabili beste aukerarik ez daukienak kontuan hartuta, bidezkoa da laguntzen sistema ezarteko aukerea aztertzea. Hori dala eta, lan tekniko batzuk egitea proponiduten dogu: erabiltzaileen kopurua, jatorria, helmugea, diruz lagundu daitekezan zenbatekoak, iruzurra ekiditeko mekanismoak, beharrezko inbersinoa... Datu horreen guztien bidez, emokidadunagaz, 2026ra arte daukagun maizterragaz, aztertu gura dogu dirulaguntzen ezarpena, foru titulartasun eta kudeaketapeko beste azpiegitura batzuetan abian dagoan gastu-mugearen sistema albo batera itxi barik, agirikoa danez. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/ LEHENDAKARI** andreak: Señora Claver Zurro, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **CLAVER ZURRO** andreak: Buenos días a todos/as. Muchas gracias, señora Presidenta. Uste dot ez nazala lar luzatuko, nire aurretik berba egin dauanagaz bat natorrelako argudio nagusian.

Gaur, EH Bildu taldeak AP-68 autopistan hileko gastu-mugea ezarteko aukerari buruz aurkeztutako arauz besteko proposamena daukagu eztabaidagai. Egia esan, azalpenean, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidean, AP-8an eta Artxandako tuneletan ezarritako hobari-sistema AP-68ra hedatzeko eskatzen da. Asmauko dozuenez, EH Bildu taldeak, nire taldeak, kasu honetan, ezezko botoa emongo deutso zure arauz besteko proposamenari, EAJK eta PSEk batera aurkeztu daben osteko arauz besteko proposamenaren mesedetan.

Idea nagusiaren arabera, eta argi geratzea gura neuke, Aldundi honek argi dauka, eta horren aldeko apustua egiten dau, bidesaripeko edozein bide-azpiegitura, titulartasunpekoa eta kudeaketapekoa bada, gastu-mugearen barruan sartuta egongo dana. Lehen Jerónimok be eta EH Bilduko aurreko batzarkideak aitaturako datea gogoratzeko eskatu gura deusuet: 2017ko urtarrilaren 1a. Egun horretatik aurrera, Aldundi honi esker, gastu-mugea dago AP-8an, Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidean eta Artxandan, Artxandako tuneletan, hain zuzen be. 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, bono konbinaua luzatu zan Gipuzkoagaz eta AP-1eko Arabako tarategaz.

Egia esan, neurri horreen ondorioek eragin zuzena euki dabe erabiltzaileen artean, batez be lanagaz eta ikasketakaz zerikusia daukien errazoiakaitik ibilgailu pribaduaren katigu diranen artean, alegia. Diputadu jaunak, Imanol Pradalesek, neurri horreen ezarpenaren emoitza zein izan ziran justifiketan eta argudiatzen eban daturen bat aitatu eban. 2019an, hain zuzen be, 21.128 lagunek altea hartu eban sisteman, eta, 2017tik 2019ra, Aldundiak 20 milioi euro itzuli deutsez erabiltzaileei, 20 milioi. Onuradunak eskualde guztietakoak dira, eta ez dago bizilekuaren araberako bereizkeriarik. Beste data garrantzitsu bat 2020ko urtarrilaren 1a da, zer esanik ez. Egun horretatik aurrera, egia da AP-8a foru-titulartasunpekoa dana. Titulartasunpekoa, baina ez kudeaketapekoa. Horra hor kakoa. Kudeaketea emokidadun baten esku dago, lehen ondo esan dan lez, PPko gobernuari esker. Kasu haretan, Aznarren zuzendaritzapean egoan, eta 2026ra arte luzatu eban emokidea.

Halanda ze, emokida horrek iraun bitartean, Aldundiak ez dau ezer batuko bidesariagaitik. Gastu-mugearen sistema aukerea da, baina beste alternatiba batzuk be badagoz; berbarako, Arabako Aldundiak ezarririkoa. Izan be, gure eretxiz mugapenen bat daukan sistema aukeratu dau. Bere sasoiari, Sustapen Ministerioak ez ebazan erabiltzaileen datuak emon, eta Aldundiak hitzarmena egin behar izan eban gailua eskaintzen eban banku-erakunde batzuekatz.

Egoera hori guztia kontuan hartuta, gure taldearen ustetan, baita PSE taldearen ustetan be, honako hauxe kontuan hartzen dauan arauz besteko proposamena aurkeztea da modu onena: ustezko alternatibak aztertu behar dira, eta, Batzorde Tekniko horren emoitzen arabera, Batzorde Tekniko horretan Sustapen Ministerioa dagoala, Eusko Jaurlaritza dagoala eta Arabako Aldundiak zein Bizkaiko Aldundiak be ordezkariak daukiela eta, egia esan, Transferentziei buruzko Dekretuan aurreikusita dagoala kontuan hartuta, emokidadun enpreseagaz aztertu behar da zer sistema, dirulaguntza-sistema ezartea bideragarria dan, gastu-mugearen sistema albo batera itxi barik. Hain zuzen be, argi-argi daukagu, eta beharrezkoa da, aukeratzen dan sistema aukeratzen dala, bidaiei buruzko egiazko informazioa emoten daben mekanismoak ezarri behar dirana, iruzurra ekiditen daben mekanismoak be ezarri ahal izateko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, egun on barriro be. Tira, badago, badaukagu transferentziarik. Ganbera honetan hainbatetan eskatu dan eskualdaketea gauzatu da. Bizkaiko Foru Aldundiak abenduaren 17an emondako 202/2019 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoari eskualdatu jako gure lurraldea zehartzen dauan AP-68 autopistako tartearen titulartasuna. Orain, zer? 7 hilebete alperrik galdu dira, apirilaren 30eko 71/2019 Dekretuaren bidez eskualdaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoari egin jakonetik.

Batzorde Teknikoa, Aznar, PPko gobernuari. Hara, 7 hilebete, batzorde horrek lan egin daian, ondorioak atera daizan eta bizkaitarren onurarako izan daiten. Izan be,

funtsean, ez hainbeste Alderdi Sozialistan, nahiz eta orain gai horretan nazionalismoaren esparrua apur bat bere gain hartzen dauan, baina hori oso ohikoa da EAJn, hau da, “transferentzia gura dogu, holan herritarrek bizi-kalidadearen edo zerbitzugintzearen ratioak hobetzen dabezalako”. Tira, 7 hilebete. Oraindakarren, eskumen hau eskualdatu baino lehen ordaintzen eben berbera ordaintzen segiduten dabe. Era ulertuezinean galdu diran 7 hilebete. 7 hilebete horreetan, Bizkaiko Foru Aldundiak ondo baino hobeto ekian AP-68ko Bizkaiko tartearen eskualdaketea jasoko ebana ezinbestean, eta ez dau ezer egin. Eskualdatu zanetik hilebete igarotakoan, hutsalkeria handiagorako, Foru Gobernuari eusten deutsien taldeek beste baxera bat oparitzen deuskue, Ganbera honi nik neuk analitiko dala esango neukean ekimenaren onarpena proponidutean. Zuok analisiari buruz berba egin deuskuzue. *Sine die* ekimena da, eta, bertan, proponidu egiten da... Zer proponiduten da? Ezelako eperik ez. Bizkaitarrei egindako iskeia. 9 hilebete alperrik galdu dozuez, eta, orain, guk zuoi analisisia onartzea gura dozue, ez dakit zenbat denpora gehiagotarako. Beste ostikada bat segiduteko.

Talde abertzaleko eta sozialistako jaunok, zuon gobernuak, eta Foru Gobernuari eusten deutzazue, politikak kudeatu, gauzatu beharrean bere buruari eskatzen deusto zeozelako lan analitiko egiteko. Ekimen hori, ganera, ziur adarreko foru-diputaduak, Pradales jaunak, bozkatuko dauana ezelako lotsari barik. Betearazo, kudeatu, ez proponidu eztabaida hutsalik, Osoko Bilkura honetara ekarri dozuena lakoa. Alperrekoak, baina, batez be, bizkaitarrentzat. *Sine die* ekimena danez, ez da ezelako eperik proponiduten. Esan deutsuedan lez, bolea. Jazo zanetik ia-ia urtebete transferentziaren zain. Zertarako? Honetarako. Erabiltzaileentzako bidesarian ez da ezer aldatuko. Foru Gobernuak ez dau bidesariaren ordainketea aldatuko bizkaitarrakaitik, ordaindu egingo diralako eta, ordaintzen gagozalako, eskualdaketea baino lehenagoko zenbateko berberak. Bizkaitarrek ez dabe ezelako onura zuzenik lortuko, euren boltsikoan ez dabe igarriko orain AP-68aren titulartasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dagoanik. Aldaketa-mueta lampedusarra. Zertarako? Ezer ez aldatzeko. Hau da, “zeu kendu, Estadu, neu, Aldundi, jarteko”. Gaur egun, zuon proposamenaren arabera, ezertarako be ez. Non ete dagoz eskualdaketea baino lehen egiten ziran adierazpenak? 2017ko maiatzaren 24an, talde sozialistako ordezkariak honako hauxe inoan Ganbera honetako batzar nagusian: “euskal herritarrak aspaldi dabilz eskatzen autopistetarako erabilera-baldintzak, erabiltzaileentzako kargua ahal danik eta txikiena izan daiten. Eskari hori formatu bikoa izan da, hau da, eskaera-mueta bi egon dira: bidesariak erabat askatzea edo bidesariei eustea, baina hobariak ezarrita, azpiegitura horreen erabilerea handiagoa edo txikiagoa dan kontuan hartuta”. Horrezaz ganera, honako hauxe be bainoan 2017ko zezeilaren 15eko Osoko Bilkuran: “hobarien formula ez da AP-68an ezarri, ez dalako foru-titulartasunpekoa”. Orduan, txintik be ez kudeaketeari buruz. Horixe esan dozu, ez ahalegindu bizkaitarrak nahastetan, ez ahalegindu komunikabideak nahastetan. Ez da eragozpena, adostasuna lortu daiten eta bizkaitarrok AP-68ko bidesariaren truke gitxiago ordaindu daigun. Erabagi politikoa da.

Osoko Bilkuran bertan, talde sozialistearen jarrera argia zan. AP-68 autopistearen inguruko eskumena bere gain hartutakoan, Foru Aldundiak Bizkaia zehartzen dauan tartean ezarten dau foru-titulartasunpeko bidesaridun errepede-azpiegituretan ezarten dauan dirulaguntza-araubide berbera. Hori, komatxo artean jarrita, zeuok, hona, Osoko Bilkura honetara ekarri zenduena da. Bestetik, 2018ko garagarriaren 18ko batzar nagusian, Azpiegituretako eta Lurralde Garapeneko foru-diputaduak, Pradales jaunak, honako hauxe baieztu eban AP-68a darabilen bizkaitarrei dirulaguntzea emoteko aukerari buruz: “arrautza eta foru kontua da”. Tira, ba, orain badago forurik, baina bizkaitarrok ez dakigu ezer arrautzeari buruz. Non geratzen ete dira bizkaitarrak eskualdaketearen eta ekimen honen onarpenaren ostean? Egozan leku berean. Bizkaitar saiatuak bidesari berbera ordaintzen segidu beharko dau, zuoi, Foru Gobernu honi eta gobernuari eusten deutsien taldeei esker. Halanda be, badago alderik beste euskal herritar batzuekaz, arabarrakaz, barbarako. Bertan, hain zuzen be, Foru Aldundiak 2012an bidesari sozialerako abian jarri eban eta gaur egun be, 2020ko ekitaldi honetan be, indarrean dagoan programearen ondorioz, AP-68ari jagokonez, lehen aitatu dan hobaria jasoko dabe, hau da, bidesariaren prezioaren %60 hileko 15 bidaietatik aurrera baino ez.

Ez da eragozpena adostasuna lortzeko, ez daukagu ezelako mugapenik, borondate politikoa baino, baita lehentasuna izatea be, eta zuok, ekimen honen bidez, holakorik ez daukazuena egiaztatu dozue. Hara, nik ez deusuet eskatzen ahal danik eta arinen egiteko, berehala egiteko baino.

La **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Lobato Pascual, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Buen mediodía. Señora Presidenta. Junteros/as.

Gaur, talde proposamengileak sistema baten ezarpenaren egokitasuna dakarsku eztabaidara, AP-68 autopistea darabilen bizkaitarrek 30 €ko hileko gehieneko bidesaria eskatzeko eskubidea euki daien. Ordezten dodan Elkarrekin Bizkaia taldeak ez dauka horren inguruko zalantzarik: aldeko botoa emongo dogu. Bidezkoa da foru-titulartasunpeko errepideetako holako bidesarien tarifa-baldintzak bizkaitarren bizilekuaren arabera zehaztuta ez egotea eta, aldi berean, kasuan kasuko errepide-tarteen kudeaketaren baldintzapean ez egotea (edo horretarako ahalegina egiten da, behintzat).

Jatorrizko ekimena, hasierakoa, ez eze, beste bat be badaukagu mahai ganean. Azken hori Gobernu Taldeak idatzi dau. Lehenengo eta behin, argi eta garbi itxi gura genduan erabilitako metodologia ez doguna uste Ganbera honetara ekarteko egokiena danik, arauen arabera zuzena izan arren. Abenduaren 5ean, Ganbera honetako talde baten jatorrizko ekimena erregistrau zan. Gure eretxiz, Gobernu Taldeak hilebetetik gorako epearen ostean erregistrautako proposamenak zuzenketearen formatua segidu beharko eban, ekimen batzuek beste batzuk zapaldu ez eiezan.

Bat gatoz EH Bildu taldeak aurkeztutako ekimenaren espirituagaz, era bateko eta besteko errepideen zerbitzuetako erabiltzaileen arteko bardintasuna daukalako helburu, errepidearen kudeaketea noren esku dagoan kontuan hartu barik. Ekimen hau babestean, gure asmoa ez da gure Ganbera arautzen daben arauen legezotasuna eta eskumena albo batera ixtea, baina uste dogu, legezotasunari ez eze, Ganbera honetara eztabaidara ekarten diran ekimenen legezotasunari be erreparau behar deusagula. Holan izango ez balitz, eserleku honeek ez geunkez politikariok beteko, epaileek eta abogaduek baino. Alde horretatik, ez daukagu proposamen honen legezotasunaren inguruko ezelako zalantzarik, eta baiezko botoa emongo deusagu.

Gogoratu egin gura genduan, Informazino Batzordeko eztabaida batean egin genduan lez, alkarrizketa-mahaia deitu beharra dagoala Ganbera osotzen dogun talde politikoon artean, bidesariak zehazten dabezan faktoreak eta foru-titulartasunpeko errepideetan daukien preminea zehazteko. Gure ustetan, bidesariak gure lurraldeko garraio-moduak zehazten dauzan errealidadearen parte diranez, etorkizunari begira Bizkaiko herritarren mobikortasuna izatea gura dogunaren oinarriak finkatu behar doguz.

Alde horretatik, adierazo egin gura genduan, talde moduan gaur eztabaidara ekarten dan neurri hau beharrezkoa dala uste dogun arren, ulertu egiten dogula bere onarpena oxigeno-globo txikia izango dala publikoa barik garraio pribadua sustatzeko orduan. Guk geuk ez geunke holakorik jazoterik gura. Halanda ze, guretzat egokia da Ganbera honetatik horren inguruko kontzientzia hartzea eta garraio publikoa modu berean bultzatzea. Berbarako, kontuan hartu beharreko neurria izango litzateke garraio publikoko tarifaren prezioak jasteko proposamena egitea, baina, batez be, gaur egun kostua daukien, garestiegia, gure ustetan, tarifakazino finkoko tituluak erostean holako garraio-muetearen aldeko apustu irmea egiten daben erabiltzaileen esku jarten diran tituluetan. Ezinezkoa da garraio publikoaren aldeko apustua egiten dauan 4 kideko

familia batek, berbarako, hileko 350 euro inguruko gastua egitea, euren joan-etorrietarako behar diran tituluak erosteko.

Hori, ostera, zer esanik ez, beste eztabaida bat da, eta lehenbailehen euki beharko geunkeala uste dot. Horretarako, txartel bakarraren bideragarritasunari buruzko azterketa ospetsuari itxarongo deusagu, hori eta Foru Aldundiak kalidadeko garraio publikoaren alde egiten dauan apustua baldintzatzen dabon beste faktore batzuk barriro be mahai ganean jarteko. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Ahora, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señor Méndez Urigoitia, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Muchas gracias, de nuevo. Desde EH Bildu tenemos algo muy claro. Si no tomamos medidas, incrementaremos la discriminación en Bizkaia en lo que respecta a la política de peajes, por lo que hemos de oponernos a eso, no lo podemos permitir. La palabra que hemos utilizado nosotros/as es homogeneización, y creemos que para hacer frente a esa discriminación debemos poner una dinámica en marcha y desde el primer momento. Lo más lógico, y lo que consideramos un objetivo, es el establecimiento de un límite de gasto. Esa es nuestra apuesta, y lo hemos dicho alto y claro, pero, si se plantea otro tipo de subvención o si se implanta en la AP-68, desde EH Bildu no nos opondremos, y, por ello, nos vamos a abstener a la Proposición No de Norma que han presentado ustedes.

Dana dala, barriro dinot, zuontzat dana, albo batera itxi barik, gure eretxiz, proposamen honen azken helburua izan beharko litzateke. Halanda ze, EH Bilduren helburua, eta nabarmendu egiten dot, lurraldeko eukiera handiko errepide guztietarako ordainketa-sistemea bardintzea da oraindokarren. Itandu egin deuskue susmetan bagenduan ala ez zein izango zan erantzuna. Tira, Lobato jaunak aurea hartu dau proposamena egin deusunean. Aurreko agerraldian, hasierakoetako batean, Rico jaunak esan dau atea jo behar dirala eta taldeei deitu behar jakela erdibideratzen ahalegintzeko. Kasu honetan, ikusten dogunez, Gobernu Taldeak bere ingeniari politikoari eutsi deutso barriro, zuzenketarik ez aurkezteko, proposamen alternatiboak baino, eta beste talde batek aurkeztu ebanetik hilebete igaro ostean. Gure eretxiz, gure taldearentzako errespetu-faltea da, aurkeztu dauana izan dalako kasu honetan, eta Ganbera oso honentzako be bai, jardunbide zuzenena ez dala uste dogulako.

Egiten doguna egiten dogula be, argi eta garbi daukagu emokidadunak, gastu-mugea eukita edo euki barik, berbera kobrauko dauana azkenean. Diru horrek nondik urtengo dauan da kontua. Claver andrearen esanetan, Pradales jaunak bere egunean saldu eban ordaintzen dan 20 milioi euroko dirulaguntzea arrakastatzat jotzen dala. Nik neuk ez daukat hain argi. Geuk be egin dogu apustua, eta, gure diskursoa, Lobato jaunak be egin dauan moduan, garraio publikoaren aldekoa da. Era berean, gure ustetan, ezin dogu bidesarien eta garraio pribaduetako sistemen dirulaguntzea bakarrik indartu, garraio publikoan neurririk hartu barik, aldi berean egin beharra dagoala uste dogu-eta. Oso gustuko euki dot Jerónimo jaunaren agerraldia, gastu-mugea aldarrikapen sozialista handia dala esan dau-eta. Halanda be, gogoratu egiten deusut proposamena Ganbera honetara ekarri ebana eta hasiera batean defendidu dauana ez dala zure taldea izan, baina horrek ez dau esan gura aspaldiko aldarrikapen sozialistea izan ez dala. Hori ez dot zalantzan jarten.

20 milioiak aitatu deusuedaz. Nik oso gogoko daukat gauzak ñabartzea. 20 milioi asko dira edo gitxi dira, zergaz erkatzen dan kontuan hartuta. Eukiera handiko errepide batzuetako bidaia jakin batzuk diruz laguntzeko 20 milioi nahikoa dirutza dala uste dot. Dana dala, gogoratu egin gura dot urtero 40 milioi ordaintzen gabilzala Gerediaga-Elorrioko

kanonerako, hau da, bikotxa, zehatz-mehatz, errepide bakar baterako. Nire eretxiz, nahikoa garrantzitsua da egoera biak parean jartea.

Por otra parte, aunque el dinero se considere un pretexto, con el fin de garantizar el beneficio económico de la empresa concesionaria, por ejemplo podemos tener en cuenta lo que hemos hecho en Lemoiz, lo que hemos hecho con Iberdrola. En algunos casos, hay problemas para destinar dinero a ciertos proyectos. En otros casos, sí hay dinero, así como ninguna responsabilidad por parte de esas empresas. Millones y millones de euros para unas cosas, y no tanto dinero para otras.

Amaitzeko, beste aukera batzuei atea zarratuko ez deutsegunez, abstenidu egingo gara EAJk eta PSOEk aurkeztu daberen ABPn. Dana dala, barriro dinot, gure ustetan, lurralde osoan bidesarien sistema bardintzea izan behar da azken helburua eta ez errepide bakotzerako unean uneko urtenbideak bilatzea. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias.
Señor Jerónimo Moreno, portavoz del grupo Socialistas Vascos.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Tira, lehenengo eta behin, nire ustetan, apur bat ausazkoa. Gero, benetan interesa daukana jorratuko dogu, hau da, proposamen biak edo proponidutako ABP biak bat egitea, nik uste. “Apur bat ausazkoa” esan dot, Alderdi Popularreko andrearentzat asko diralako 7 hilebete, eta 15 urteak, kudeaketea enpresa pribadu batera zabaldu zanetik igarotako 15 urteak, mosu-truke, zelan esaten jako horri, isekea, iruzurra, zelan esaten jako horri? Izan be, jakina, emoten dau zu ez zengozala batzordean, zure kideak, orain ez dagoanak, aitamen hau egin eutsan diputaduari: “orain, PSOE Espainian dagoanez, dana doarik”. Halanda ze, hori oso txarto dago. Batzordean, bai, bai, batzordean. Zure alderdiaren gobernupean dagozan beste autonomia-erkidego batzuk aitatu genduzan, eta bertan be ez da doakoa, ez Madrilén, ez Galizian, ezta bakar batean be ez. Ez dago doakotasun hori, demagogia merkea da. Horrexegaitik esan dot hasieran sare pribaduak edo pribaduak diran emokida-sareak darabilezan erabiltzaileek ordaintzen ez daberen horretarako erabilitako baliabideen kuantifikazioa, hain zuzen be, diru publikoaz ordaindu beharra dagoala. Kasu honetan, 20 milioiak aitatu dira, ez dakit zehatz-mehatz, nire aldetik abenturea izango litzateke 20 milioi dirala esatea, Aldundiak, hau da, herritar guztion, bertan gagozan alderdi guztion zergak leku batetik atera behar dirala beste batera eroateko. Kasu honetan, 15 urte gehiago emon beharko jakoz, zure alderdiaren erruz, zure gobernuaren erruz, bere garaian egoanean, herritarren, bizkaitarren 15 urte gehiagoko baliabideak enpresa pribadu batentzat. Ez dakit zer izen daukan horrek. Barriro dinot. Zure esanetan, 7 hilebeteak isekea ziran. Atera kontuak zer dan 15 urte gehiagotan baliabide publikoak enpresa pribadu bati ordaintzen segidutea.

Tira, enpresa pribadu bati, hain zuzen be, proposamen bat eroateko dagoan aukerari, edo ez, jagokonez, zera esan behar deusut: “zenbat kudeatu behar dozu 2026ra arte? Zenbat balio dau? 1.000 milioi, balio dauana, bost axola, diru publikoa da-eta”. Izan be, ezin da egin. Segurtasun juridikoa dago hemen, herrialde honetan, Euskadin, Europan, eta gauza horreek ezin dira holan egin. Eseri egin beharra dago, zenbat dan ikusi, hain zuzen be, edo zelan ahal dan kuantifikatu eta zer baldintzatan finantzatu daitekean zati bat, neure lehenengo agerraldian esan dodan lez, “preso” dagozan erabiltzaileentzat, holako azpiegiturea derrigorrean erabili behar daberenentzat. Bono sozial horren bidez, esan dogunez, “tarifa finko” horren bidez zati bat ordaindu ahal bajake, ondo etorria izan daitela.

Proponidu dauanari jagokonez, Podemoseko batzarkidea izan dala uste dot, esan egin dau araudiaren legezko trikimailu hori, araudia bardina dalako danontzat, erabili egin beharra dagoala, proposamenak garaiz eta behar dan lez aurkeztu behar dirala eta ez epetik

kanpo. Horixe da jazoten dana, edo horixe da jazoten dana batzuetan, proposamenak epetik kanpo aurkezten diranean. Hauxe, kasu honetan, Alderdi Sozialistek Alderdi Jeltzaleagaz aurkeztu ebana, epearen barruan aurkeztu zan, eta, horrexegaitik, orain eztabaidagai hori daukagu bertan.

Edozelan be, agerraldiari jagokonez, eta nik neuk proposatzaileena izan dala uste dot eta arauz besteko proposamen honen aztarna moduan geratu behar dala uste dot. Bilduko ordezkariak esan dauanez, gitxi gorabehera, ondo ikusten dau proposamena edo, gitxienez, ez dau oso txarto ikusten, hau da, gastu-mugea bat egiteko proposamena, egin deusagun proposamena. Guk geuk esan geuntsanez, eta horri eusten deusagu, AP-8ko inguruabarren azterketa zehea egin ezker, transferentzia zer baldintzatan emon deuskuen kontuan hartuta, transferentziak maizterra daukalako, bertan bizi dan gizon bategaz emon deuskue transferentzia. Ezin dogu bota. Bota egin behar dogu, baina berea ordaindu behar deusagu, eta hori ezin da goizerik gauera egin. Hori dala eta, ados jarten bagara eta horretan bat etorriko gara, nire eretxiz adostasun hori oraingoa bada be, lehen gastu-mugearen, hau da, “tarifa finko” horren baldintzak onartu ziranean zuok horren alde ez zengozela uste dodalako. Oraintxe sortuko zan, nik dakidala.

Tira, edozelan be, ondo etorriak izan daitezala. Nire eretxiz, asmo hori da batzen gaituana, berbabide daukaguna, hau da, azterketak egindakoan, baterakuntzea ezarri, egin ahal izatea. Horrexegaitik esan deusuet proposamenean, gastu-mugearen sistema albo batera itxi barik, formuletakoa dalako. Argi eta garbi dago, ganera, hori gaur eguneko emokidadunagaz egin behar dana, kostu gehigarriak egon ez daiten, nahiz eta enpresearen titularrak honako hauxe esan: “izan be, ez dakit norik ez dauan onartzen AP-8a doakoa ez izatea”. Doakoa, 2026ra arte, ezelan be ez. Ez da doakoa izango. Bizkaitarrek jakin egin behar dabe dirua leku batetik ateraten badogu, beste batera joango dana, baina zergetako diru berbera da. Arreta sozialetik ateraten badogu, tira, edozein lekutatik dala be, eta honetarako erabilten badogu, ez dogu beste leku baterako erabiliko. Nire eretxiz, alde horretatik, demagogia da merkea esatea, “dana merke, dana doarik”, baten batek dinoanez. Ez, ba. Zoritzarrez, ezer ez da doakoa, herritarren zergen bidez ordaindu beharra dago. Bestetik, nonok be esan dau, ez dakit zelan esan dauan, trikimailua, ingeniariatza politikoa zanentz, Bilduko jaunak esan dau hori, azkena da, eta, nire ustetan, hor apur bat erratu da, nire eretxiz. Ingeniariatza politikoa. Botoen ingeniariatza politikoa denak demokrazia dauka izena. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Claver Zurro, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **CLAVER ZURRO** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Voy a ser muy breve. Nire ustetan, bertan jente asko, ez dakit lekuagaitik dan, animau egiten gara. Hara, Fernández andrea, eskualdaketearen eguna: urtarrilaren 1a. Batzordeak bere lanak amaitzeko daukan epea: urtebete dauka, 2019ko maiatza, 2020ko maiatza. Ez dot segiduko. Ganera, Sustapen Ministerioak inponidutako tarifearen prezioa. Ez dot barrero berba egingo, eta ez dot errepikauko nire aurretik berba egin dauanak emokidadunari buruz iradoki deusuna. Berari esker... Nik neuk gogoko neuke zuk sortu jatan zalantza bat argitzea. Aznar jaunak, hainbesteko obskurantismoaz, ateak itxita, zergaitik emon eutsan enpresa bati, enpresa pribadu bati honen kudeaketea, holan, beste barik? Erakunde pribadua da. Zer esanik ez, berretsi egiten dogu guk transferentziak gura doguzana, lege organiko batean azalduta dagozan transferentziak, alegia. Bestetik, arrautzei buruz berba egin dozu. Guk, bizkaitarrok, badaukagu labeldun arrautzak erruterik, tortillea egin daiten, baina ez erakunde pribadu batek jan daian, Fernández andrea.

Idea bi, titulartasuna eta kudeaketea, Aldundi honek bere sasoian ezarritako gastu-mugearen ezarpena. Méndez jauna, guk, behintzat, esan dozuna hartuko dogu kontuan, eta

eskunarrua luzatuko deusugu, alkarregaz lan egiteko eta berbetan segiduteko, baina berba egitea, alternatibak aztertu egin behar dirana jakinda eta zehaztasunez jokatzeko mekanismoak eta kontrol-baliabideak jarri behar doguzana jakinda. Ulertzen dot oposizioaren bankadatik, okupetan ez dozuenean eta kudeaketa zuzenerako gaitasunik ez daukazuenean, erraza dala presa sartzea, azeleragailua zapaldu daigula eskatzea. Aldundi honentzat, ostera, garrantzitsuena ez da egitearren egitea, ondo egitea baino edo gauzak ahal danik eta ondoen egiten ahalegintzea baino. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, eskerrik asko, barriro be. Egun on. Tira, zatika joan gaitez, diskursoa bilakatzen joan dalako. Talde sozialistako ordezkariari: "jenteari azaltzen ahalegindu gara", horra hor zure lehenengo agerraldia, eta, halanda ze, Osoko Bilkura hau segiduten dabenei be bai, bizkaitarrok ezin genduala hobaririk euki AP-68ko bidesarian, aurreko gobernu batek, orain dala uste asko, erabagia hartu ebalako eta Foru Gobernu honek, gai honen inguruko konpromisoa daukan arren, ezin dauala egin erabagi horren ondorioz.

Zeure bigarren agerraldian, ostera, ez dozu hori esan. Oso gauza larria esan dozu, iruzurra leporatu deusezulako arduradun politikoei. Ez da arduratsua tribunan hori egitea. Zure eretxiz, arduradun publikoren batek iruzur egin badau, hori delitua da. Arduradun publiko baten kasuan, epaitegira! Hori egiten ez badozu, zeure erantzunbeharra, Foru Gobernuari eusten deusana taldearena, ekiditeko baino ez darabilzu, bizkaitarrok jasaten gabilzan kaltean, hau da, adostasuna lortzea, bidesarrietan hobariak euki daiguzan. Hara, ez pentsau talde popularrak polborea gaur asmau dauanik, ez, arabarrek orain dala urte asko daukie hori, foru-titulartasuna eukienean eta ez eukienean. Oraindokarren ez daukie kudeaketearen titulartasuna, eta onura hori daukie. Halanda ze, zuok, aurkeztu dozuen ekimen analitiko horretan, atxakiak jarrea eta justifiketea baino ez daukazue helburu bizkaitarrei sortzen zagozen kalteagaitik. Edozelan be, jakina, bizkaitarrentzako zerbitzuari buruz berba egin dozu. Orain dala gitxi, euki egin dogu, eta batzuek laneko istripua izan dala esan dabe, zoritxarreko jazoera ezin txarragoa izan dala uste dot nik, hau da, Zaldibarreko zabortejiaren eraspina. Hori dala eta, luzaroan iraungo dauan egoerea sortu da, hau da, AP-8ko bypassa. Halanda ze, hilebete asko iraungo dauan hori ez da bizkaitarren kudeaketearen errua izan, baina, bai, Eusko Jaurlaritzek zaborteji horregaz zerikusia daukan guztian eukan kontrol-faltearen errua, agirikoa danez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por favor, céntrese en el tema, por favor. Antes también le he llamado al orden a otro juntero, con lo cual también he de hacerlo con usted, señora Fernández. Muchas gracias.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Uste nebenez, Zaldibar berbea berton debekauta dagoan berbea da. Banengoan ba ni! Banekian hori jazoko zana, baina esan egin gura neutsun orain bizkaitarrei emoten jaken zerbitzu txarrago horren ondorioz ezelako beherapenik egin dan. Bioi itantzen deusuet, sozialistoi eta jeltzaleoi. Zein da erantzuna? Ez, bizkaitarrei berbera kobretan segiduten dozue, inguruabarrak inguruabar. Jakina, lehiakortasun-arazoa daukagu lurraldean. Kontrolerako Osoko Bilkuran berba egingo dogu Bizkaia Torrean jazo barri danari buruz. Osoko Bilkura honetan aitatu ezin ei diran berbetako beste bat da hori. Dana dala, lehiakortasun hori...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández, el tema. Cíñase al tema.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Aitamena baino ez dot egin. Hara, gaur, berton, Osoko Bilkuran, Zaldibarreko beharginei alkartasuna adierazoteko baimena emon dozu. Nik metalgintzako grebearen konponbideari buruz egin nebanean, oster, gaira deitu zeunstan. Gaur, horretarako baimena emon dozunez, neuk egitea da kontua?

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Fernández andrea, araudia interpretatu eta ezarten dauana mahaiburutza hau da. Mesedez, orain berbabide daukazun gaiari eutsi.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Nik errespetatu egiten dot. Zuk ezarri egiten dozu, baina kexetako eskubidea daukat, zuk, nire ustetan, bidezketasunez egiten ez badozu. Bai, bai, eutsi egingo deusat, baina aitatu be ezin diran berbetako beste bat dala uste dot. Edozelan be, esan deusuedan lez, argi dago lehiakortasun-arazoa daukaguna eta konektibotasunagaz zerikusi handia daukana. Dirua ez da inorena? Ez. Nire eretxiz, ez dogu hori uste. Dirua danona dala uste dogu danok, baina lehentasunak zein diran pentsau beharko da. Agirikoa danez, bidesariak kentzeko politika batean pentsetan joan behar gara, ez dodalako uste errepideetako azpiegituren arloan kontuan hartu beharreko adibideak Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea diranik. Erantzunbehar hori ezin jaku Alderdi Popularrakooi leporatu, beharbada, bai, 2011. urteari buruz berba egitean gaur euren erantzunbeharrari muzin egiten ahalegintzen dabilzan taldeei. Uste dot Gerediaga-Elorrio tarte be ez dala zuok aitutzen dozu kudeaketa on horren adierazgarri.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Para concluir el debate, señor Lobato Pascual, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Tira, lehenengo eta behin, Jerónimo jauna, inork ez dau zure ABPre arauzko legezketasuna zalantzan jarten, inork be ez, edo oso traketsa izan naz azalpenak emotean edo nire berbak asmo txarrez eta apropos erabilten zabilz. Aurkezteko moduaren egokitasuna da kolokan jarri dodana, hori baino ez.

Ganberara eztabaidara dakarskuzun gaiari jagokonez, Ganbera honetako taldeei entzun ostean, egiaztatu egin daikegu gai honen inguruko jarrera ia-ia berbera izan leitekeana; edo, gitxienez antz-antzekoa. Seguruenik, “zelan” hori da euren artean dagoan aldea. Politikan, “zelan” horrekin funtsezkoak dira, eta Ganbera honetara ekarten diran gaiak ebazteko orduan daukagun prestasunaren erakusgarri dira. “Zelan” horrekin taldeok zelakoak garan zehazten dabe, eta arpegi desbardinez erakusten gaitue herritarren aurrean. Garrantzitsuak dira. Barriro dinot. Gure karguakaitik daukagun erantzunbeharrak jagon behar doguz. “Zelan” hori esanguratsua izango da, gaur gai berari buruz eztabaidara ekarten diran aukera bien artean hautatzeko erabagiari jagokonez.

Gaur, neure lehenengo agerraldian esan dot, baita batzorderen batean be, orain dala gitxi, legezketasuna eta eskumen-arloak euki behar dirala kontuan, ekimenak proponidutean eta defendidutean. Halanda be, ezin doguz erabili immobilismoak justifiketako. Herritarrek gure eserlekuetan jesarri gaitue, arazoak konpontzeko, askotan, euren zilegitasuna justifikauta. Txarto egiten egongo gintzatekez, faktore hori kontuan hartuko ez bagendu.

Aurreko agerraldian esan dodan lez, holan egingo ez bagendu, legeak eta arauak ezarriko leukiezan abogaduak eta epaileak egon beharko litzatekez eserleku honeetan jesarrita. Alde horretatik, eta gaur berbabide daukagun gaian, uste dogu Euskal Herria Bildu taldearen hasierako proposamenak Gobernu Taldearenak baino hobeto azaltzen dauzala foru-eskumeneko errepideak erabilteko baldintzak. Ganera, zelan dagoan idatzita kontuan hartuta, uste dogu barriro darabilala legezkotasuna eta ez ekimenaren zilegitasuna. Hori dala eta, agerraldian aurreratu deusuedanez, gure taldeak jatorrizko ekimenaren aldeko botoa emongo dau. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Una vez concluido el debate, deberemos realizar dos votaciones. En primer lugar, cuando todos/as ocupemos nuestros escaños, someteremos a votación la Proposición No de Norma presentada por Euskal Herria Bildu. Votemos. El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 46: 16 votos a favor, 28 votos en contra y 2 abstenciones. Por tanto, no se ha aprobado la Proposición No de Norma presentada por Euskal Herria Bildu.

A continuación, someteremos a votación la Proposición No de Norma presentada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. Votemos. El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 46: 28 votos a favor, 8 votos en contra y 10 abstenciones, Por tanto, se ha aprobado la Proposición No de Norma.

Punto octavo y último del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Proposición no de norma ([R.E.11/E/2020/0000030](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: La inmediata paralización de todas las actuaciones relativas a la construcción un aparcamiento e instalaciones en las inmediaciones de San Juan de Gaztelugatxe.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2020/0000030](#)), ([R.E.11/E/2020/0000191](#))

Boletines: [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (29A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (29B)

Expediente: ([11/B/26/0000681](#))

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Arauz besteko proposamena ([11/E/2020/0000030SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: Gaztelugatxeko Doniene inguruan aparkalekua eta instalazioak egiteko jarduketa guztiak behingoan geldiarazotea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2020/0000030SE](#)), ([11/E/2020/0000191SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (29A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (29B)

Espedientea: ([11/B/26/0000681](#))

Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la moción. Por tanto, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Egun on barriro be. Gaur Arauz Besteko Proposamen garrantzitsua dakargu Ganbera honetara. Garrantzitsua, errazoi batzukaitik. Garrantzitsua, Bizkaiaren adierazgarri bereizgarria dan lekune naturaletako bati buruzkoa dalako. Garrantzitsua, Gaztelugatxeko San Joan lako lekuaren balio sinbolikoagaitik.

Garrantzitsua, bere babesaren herritarren eskakizun saihestuezina dalako. Garrantzitsua, Bizkaiko Foru Aldundiak bertan aparkalekua eregiteko aurkeztutako ekimena erasotzat jo dabelako bizkaitarrek eta ez urtenbidetzat. Bizkaiko Foru Aldundiak 51 ibilgailuentzako aparkalekua eregi gura dau Gaztelugatxeko San Joan inguruan. Eremu horretan, babestu beharreko hiru leku dagoz: Biotopo Babestua, Kontserbazino Bereziko Eremua eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua. Proiektuak 51 ibilgailuentzako aparkalekua altzau gura dau, 235.000 inguru bisitariren garraio pribaduaren erabilera ekiditeko, EAJko eta PSEko Gobernuaren arabera. Urteko 235.000 bisitarientzako 51 plaza. 19.500 bisitari hileko, 4.895 bisitari asteko. 51 aparkaleku eta milioi bat euroko gastu publikoa.

Proiektuko obreak arabera, 3.000 metro kubikoko indusketea eta 9.500 metro kubikoko betegarria eregiko dira aldats handiko ezpondan. Era berean, aurreikuspenen arabera, 108 metroko luzeradun eta 15 metroko altueradun 3 harresi be eregiko dira. Holako proiekturako eta ingurune horretarako, preminea, aukerea eta proporzionaltasuna balorau behar dira, eta ahal danik eta alternatiba gehien aztertu behar dira, holan bajagoko, inguruan eragin txikiena daukana aukeratzeko. Bere premienari eta aukerari jagokenez, Foru Gobernuak defendidu egiten dau 51 plazako aparkalekuak garraio pribaduaren erabilera gitxitzen lagunduko daua. Benetan ez dago Gaztelugatxeko San Joan inguruan garraio pribaduaren erabilera murrizten dauan alternatiba jasangarririk? Ingurumen eta Jasangarritasuneko foru-diputaduak joan dan hilebetean Bizkaiko Batzar Nagusietan azaldu ebanez, saileko teknikariek ingurumenaren ebaluaziorako egindako txostenaren arabera, argi dago eragin kaltegarririk emoten ez dana, eta, horren ondorioz, aldekoa da. Txosten hori, ostera, aurretiazko ebaluaziora, ingurune horretako aurreko jarduketetara mugatzen da. Proiektu zehatz horrek ingurumenaren ganeko eraginari buruz aurretiaz egindako balorazinoa darabil. Ez dago ingurumenaren ganeko eraginaren berezko ebaluazino errazturik. SOS Gaztelugatxek salatu dau, eta salatzen segiduten dau. Izan be, adierazo dabenez, Aldundiak ez dau oraindokarren proiektuko ingurumenaren ganeko eraginaren txostenik aurkeztu, eta oraindokarren ez deutsee Bakioko zein Bermeoko herritarren itaunei eta kezkei erantzun. Ganera, euren esanetan, eta bitxia da, ibilgailuentzako aparkalekua autobusentzako aparkaleku bihurtu daitekeala azaldu dau foru-diputaduak, proiektua barriro egiteko preminea aitatu barik.

Barriro esan behar dogu. Eraginkortasun zalantzarria daukan ingurumen-babeserako asmoak benetan justifiketan dau Gaztelugatxeko San Joan lako lekune batean milaka kilo zementu sartzea? Proiektu hori non txertatzen da klima-aldaketaren aurkako ustezko foru-estrategian? Non dagoz alternatibak; esate baterako, Bizkaibusek Bermeoko edo Bakioko udalerrietatik euki beharreko anezkak?

Aparkalekurako proposamenak modu grafikoan adierazoten dau Bizkaiko Foru Aldundiak bere egin daua Woody Allenen definizino bat. Bertan, hain zuzen be, defendidu egiten eban karrerako politikariaren bokazinoa dala urtenbide guztiak arazo bihurtzea.

Gaztelugatxe bizkaitar guztien ingurumen eta kultura arloko aktiboa da. Proiektuak aparkaleku hutsa egingo dala ostendu gura dau, benetan eragin ikaragarria eta ingurumenaren ganeko inpaktua daukazan obrea danean. Memorian, ez da aitutzen eta gurata ekiditen da ingurumenaren ganeko eraginaren beharrezko ebaluazinoa, eta modu eufemistikoan aitutzen da proiektuaren etorkizuneko balorazinoa. Ulertuezina da hain funtsezkoa dan tresnea, hau da, ingurumenaren ganeko eraginaren ebaluazinoaren preminea, ustezko balorazino geroratutik dingilizka geratzea proiektuan. Inondik inora justifikauta ez dagoan proiektuaren ondorioz herritarren artean sortzen dagoan egonezina eta Gaztelugatxeko ingurune naturala jagoteko preminea kontuan hartuta, araz besteko proposamen honetan proponiduten dana da urtenbide zentzuzkoena, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea Gaztelugatxeko San Joan inguruan aparkalekua eta instalazinoak eregiteko jarduketa guztiak berehala geldiarazo daizala, berehala eten daizala. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzea mobikortasunari begira

adostutako beste era bateko urtenbideak proponidu daitezala, ingurumena eta lekune babestu honen kontserbazinoa gehiago errespetetan dabezan aukerak kontuan hartuta, eta, horretarako, instituzinoen eta auzokoen zein herritarren adostasuna euki daiela. Sasoiz gabilz. Sasoiz gabilz, hausnartzeko eta herritarren erreklamazioak entzuteko. Ehunka herritarren erreklamazioak, euren jarrera ideologikoak albo batera itxita, Foru Gobernuari esaten deusielako beharrezkoa ez dan eta lekune pribilegiuaren kalterako izango dan proiektuaren aurka dagozala. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. El grupo Euskal Herria Bildu presentó una enmienda. Por tanto, señora Arriola Alzola, desde su escaño, tiene la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buen mediodía a todos/as. Compartimos la propuesta que ha presentado el PP, y hemos formulado una enmienda al respecto, un poco por completarla e ir más allá. En esa complementación, lo que proponemos es que, por una parte, la Diputación Foral de Bizkaia elabore una planificación de la movilidad sostenible y, por otra parte, que se ponga en marcha esa mesa de gobernanza, que figura en la Propuesta de 2018 de la Diputación Foral de Bizkaia para Gaztelugatxe.

Por tanto, eso es lo que le hemos añadido a la propuesta que ha presentado el PP, lo que ya figura en el informe que presentó la Diputación Foral de Bizkaia en el año 2018. He traído el informe, y lo voy a leer. Lo voy a leer, para que todos/as tengan constancia del mismo, ¿no? Dice en la página 143, “behar besteko urtenbideak abian jartea Gaztelugatxeko jarduketea eta kudeaketa integrala ingurunean lan egiten daberen eragileen arteko koordinaziopeko antolamendurako eta gobernantzarako”. También dice, “Gaztelugatxeko San Joan interes-aktibo moduan sustatzeko edozein jarduketa publiko kudeatzeko eta proponiduteko, 3 ikuspegiatik jorratu behar dira lanak: ingurumenaren eta naturearen babesa, eskaintza turistiko kulturala eta azpiegituren eskaintza”.

Era berean, “ingurunearen ezaugarri naturalen eta tradizioaren ondorioz, era bateko eta besteko eragile pribaduak ugaltu dira, eta, Gaztelugatxeko San Joaneko biotopo babestuaren kudeaketako elementu zehatzen baten ganeko erantzunbeharra emoten deuten lege-estaldura berezia ez badaukie be, lotune-maila desbardina daukie ingurunearen kudeaketeagaz edota artapenagaz, eta, erroketara historiko estu horregaitik, oso kontuan hartu behar dira. Hori guztia kontuan hartuta, funtsezko giltzarria da inplikautako instituzino publiko guztiak behar dan lez eta eraginkortasunez koordinetea. Holan, proiektuaren arrakasteak lotura zuzena dauka adostasun instituzional zabalaren lorpenagaz eta proiektuaren egituraketa juridiko egokiagaz. Horrezaz ganera, eragile pribaduen partaidetzea be antolatu beharra dago”.

Se recoge en propuestas concretas: 5.1.1, “Gaztelugatxeko jarduketearen eta kudeaketa integralaren antolamendurako eta gobernantzarako urtenbidea sortzea”. Eso es lo que pedimos. Lo que pedimos es que se cumpla lo que se decía en esa propuesta integral para Gaztelugatxe que planteó la Diputación Foral de Bizkaia el año 2018. Eso nos parece imprescindible, por lo que le hemos añadido la cuestión de la elaboración de una planificación de la movilidad sostenible. Lo que figura en la Ley 4/2019, que se tiene que dotar de una planificación de esas características. Se dice concretamente que se deben plantear “behar besteko alternatibak, garraio pribadua apurka-apurka gitxitzeko eta bizikleten erabilera zein motor bako joan-etorriak bultzatzeko”. Lo que este proyecto incumple, con lo que nosotros/as creemos que por eso se debe construir, debemos construir un camino peatonal.

En este informe de la Diputación Foral de Bizkaia, se recogen multitud de propuestas, también respecto a la movilidad. Lo que ocurre es que, es decir, se recoge que se refuercen las líneas de Bizkaibus, se incrementen las paradas, se pongan lanzaderas, se habiliten

caminos peatonales y bidegorris. Todo eso se incluye en este informe. Lo que no se plantea es un plan de acción, lo que no se plantea es un plan de gestión. ¿Dónde se puede desarrollar eso? En esa mesa que hemos comentado. En esa mesa, se deberían establecer prioridades, se debería elaborar un programa, es decir, se debería llevar a cabo una gestión, y eso es imprescindible.

Se trata de una propuesta de 2018, estamos en 2020, y aún no está en marcha. Como no está en marcha, surgen proyectos, no sé, como champiñones, y este es un proyecto, para construir un aparcamiento para 51 coches, y creemos que es un tema que se ha sacado de la chistera. En primer lugar, se dijo que sería para 51 coches. Después, tras numerosas comparecencias en Comisión, la primera fue de Unai Rementeria, luego compareció Elena Unzueta y, por último, Imanol Pradales, y lo que ocurre es que el proyecto va variando titular tras titular. Lo que en un principio iba a ser para coches, luego, no, va a ser para autobuses. Sin embargo, Amaia Fernández lo ha explicado muy bien en su intervención, ya que ha comentado que, sin rehacer el proyecto, lo que antes servía para 51 coches parece que ahora deberá servir para autobuses. Sin embargo, en la comparecencia de Imanol Pradales, quedó claro que ese proyecto no estaba pensado para autobuses. ¿Por qué? Porque el radio de giro no está contemplado, de unos 30 metros. Para que los autobuses giren dentro de la plataforma, se necesitarían unos 30 metros, y cuenta con 15 metros. Además, el pavimento no es el que se necesita en el parking para autobuses, porque, efectivamente, es para coches, según lo previsto. Lo dijimos en esa comparecencia en Comisión. Por ello, hoy también, lo traemos de nuevo, porque tenemos muchas dudas geotécnicas. Entonces se nos dijo que era una imprudencia, por lo que hoy vengo a leer lo que consta en este informe.

En este informe se dice en las páginas 25, 27, 28, 340, 346, 352 y 360, que la zona de monte entre Gaztelugatxe, Urizarreta y Ermua es inestable geotécnicamente. Eso lo ha mencionado antes alguien. No, los/as de la oposición también sabemos leer documentos, fundamentalmente los que ha publicado la Diputación Foral de Bizkaia, es decir, ustedes, y que constan como informes. En la página 25, concretamente, lo que se dice es, no voy a leer todo, aquí lo tienen para su consulta, pero dos sí, porque me parecen importantes. Se dice, “errepide honetako lurzoruak kolubialak dira, zuntz-hareatsuak”.

“Lurzoru-tipologia hori modu desbardinean atontzen da substratu harkaiztsuan, eta, orokorrean, lodiera handiak eta irazkortasun handia daukazanez, errepidearen egonkortasuna jarten dau arriskuan”. Solo voy a leer otra, la 360, porque también me parece muy significativa. Dice, “aldatsa handia da, eta ezegonkortasun naturala agirikoa da. Izan be, sortaldean, Bakio eta Bermeo arteko BI-3101 errepideko antxinako tartean, arazo batzuk jazo dira plataformako mobimentuen ondorioz. Aurretiaz egindako azterketetan, baliabide inklinometrikoen bitartez ikusi da mobimentu planarrak egon dirala, magalaren beste lerradura batzuk agertzen dirala beste leku batzuetan eta baten batek BI-3101 errepidean euki dauala eragina”.

“Hori guztiori dala eta”, se dice, “urtero, kontrol topografikorako azterketak egin behar dira inguruko errepidean; berbarako, BI-3101 errepideko tarte zaharrea eta saihebidetuen barria”. También se dice, “etenbako zaintzarako sistema”, no.

Es decir, no es una chiquillada ponerlo sobre la mesa, lo que también se valora en los informes existentes. Lo que ustedes proponen ahí es construir un relleno, en esa zona, concretamente, y eso nos crea una serie de dudas, porque luego ocurren las cosas y eso es lo que debemos evitar como gestores/as, no, eso también. Por tanto, por eso decimos, por todo eso, que este aparcamiento no tiene sentido, por la contestación social que ha causado, por las numerosas dudas técnicas que provoca. Además, no es suficiente decir, como dijo Pradales, “vamos a esperar hasta el verano, y ya veremos el tema del aforo, si se llena el aforo de 3.000 personas, si no hay coches mal aparcados y cómo funciona el transporte colectivo”. No es suficiente.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Arriola, por favor.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Lo dicho, debemos buscar una solución integral, y, en esa solución integral, resulta imprescindible la constitución de esa mesa, donde se presente un plan de gestión serio. Sin más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Igazko zemendiaren hasieran, Bizkaiko Foru Aldundiak jentaurrean aurkeztu eban 1.600 metro karratuko eta 15 metrorainoko altuerako aparkalekutzarra eregiteko proiektua, Gaztegiatxeko San Joan inguruan ibilgailuentzako 51 aparkaleku-plaza eskaintzeko. Harrezkero, Batzar Nagusiotan 3 batzorderatze egin dira gaiari buruz; eta, gaur, talde popularraren ABP, obrea behin betiko gelditu daitela eskatzeko. Edozelan be, lehenengo eta behin, oposizino indar politikoez Ganbera honetan egindako ekintza guztiak baino garrantzitsuagoa, oso garrantzitsua izan da SOS Gaztegiatxe plataformeak bultzatutako oposizino sozialaren zeregina. Hain zuzen be, gaur egun, 100.000 sinadura baino gehiago batu dira beharreztan honen aurka. Halanda ze, zer esanik ez, muchas gracias, muchas gracias, Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Alderdi Sozialistaren Gobernuak horrexegaitik eta ez beste errazoi bategaitik aldi baterako geldiarazo daualako Gaztegiatxe inguruan inponidu gura eben eta beharrezkoa ez dan alperreko azpiegituretzar jasanezin eta, batez be, ezin itsusiago eta zarrastel hori.

Jakina, obrearen geldiarazpenari buruzko albista horren ostean, nik neure buruari itantzen deusat orain non geratzen dan funtsean partaidetza soziala hauteskundeak dirala. Halanda ze, hauteskundeak irabazi dodazanez, nire obra faraonikoez behar dodan babes sozial guztia daukie. Tira, ba, Gaztegiatxeko aparkalekutzarrerako, hain zuzen be, ez da holako ezer geratzen, ez egoalako euren hauteskunde-programan eta, orain be, hur euki gura ez dabelako aurrekanpaina autonomiko bete-betean. Ulertzekoa da, aparkaleku hau oparituta be ez dalako saltzen.

Lau hilebeteotan, Gobernuak harri eta zur itxi gaitu aparkalekutzarra dala eta. Izan be, eskatu eta Batzar Nagusietan emoten zan batzorderatze baktxean, aparkalekutzar horrek zuok salgarriago egin gurean arrakasta barik emoten zeuntsien birtute barri bat eukan. Ahaldun nagusia batzorderatzen zala, tira, ba, ezustekoa, etorkizunean autoentzat ez eze autobusentzat be izango zalako aparkalekua. Ingurumeneko diputadu eta Gobernuko ordezkaria batzorderatzen zala, ezusteko barria, orduan autobusentzat bakarrik izango zalako aparkalekua. Azpiegituretako diputadua batzorderatzen zala, tira, ba, hor ez genduan ezustekorik euki, tamalez. Pradales jaunak ez eban ontzat hartu guri ezustekoa ekarte.

Dana dala, ezustekoez, jakina, badaukie mugarik. Tira, kasu honetan, bi. Lehenengo eta behin, txostenen mugea, hasieratik Aldundiaren txostenetan aparkaleku hori auto pribaduentzako 51 aparkaleku-plazatarako bakarrik erabiliko zala adierazoten zalako. Txosten horreek publikoak dira Aldundiaren webgunean. Pradales jaunak kontsultau egin daikez. Bigarren mugea fisikaren mugak dira, 14 metroko zabaleradun plataforma batean zeuok esango deustazuelako zelan egingo dauzan maniobrak 13 inguru metroko luzerea daukan autobusak. Tira, bai, badago modurik, Ibarrangeluko autobusaren plataforma birakaria erabili ezker, baina Gaztegiatxerako asmo hori eukiko ez zenduelakoan nago.

Bestetik, azpiegituretzar honen ingurumen-faktorea be badaukagu. Obra faraonikoa Bizkaiko paisajeari, kultureari eta natureari begira balio handia daukan ingurunean

kokatuko litzateke. Hain zuzen be, Euskadin autortu zan lehenengo biotopoaren atarian eta Natura 2000 sareko babes-elementuak be badaukiezan eremu batzuetatik hur be bai. Horretarako guztirako, esan dan lez, ez daukagu ingurumenaren ganeko eraginari buruzko azterketarik, aparkalekua errepidearen aldaketatzat hartu zalako eta, horrezaz ganera, proiektuaren arabera, landaraztatzeko eremu batean eregiko dalako errepidearen proiektutik banatu ezin dan konpentsazino-neurria. Dana dala, hona hemen alde onena: Aldundiak berak honako hauxe autortzen dau ingurumenaren arloko txosten osogarrian, eta berbaz berba aitatu dot, “arazoa aparkalekuko azpiegitura barrien betearazpenaren bidez konpontzean, ibilgailu pribaduaren erabilerea gitxitzen ez dauan estrategiari eusten jako”. Hau da, nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiko teknikariek eurek aparkaleku horrek ezertarako balio izango ez ebala jakinarazo, zuok aurrera segidu zenduen kosta ahala kosta. Besterik ez bada be, teknikarien erespidea errespetetako modu bitxia.

Hasieran esan dodan lez, orain Gobernuak aldi baterako geldiarazo dauz obrak, eta neurri batzuk ezarri dira; berbarako, 3.024 bisitaldiko eguneko mugea. Bisitaldien eguneko mugea aspalditik eskatzen genduan neurria da. Edozelan be, zehaztu dan kopurua adabakia da barriro. Adabaki hori kalkuletako, Aldundiak eremu publikoko segurtasun-erespideak hartu dauz kontuan, hau da, Gaztelugatxeko San Joaneko baseleizako gehieneko jente-kopurua, zeozelan esatearren.

Zein da arazoa? Tira, ba, baleiteke kopuru horrek bisitarien segurtasuna bermatu ahal izatea, nik neuk ez dot ukatuko hori egin daikeanik. Halanda be, ez dau inondik inora bermatzen, zuok prentsaurrekoan horixe esan zenduen arren, biotopoa lako eremu babestuko aberastasun naturala babestuta egongo danik. Izan be, hori egiteko, ez da gehieneko jente-kopurua neurtzen baseleizan edo eskilaretan edo zuok gura dozuen lekuan dagozan metro karratuen arabera. Hori jakiteko, eremu naturaleko karga-ahalmena aztertu beharra dago, eta, gaur egun, ez dogu zenbaki hori oraindokarren ezagutzen, zuok Gaztelugatxe turismoa erakarteko bigarren polo izentau zenduenetik urte bi igaro badira be.

Izan be, amaitzeko, horren ondorioz sortu da arazoaren zati handiena, hau da, masifikazino turistikorako daukazuen sustapen-eredua jasanezina da Bizkaiko mapako leku batzuetan. Izan be, jakina, administrazino publikoa izatean, ezin da esan “Juego de Tronos” telesailak Gaztelugatxe bete deuskula eta kitu. Gaztelugatxe dagoan moduan dago orain, lehenengo eta behin, turismo-eredu desegokia sustatzeagaitik eta, bigarrenez, urte bitik gorako epean eremu horretan ezer ez egiteagaitik.

Labur-labur esanda, gaur egun benetan behar dogu aparkalekutzarrerako proiektua behin betiko geldiarazotea eta instituzino zein eragile sozial guztiak koordinata lan egiten hastea, Gaztelugatxeko ingurunearen kudeaketea jasangarriagoa izan daiten. Hori dala eta, Elkarrekin Bizkaiakook ABP honen aldeko botoa emongo dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Ortiz, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Egun on edo arratsalde on, zer ordu dan kontuan hartuta, norberak interpretetan dauanaren arabera. Gaur Talde Berezia-Alderdi Popularraren arauz besteko proposamen hau daukagu eztabaidagai. Bertan, eskatu egiten da Gaztelugatxeko San Joan inguruan aparkalekua eregiteko jarduketak berehala gelditu daitezala. Hara, euskal sozialistontzat, Gaztelugatxeko San Joan eta inguru dala garrantzitsuena eta ez “aparkalekua bai, aparkalekua ez” manikeismoa. Emoten dau arauz besteko proposamen honetan helburua gehiago dala prentsako izenburua San Joanen eta inguruaren babesa baino. Hauteskundeetako aurrekanpainan gagozalako izango da, dinot nik. Lehen esan dodan lez, guk garrantzizkoari eutsiko deusagu, hau da, turismoaren eta

ingurunearen babesaren arteko orekea zelan bilatzen dogun ikustea, giltzarria horixe dala uste dogu-eta. Unzueta andreak eta Pradales jaunak euren batzorderatzeetan esan daben lez, aparkalekua, argi geratu daitela, neurri-moltso baten parte da, eta hori azkena izango da, aurrekoak ondo ez badoaz. Proiektuak, ganera, berton Ganbera honetako kide batzuek esan daben lez, Aldundiko teknikariek egindako aldeko txostenak daukaz, gure gustukoa izan nahiz izan ez. Ulergarria danez, Aldundiak daukazan teknikariakaz fiau behar gara. Seguruenik, gu geu bat gatoz aparkalekua berez neurri egokiena ez dala esaten danean, baina Ganbera honetako kide guztiak geugaz egongo dira ados, geugaz bat etorriko dira zeozer egin behar dogula esaten danean.

Hara, hemen arazoa dago beti. Egiten bada, egiten dalako, eta egiten ez bada, egiten ez dalako. Kasu honetan, zeozer egin da, aparkaleku ospetsu hori ez eregiteko. Hori azaltzeko, Pradales jaunak joan dan 10ean egindako batzorderatzera joko dot. Bertan, abian jarritako neurriei buruz berba egin eban. Ni neu ez nintzan batzorde horretan egon, baina, agirikoa danez, hartu-emona daukagu kideon artean, eta dokumentau egin naz. Lehenengo neurrian, biratzeko plataformea aitatzen dau, autobusek sartzeko eta maniobrak segurtasun-baldintzetan egiteko aukerea euki daien.

Abian jarri gura dogun bigarren neurria BI-3101 errepidetik Gaztelugatxeko San Joanerako sarbidea barriro antolatzea da. Horretarako, bidekurutzea antolatu behar da barriro, eta itxaroteko erdiko erreiak be egin behar dira irisgarritasuna eta bide-segurtasuna hobetzeko, baita oinezkoentzako ibilbideak eta markesina-hesia be, garraio kolektiboaren sarbidea be errazteko.

Hirugarrenez, seinale horizontalak eta bertikalak indartu behar dira errepide-bazterretan, behar ez dan moduan ez aparketako. Gogara aparketan daben 200etik gora ibilgailuak desagerrarazoten ahaleginduko gara. Berton, ustezko aparkalekua daukagu berbabide, eta, oraingoz, geldituta dago, azken neurria izango dalako. 51 ibilgailuri buruz gabilz berbetan. Ez dakit zer eretxi daukazuen gogara aparketan daben 200etik gora ibilgailuei buruz. Gero, neurri horren osogarri, trafikoaren inguruko beste jarduketa batzuk be garatu behar dira Bermeoko eta Bakioko udalakaz, eta Ertzaintzeagaz be koordinata.

Laugarren neurria Urizarretan aparkalekua sortzea da, betibe, neurriak eraginkorrak izango ez balira, eta barriro dinot, aurreko neurriak eraginkorrak izango ez balira. Hori dala eta, amaitzen joateko, Gaztelugatxeren eta inguruaren gaia modu globalean jorratu behar danez, danok be lagundu behar dogu, eta, lehen be esan dau EH Bilduko ordezkariak, danon alkarlana, instituzinoak, erakunde sozialak eta erabiltzaileak. Danon artean, turismo jasangarriaren eta ingurumenaren errespetuaren arteko orekea bilatu behar dogu, eta benetan uste dot norabide egokian goazala.

Halanda ze, arauz besteko proposamen honi ezezko botoa emongo deusagu funtsezko errazoi bigaitik, egia esan gehiago eukiko geunkezan arren. Zer ordu dan kontuan hartuta, ez naz askoz gehiago luzatuko. Lehenengo eta behin, gaia bera ez daualako ikuspegi globaletik jorratzen, lehen esan dodan lez, eta, bigarrenez, abian jarri diran neurriak eta laster abian jarriko diranak zelan doazan ikusi arte itxaron gura dogulako, aparkaleku ospetsu hori egin behar ez dogun ikusteko. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Por último, señor Beitia Zurinaga, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buen mediodía a todos/as. En este debate sobre la Proposición No de Norma presentada por el Grupo Mixto-Partido Popular y enmendada por EH Bildu, cuyo tema principal

consiste en el aparcamiento que se construirá en las inmediaciones de San Juan de Gaztelugatxe, aunque en la propia proposición figuran otra serie de peticiones, la idea principal, o la idea principal que yo destacaría, es el propio aparcamiento.

Ese es el debate que ha surgido acerca del aparcamiento, tanto en este Pleno como en las otras tres comparecencias anteriores, el tema que se ha abordado, a pesar de que luego también se han tratado otros temas, el tema que hoy nos ocupa es el aparcamiento de Urizarreta. Para contextualizarlo un poco previamente, ofreciendo un poco un histórico, muy brevemente, ya que no es hora de extenderse. Si volvemos un poco la vista atrás, en torno a 2017 la Diputación detectó en un principio que estaban surgiendo unos problemas en Gaztelugatxe, por lo que le pareció necesario llevar a cabo un estudio o ver un poco cómo se podían solucionar esos problemas. Para ello, es necesario un informe, se veía que era necesario llevar a cabo un estudio.

Ese informe se presentó en marzo de 2018. Lo presentó la Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural en una rueda de prensa. Recuerdo que de esa rueda de prensa vino directamente a una Comisión a explicar lo mismo, es decir, concluyó la rueda de prensa, yo me encontraba en las comisiones y estuvimos escuchándola, vino directamente de la rueda de prensa a informarnos en la Comisión, y sé que se retrasó, en persona, porque tuvo la oportunidad de hablar con los alcaldes de Bermeo y Bakio, para informales en persona y directamente. Creo que es importante que subrayemos esto, que desde el principio y durante todo el proceso se ha informado en persona y directamente tanto a Bakio como a Bermeo, antes y ahora.

Por la información de que dispongo, también durante el último mes, ya que se ha informado al alcalde directamente desde la Dirección y la Diputación; directamente, por parte de la Diputada. Este informe lo presentó Deloitte, donde se planteaban varias medidas para abordar el problema, tal y como la señora Arriola ha leído previamente en el informe, que se trata de un extenso, profundo y muy amplio informe de 400, 500 páginas. Las medidas propuestas en el mismo para su desarrollo no son cerradas, sino que se trata de unas medidas que pueden ser compatibles o complementarias entre sí. Se trata de un informe en profundidad, donde se habla de todos los problemas del entorno.

Desde entonces, con el objetivo de evitar o solventar los problemas surgidos tanto en el entorno de Gaztelugatxe como allí mismo, se han dado una serie de pasos o medidas, brevemente, este último año principalmente, como la implantación de un ticket para el control de las personas visitantes. De momento, se trata de algo testimonial o de algo simbólico, que, aunque sea gratuito, sirve un poco para regular, pero es una medida que deberá aplicarse más en adelante.

Entre otras medidas que se están llevando a cabo en este momento, la semana pasada el Diputado de Infraestructuras, el señor Imanol Pradales, habló en la Comisión solo de 3 o 4, que ya han sido implantadas. Resumiendo, la construcción de una plataforma para que los autobuses puedan girar, que ya se ha llevado a cabo; la reordenación del acceso a San Juan de Gaztelugatxe comenzando desde la BI-3101, así como la reordenación de la variante; y las labores de mejora de las medidas de seguridad, la adaptación de los accesos peatonales y la construcción de una bahía para la estación de autobuses, adaptándola a Bizkaibus como a otros autobuses. Eso también se ha llevado a cabo. Una tercera se está llevando a cabo en este momento en la manera de aparcar, para reducir el gran número de vehículos que aparcen irregularmente, donde se eliminarán 200 y pico aparcamientos irregulares, incrementando las líneas viarias y reforzando las señales. Todas esas medidas se llevan a cabo con la gestión y la coordinación de la Ertzaintza, y también serán necesarios los instrumentos que son competencia de los municipios de Bermeo y Bakio, para lo que se requiere coordinación. Por último, tenemos el aparcamiento de Urizarreta.

Entre las medidas planteadas, yo destacaría que entre todas las planteadas es la última, no ha sido la primera. Creo que eso es importante, porque no ha sido la primera opción de la Diputación. La propuesta del aparcamiento es posterior a otras medidas. De momento, tal y como se comentó en la Comisión de Infraestructuras, después de ver los resultados de las medidas anteriores, será una medida a estudiar en profundidad. Por tanto, será entonces cuando se adopte, si debe adoptarse, la decisión de construir el aparcamiento o no. Para que eso quede claro, voy a citar textualmente lo que dijo el Diputado de Infraestructuras: “la decisión para el uso, construcción de un aparcamiento estará directamente relacionada con los resultados obtenidos de las medidas de limitación de aforo, ya que todas esas medidas, para construir el aparcamiento o no, nos van a proporcionar la medida ideal, pero lo que es evidente es que la Diputación no está parada y que, mientras tanto, está estudiando todas las posibilidades. Entre ellas, buscando la más adecuada, para lo que se solicitan los informes, los estudios, etc.”.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Ahora, pasaremos al turno de réplica. Para ello, señora Fernández Angulo, portavoz del PP, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, eskerrik asko eta egun on barriro be. Elkarrekin Bizkaiako ordezkariak esan egin dau, aitatu egin dau proiektu hau zemendian bultzatu ebela. Tira, ez ziran horrenbeste luzatu. Udal eta foru hauteskundeak igaro eta, garagarrilean, bete-betean hasi ziran lanean, Ingurune Naturaleko Sailean izapideak egiten hasteko eta aparkaleku hau aurrera atera eikien ikusteko. Ez da besterik, behin eta barriro esaten gabilzanez. Uste dot Bakioko eta Bermeoko herritarrek oso barruratuta daukiela Gaztelugatxen zementua sartzea dala asmoa.

Gaur, atzera egiten gagoz apur bat. Tira, aukerak, abaguneak aztertuko doguz, aurrera egiten segiduten dogun ikusteko. Hara, niri, Bizkaiko ahaldun nagusiak, Rementeria jaunak egin eban batzorderatzean, argi eta garbi geratu jatan, bai ala bai egingo zala esan ebalako berak. Halanda ze, nire eretxiz ez da albista txarra Osoko Bilkura honetan Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak hori kolokan jartea, hau bai ala bai egingo dala, gitxienez. Uste dot nabarmentzekoa be badala hauteskunde-kanpainan proiektu hori inoiz aitatu ez izana, eta bizkaitarroi kirol-oinetakoak erabilteko premineari, Bizkaia berdeari buruz berba egin euskuen, gero! Horri buruz, ostera, txintik be ez, badakielako proiektu horrek gaitzespena sortzen dauana herritarren artean. Hara, talde sozialistako ordezkaria, nire asmoa ez da kanpainako ezelako izenbururik bilatzea. Badakizu zergaitik? Azaldu egingo deusut, eta, ganera, konbentzidu be egingo zaitut. Proposamen hau urtarrilaren 7an aurkeztu zan, eta Urkullu jaunak hilebete honen (e)(a)n egin dau hauteskundeetarako deialdia. Benetan dinotsut niri ez eustana horren barri emon. Nik ezin neban aurreikusi izenburu hori eukiko nebanik hauteskunde-epealdian bertan. Halanda ze, nire eretxiz, helburua ez da hauteskunde-epealdia, bizkaitar guztien eta, batez be, Bakion zein Bermeon bizi diranen eretxia bertora, Batzarretxera ekarteko ahalegina egitea baino.

Orain, proiektua aztertuko dabe barriro. Orain, igarokorra izango dala dinoskue. Onartuta dagoana irakurriko deusut, hau da, hau espediente administratiboa da, hau administrazio publikoa da. Nire eretxiz, hau herriko etxea, batzokia dala uste dauan jentea dago. Ez, ez. Honek oso prozedura argia dauka, oso zehatza. Honako hauxe dino zuok onartu dozuenak: “proiektuaren arabera, autoentzako 51 plazadun aparkaleku moduan atondutako plataforma barria ezarriko da”. Ez dino ezer autobusei buruz. “Gaur egun dagoan aparkalekuaren alboan egongo da kokatuta, eta, era berean, BI-3101 errepideko bidekurutzearen ondoan dagoan aparkaleku hori autobusentzat eta bizikletentzat atonduko da”. Halanda ze, orain zuok aldatu gura dozuen erabilera hori ez da inon agiri onartuta dagoan proiektuan. Ganera,

ikusi beharko zuok erabilera hori benetan aldatuko dozuen edo proiektu hori dala eta herritarren artean dagoan eta sentiduten dan haserrea baretzeko ezarri gura dozuen neurria baino ez dan.

Proiektua zelan izapidetu dan kontuan hartuta, ingurumen-arloko eskakizunak gitxitzeko ahalegina egin da, ez dalako proiektu barri moduan aurkezten, 2009. urtean egin zan proiektuaren 2. fasea izan gura daualako. Honek ez dauka ezelako zerikusirik. Hau proiektu barria da, eta bere helburu bakarra eskakizuna gitxitzea izan da. Dana dala, ez dot barrero esango, aitatu egin dalako desorduak dirala, hain zuzen be, baina lur-mobimentuak, okupautako azalerea euki dodaz berbabide.

Hona hemen proponidutako neurriak: zoru-mailan argiak jarrea, beharrezkoak izan ezker, automatikoak eta sarbidean baino ez, neurri zuzentzaileak dira; aparkaleku-plazen artean zugaztiak jarrea, gerizpea egon daiten; erramu-espezieen edo antzekoen lerrokadak landatzea harresi guztietako oinaldean eta landara igokariak, goiburuetan, tira, zementua, baina ikusi ez daiten, holantxe ulertu dot nik; ahal dala, barreretako metalezko profilen orde z egurrezkoak jarrea; baso mistoaren sailaren dentsidatea areagotzea aparkalekuko hegoaldean, errepidetik ikusmirak ostentzeko, barrero be, zementua, baina ikusi ez daigun, landara igokariak eta, ostantzean, errepidetik, herritarrok hor zer egin dan ikusi ez daigun; eta bizikletentzako aparkalekua atontzea. Horra hor holako tamainuko proiekturako neurri zuzentzaileak. Horrezaz ganera, eta barrero dinotsut, gizarteak ez dau onartzen. Nik neuk eskatu egiten deusut zeuon proiektua berresteko moduko hausnarketarik ez egiteko, beharrezkoa ez dan obrea dala ebazteko eta, horren ondorioz, onena behin betiko geldiarazotea dala erabagiteko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señora Arriola Alzola, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buen mediodía a todos/as, de nuevo. En primer lugar, lo que queremos decir es que nosotros/as votaremos a favor de esta propuesta presentada por el PP. No sé si nos aprobarán o no la enmienda que hemos presentado, pero para nosotros/as lo más importante es lo que se presenta y no quién lo presenta. Por tanto, nosotros/as votaremos a favor.

Existen miles de razones para no construir este aparcamiento, para no llevar a cabo esta obra. En primer lugar, la contestación social que ha causado. También quiero decirlo, debemos dar las gracias al colectivo SOS Gaztelugatxe, por el control social realizado. De hecho, nos pide a nosotros/as, a los/as que estamos en las instituciones, que nos repensemos las cosas, y eso es algo a poner en valor, realmente. Por tanto, en primer lugar, quería decir eso alto y claro.

Por otro lado, todo el propósito, toda la trayectoria de este aparcamiento ha sido una cuestión de improvisación. No se ha llevado a cabo una gestión, sino que se han ido improvisando las cosas, así como modificándolas y adaptándolas sin rehacer los propios proyectos. La inconveniencia, lo inconveniente de este aparcamiento, creo que se ha trasladado de miles de formas diferentes. La gestión de Gaztelugatxe requiere una planificación integral, y esa planificación integral no se puede supeditar a cómo va el aforo tras el verano, si se llena o no, si el coche está bien aparcado o no, o si el transporte público va a funcionar bien o no.

De hecho, sobre el buen funcionamiento del transporte público formularemos una pregunta la semana que viene, pero ¿la Diputación Foral de Bizkaia qué esfuerzo específico va a realizar para eso? Luego, para el control de lo restante, ¿con quién se suscribirá un acuerdo? ¿Con la Ertzaintza, para disponer de más recursos? ¿Cómo se va a llevar a cabo? Porque yo vivo en ese entorno, también en la costa, y veo que la planificación integral

no sirve, como ustedes dicen, para la movilidad sostenible, puesto que en Laga, en Laida y en toda la zona suele haber muchos, muchos coches mal aparcados en los márgenes de la playa.

Por tanto, aquí también nos preocupa. Lo que se necesita es una planificación de la movilidad sostenible en toda la zona, así como la que le corresponde a Gaztelugatxe, por supuesto. La cuestión no es lanzar la pelota hacia delante y, como si de un partido de fútbol se tratara, continuar con el partido. Lo que necesitamos es constituir una mesa, constituir una mesa de gobernanza, con todos/as los/as miembros, también con los institucionales, es decir, en esa mesa deberán estar presentes el Ayuntamiento de Bermeo, el Ayuntamiento de Bakio, la Diputación Foral de Bizkaia y también los/as distintos/as agentes, y en esa mesa se deberán adoptar las decisiones, como ha comentado el señor Beitia.

En ese informe, en el informe que he leído yo, en ese informe de la Diputación, se recogen un gran número de medidas, pero en esas medidas se deberán establecer unas prioridades, que es lo que requieren una planificación y una gestión. Eso lo deberemos realizar entre todos/as, no llamando por teléfono y diciendo: “Bakio, ¿qué han hecho ustedes? Y Bermeo, ¿ustedes? No, no, eso se deberá realizar entre todos/as, para lo que resulta imprescindible constituir una mesa, contar con una planificación integral de la movilidad sostenible, así como de la propia Diputación Foral de Bizkaia. Sin lugar a dudas, dicha planificación deberá contestar a la emergencia climática, puesto que esta Cámara también ha aprobado la emergencia climática. Lo que supone que deberemos cambiar nuestra manera de gobernar, nuestra manera de vivir, nuestra manera de consumir, a lo que se debe responder con nuevas recetas, no con recetas antiguas. Un aparcamiento constituye una receta antigua, por lo que no va a responder con las lentes adecuadas.

Aquí, lo ha dicho la propia señora Claver, “garrantzitsuena ez da egitearren egitea, ondo egitea baino”. Eso es lo que pedimos, y lo ha mencionado el señor Otermin, “egiazkoena dan irakurketea da gaxena”. Eso es. Eso es lo que creemos también en este caso. Gaztelugatxe necesita una planificación holística, integral, lo que conlleva a situar la vida y el medioambiente en el centro de las políticas. Planificación, gobernanza, gestión, no improvisación. Eso es lo que venimos a solicitar, para que todos/as vivamos mejor. Para no dejar una hipoteca medioambiental a las generaciones venideras. Nosotros/as venimos a trabajar de la mano. Les tendemos nuestra mano de nuevo, para que entre todos/as construyamos una Bizkaia mejor y un Gaztelugatxe sostenible. Sin más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

EL Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Tira, gure aldetik, EH Bildu taldeak be aurkeztu dauan zuzenketea babesten dogu, eta berak be onartu daiala eskatu gura deusagu ABP proponidu dauanari. Boto-asmoaren inguruko adierazpenen arabera, emoten dau gai honetan Gobernua barriro geratuko dala bakarrik bozketan, lehenengo egunetik, eta esan egin beharra dago, errakuntzea izan dan aparkalekutzarra defendiduten. Bakarrik geratuko zarie, kanpoan sustatzearren sortu dan eskari turistikoa kudeatzeko orduan agirikoa danez Gobernu Taldeak daukan erabateko ezintasuna baino ez danari eusten ahalegintzen be bai.

Zuon esanetan, 2017an, tira, arazoa ikusita beharrean hasi zinien, baina 2019an, 727.000 lagunek bisitau eben Gaztelugatxeko San Joan, 2018an baino %24,6 gehiago, alegia. 2018an, hain zuzen be, bisitaldien puntea 6.000koa izan zan egun batean. Oker ez banago, Aste Santuan izan zala uste dot, baina ez nago ziur. Epealdi horretan guztian, zer egin dau Bizkaiko Foru Aldundiak? Tira, ba, ezer gitxi, hau da, auto pribaduentzako aparkalekua eregiteko proposamena egitea, ibilgailu pribadurik ez erabilteko. Hara, batzuetan tribuna

honetara nator eta esan egiten dot, “hona igongo naz, Batzordeen Aretora igongo naz, eta zurtz eginda ez geratzen ahaleginduko naz”. Oso gatxa da, gatx-gatx jarten deustazue, benetan. Aparkalekua erabilteko asmoa kendu gurean aparkalekua eregitea be! Sor eta lor nago! Kontraesan ezin argiagoa. Ganera, lehen esan dodan lez, Bizkaiko Foru Aldundiko txostenetan bertan be adierazoten zan aparkaleku horrek ez ebal ibilgailu pribaduan egindako joan-etorrien arazoa konponduko. Alderdi Sozialistako ordezkari jauna, hortxe daukazu teknikarien erespeidea, eta zuk zeuk eskatu deuskuzu horri jaramon egiteko. Halanda guzti be, Aldundia tematuta dago, eta milioi bat euro gastau gura dauz 51 autorentzako aparkalekuan, alternatibak barik aukera hobeak diranak hautatu beharrean. Berbarako, behin eta barriro proponidu da Bakiotik eta Bermeotik anezken sistemea ezartea. Aukera hori merkeagoa eta jasangarriagoa da, eta, horrezaz ganera, kostaldeko udalerri horreetara be erakarriko leukez turistak, zentralizauta egon ez daitezkan eta Bizkaiko lurraldean sakabanatu daitezkan.

Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak be esan dauanez, 2017an jarri ziran abian, Deloitte eskatutako txostena aurkeztu eben eta 2018ko martian aurkeztu eben. Eskatu egin gura neuskizu guri adierazoteko txosteneko zer ataletan azaltzen dan aparkaleku horren eraikuntzea, hain zuzen be. Izan be, ezustekoa!, ez da inon agiri, txisteratik atera zenduen zuok. Hain zuzen be, 2017tik, ezer ez egitea izan da Bizkaiko Foru Aldundiak Gaztelugatxeko San Joanerako euki dauan araua. Sartzeko tiketa ezarten ahalegindu zinien, eta zelako emoitzak euki dauz? Tira, ba, 2018ko bisitaldien kopurua emon deusuet, eta jentez ganezka egon da. Orain, azpiegituretzarra aldi baterako gelditzea proponiduten dozue, hauteskunde-epaaldian, hain zuzen be, eta, aldi berean, eguneko 3.024 bisitaldiko mugea ezarri dozue. Lehen azaldu dogun lez, muga horrek ez dauka ezelako zerikusirik inongo ingurumen-erespedegaz. Halanda ze, Bizkaiko Foru Aldundia guzurretan dabil, kopuru horrek, muga horrek Gaztelugatxeko biotopoa artatzen lagunduko dauala dinoanean. Aldundiak proponiduten dauan kopurua eremu publikoetako gehieneko jente-kopuruari buruzko legeriatik ateraten dozuen adabakia baino ez da. Orain dala urte bi, zuok dinozuen lez, aldi baterako neurri moduan onartuko zan ezusteko hori, baina, gaur egun, 2020an, berandu eta txarto zoaze.

Tribuna honetatik eskatu gura deusuet autortu daizuela aparkalekua aurkeztu zenduenetik atzera egin behar izan dozuena. Horretarako, lehenengo eta behin, etorkizunean aparkalekua autobusentzat erabiliko dala asmau dozue, ez dalako aparkaleku horregaz lotutako inongo txostenean azaltzen. Bigarrenez eta azkenik, oraingoz aldi baterako izango dan geldiarazpena iragarri dozue. Gaur berton daukaguna egunero gero eta handiagoa dan eskari soziala eskatzen dabilena da, hau da, Foru Aldundiak proiektutzar hori bertan behera itxi daiala behin betiko eta ingurumen zein paisaje arloan hain balio handia daukan ingurunerako, Gaztelugatxeko San Joanerako benetan jasangarria dan strategiaren diseinuan nahiz ezarpenean inplikautako udalakaz eta instituzino publikoakaz lan egiten hasi daitela. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Ortiz Zaballa, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, de nuevo. Egun on edo arratsalde on danoi. Lehenengo eta behin, esan egin gura dot oso kontuan hartu behar dogula zein zan Talde Berezia-Alderdi Popularrak aurkeztutako arauz besteko proposamenaren helburua. Bertan, hain zuzen be, eskatu egiten da Gaztelugatxeko San Joan inguruan aparkalekua eregiteko jarduketa guztiak berehala geldiarazoteko. Tira, ba, Pradales jauna batzorderatu ostean, zuk berton egin beharko zenduana “aparketea” da, arauz besteko proposamen hau “aparketea”. Barriro dinot. Arauz besteko proposamen hau “aparkau” behar zenduan, aparkalekuari buruz berbetan gabilzala eta. Gero, beste gauza bat esan gura deusat Alderdi Popularrari, hau da, ez dago ezelako interesik, Gobernu Taldeak ez dauka aparkalekua egiteko ezelako interes berezirik. Izan be, zuok hemen esan dozuenaren arabera, Aldundiko

Gobernu Taldeak interes ikaragarria dauka, eta ez dakit zein izango dan, aparkalekua egiteko. Ezta hurrik emon be! Guk geuk Gaztelugatxe bere osotasunean defendiduten dogu erabat, era global baizen integratzailean. Ez gagoz aparkalekuari buruz berba egiten. Guretzat horixe bera da kezkarriena. Lehenengo agerraldian esan deutsut, eta bigarrenean dinotsut barriro. Garrantzitsuena Gaztelugatxeko San Joan eta bertako ingurunea dira, oso-osorik, ez aparkalekua bakarrik. Ganera, zelan jakingo dogu, dinodana, zelan emongo deusagu baiezko botoa geldituta dagoan zezeri, gainerakoak ondo ez badoaz hartuko dan neurria dala kontuan hartuta. Mesedez, espazio eta denpora apur bat itxi, zelan doazan eta abian jarten diran neurrien emoitzak zelakoak diran ikusteko. Denporea emon behar jako denporeari.

Gero, Bilduri jagokonez, ezer ez, ñabardura txiki bat Arriola andrearentzat. Eskerrik asko kategorian igon nozulako. Otermin andrea esan deustazu eta ez Ortiz jauna. Pasadizu txiki bat. Dana dala, zeure agerraldi bietan erakutsi dozun jarrerea euki dot gogoko. Igotean esan deutsut horixe izan behar dala bidea. Nire eretxiz, barriro dinot, Pradales jauna batzorderatutakoan eta aparkalekua erabili beharko litzatekean azken neurritzat hartutakoan, buelta emon beharko litxakio. Esan deusuedan lez, geuk be ez dogu uste neurri egokiena danik, baina, esan be esan deusuedan lez, zeozer egin behar zan. Gure eretxiz, jesarteko, berba egiteko eta Gaztelugatxeko San Joanen, bertako ingurunearen eta inguru osoaren babeserako modu onena bilatzeko espiritu konstruktibo horretatik jo behar dau bideak. Guk eskua luzatzen deusuegu alde horretatik.

Gero, Podemosi jagokonez, tira, susmetan neban aparkalekutzarraren berba itsusi hori barriro aterako zenduala. Tira, ba, horregaz segiduten dozue. Itandu egingo dot. Zelan ikusten dozu zuk berrehun eta piku auto baino gehiago, barriro dinot, gura daben lekuan, gura dabenean eta gura daben moduan aparkauta egotea? Zer da hori? Zelan azaltzen dozu hori? Izan be, 51 ibilgailuentzako aparkalekutzarra da. Ni neu letretakoa naz, ez zientzietakoa. Izan be, jakina, ni neu, egia esan, hori definiduteko berban pentsetan nengoan, eta ez dot topau, hau aparkalekutzarra dalako. Ez dot berbea esango, seguruenik erratu egingo nazalako.

Beste gauza garrantzitsu bat geratu jat, Benito jaunari entzuten nengoala, hau da, pikatxioa eta palea daukaguz eskuan, makinak daukaguz aparkalekua egiten, erabateko temea daukazuelako aparkalekuagaz. Zuon kezka Gaztelugatxe eta bertako ingurunea izan beharrean, itsututa zagoze aparkalekuagaz. Benetan uste dot egitea gura dozuela. Niretzat emoten dau egin gura ez izatea barik, behin eta barriro errepiketari dozuela. Azkenean, bertotik urteten dodanean, obrak ikusten joatea eta zelan dabilzan garatzen daukat buruan. Hau da, orainaldian berba egiten dozu aparkalekuari buruz, betearazoten egongo balitz lez. Ezta hurrik emon be! Halanda ze, barriro dinot. Nire ustetan, neurriak ikusteko denporea emon behar dogu. Eraginkorrak izango al dira! Izan be, ez dot uste Ganbera honetako kideren batek ezelako gogorik eukiko dauanik neurri horreek eraginkorrak izan daitezkan, ostantzean baleitekealako euren diskursoa amaitzea. Aparkalekutzarra amaitzen bada, akabo diskursoa, akabo dana.

Laburbilduta, guretzat benetan kezkarria dana Gaztelugatxe eta bertako ingurunea dira, turismoa eta ingurunearen zein ingurumenaren babesa bateratzea. Horretantxe gabiliz. Ganera, lehen agerraldian esan deusuedan lez, bide egokitik goazala uste dot. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Para concluir el debate, señor Beitia Zurinaga, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Se han dicho muchas cosas. Antes tampoco he respondido a varias cosas que se han comentado en el primer turno. Brevemente, siendo la hora que es, quisiera decir que la declaración de impacto medioambiental ya se ha realizado. Se ha comentado que no se ha realizado o que se ha realizado de mala manera, que se manipula. Me voy a remitir a lo que se leyó en una Comisión, a los datos concretos y a lo que

concretamente se decía: “Bizkaiko Foru Aldundiak abuztuaren 2an ingurune naturalari buruz emon eban 368/2019 Foru Araua, Gaztelugatxeko San Joanerako irisgarritasunaren proiektuko 2. faseari jagokonez Gaztelugatxeko San Joaneko BI-3101 errepidearen trazadurako proiektuaren ingurumen-txosten osogarria egitea ebazteko”. Aurrekariak, laburtu egingo dot, ez naz zentrauko daborduko esan dan guztian. Publikoa da, ganera. Taldeei buruz, ingurumenaren ganeko eraginaren ebazpenetako b idatz-zatian adierazoten da, proiektua aldatu edo handitzen bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko 1998ko zezeilaren 27ko 3. Legearen 50. artikulua xedatutakoa aplikauta, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek zehaztuko dau aldaketa eta handitze horreek arauan aitatzen diran ingurumen-eraginaren ebaluazinarako kasuetakoren baten pean dagozan. Horreek holan, 2019ko garagarriaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak idazki bat bialdu eutsan Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sail honi, azalpenak, proiektuaren balorazinoa eta oharrak eskatzeko, baina, esan bezala, ez dodaz irakurriko; izan be, publikoak dira, eta hau ez da horretarako unea. Eta, orain, nire eretxiz ingurumenaren onespina jasoteko orduan balorauko diran erispideak zehazten dabezan oharrak zerrendauko dodaz. Honeek dira:

Lehenengoa. Kontuan hartu beharreko lehen eragina. Atmosferara igorritako isurketak nabarmen handituko dira? Erantzuna. Bolumenari jagokonez, ez da espero egingo isurketen bolumena baino handiagorik, parkearen ondorioz.

Bigarren erispidea. Ibilgu publikoetan edo kostaldean isurketak nabarmen handitzea espero da? Erantzuna. Ez da espero isurketak nabarmen handitzea. Eta laburbiltzen nabil. Luzapena talde guztiek daukie.

Hirugarren erispidea. ¿Se espera un incremento significativo de los residuos generados? Según la valoración ambiental, el impacto directo es de menor importancia y, por lo tanto, será compatible. ¿Se espera un incremento significativo de la utilización de recursos naturales? El aparcamiento propuesto supone un uso territorial casi natural. Tendrá una superficie reducida, ya que es una obra muy pequeña. Ez dakit non ikusten dan makroproiektu bat dala, obra faraoniko bat dala. Barriro dinot, azalerara murriztu, obraren eragin txikia dala-ta. Teknikariek esan dabe, ez politikariek. Natura 2000 Sarearen naturgune babestuei eragingo deutse. Aurreikuspenen arabera, proposatuko ekintzak babestutako naturgunetik kanpo egingo dira.

Eta, azkenik, kultur ondareari nabarmen eragitea. Erantzuna. Ez da espero kultur ondarean ezelango eraginik izatea. Aurreikusten diran zuzenketako eta bestelako erispideei buruz berba egin ostean, azkenik, eta laburpen soil lez, hauxe xedatu da: Gaztelugatxeko San Joanerako irisgarritasunaren proiektuko 2. faseak ez dauka eragin negatibo eta nabarmen handiagorik edo desbardinik ingurumenean, Gaztelugatxeko San Joaneko BI-3101 saihebidetaren trazadurako proiektuaren ingurumen-baimenaren esparruan aztertutakoei jagokenez. Halanda ze, txostena aldekoa da. Esandakoaren ostean, nik uste dot txosten teknikoak gehiago hartu behar dirala aintzat, eta ez dala zeharka jardun edo eztabaidatu behar existitzen ez diran gauzen inguruan.

Zenbait taldek egindako baieztapenei jogokenez, ezingo deusiet guztiei erantzun; halanda be, Talde Berezia-Partido Popular taldeak esan dau proiektua opakua eta beste dala, eta aldatzen joan dala; proiektua jenturreko informazino-aldian egon da, eta alegazinoak eta ekarpenak egin eta jasoteko aukerea egon da. Eta hortik abiatuta onetsi da behin betiko proiektua. Hori da legezko oinarria.

Bilduren argibideen inguruan, urtenbide integrala. Urtenbide integrala Deloittearen txostenetik abiatuta emon da; bertan, erantzun batzuk emoten dira edo erantzun multzo bat emoten saiatzen da, Gaztelugatxeko ingurunean eta biotopoen bertan dagoan arazo osoari aurre egiteko. Ordua ikusita, ez naz gehiago luzatuko, eta, lehen esan dodan lez, gure taldearen botoa kontrakoa izango da. Sin más.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Una vez concluido el debate y antes de someterlo a votación, he de preguntar a la portavoz del Grupo Mixto-PP, la señora Fernández Angulo, si va a aceptar la enmienda presentada por Euskal Herria Bildu o no. Que no acepta la enmienda. Muchas gracias. Por tanto, someteremos a votación la Proposición No de Norma, pero sin aceptar la enmienda. Votemos. El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 44: 17 votos a favor, 27 votos en contra y ninguna abstención. Por tanto, no se ha aprobado la Proposición No de Norma. Una vez concluido el Orden del Día, también se levanta la Sesión Plenaria. Buenas tardes.

Batzarra 15:40an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 15:40 horas.